


# INGURUMEN KALTE ETA DELITUEN

## EGOERA GIPUZKOAN

**Kriminologia Berdea**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Zuzenbide Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco

Gradu Amaierako Lana, Kriminologiako Gradua

2020-2021 Ikasturtea

Egilea: Izaskun Emazabel Peña

Zuzendaria: Auxkin Galarraga Ezponda

Donostian, 2021eko ekainaren 18a

**AURKIBIDEA:**

1. Sarrera.....	7
2. Kriminologia Berdea.....	10
a. Kriminologia berdearen aurrekariak eta hastapenak.....	10
b. Beharrezko kontzeptuak.....	12
• Ekologia.....	12
• Ingurumen kaltea eta Ingurumen delitua.....	13
• Ingurumen zuzenbidea.....	14
• Ingurumen Justizia.....	15
c. Delituen Tipologiak.....	16
d. Zein portaera barne hartzen ditu?.....	17
e. Kriminologia berdearen ikuspegiak.....	20
f. Kriminologia berdearen zereginak.....	23
g. Kritikak.....	24
3. Marko juridiko-normatiboa eta Kontrol Mekanismoak (Orokorrean).....	26
a. Mundu maila: Nazio Batuen Erakundea.....	27
b. Europa: Europar Batasuna.....	31
c. Espainia.....	35
4. Ingurumen kalteei aurre egiteko baldintzak eta zailtasunak (Orokorrean).....	37
5. Ingurumen delituak eragiten dituen kalteak (Orokorrean).....	43
6. Nola aurre egin ingurumen delitu eta kalteei (Orokorrean).....	45
7. Industria eta Enpresen Jarduerak sortzen dituen kalteak.....	54
a. Ezaugarriak analitikoki.....	55
b. Marko juridiko-normatiboa eta kontrol mekanismoak.....	57
c. Kalte hauei aurre egiteko baldintzak eta zailtasunak.....	62
d. Kalteak.....	68
e. Nola aurre egin kalte hauei.....	70
8. Gipuzkoako egungo egoeraren analisia.....	77
a. Metodologia eta Mugak.....	77
b. Ikerketaren emaitzak.....	80
• Ingurumen arazoak.....	80
• Arazo honi aurre egiteko aztertutako baliabideak.....	84

c. Ingurumen kalteak eta hauei aurre egiteko baliabideak: eragileen diskurtsoak.....	92
9. Ondorioak, Proposamenak eta Etorkizunerako ikerketa bideak.....	107
10. Bibliografia.....	114
11. Eranskinak.....	120
12. Txosten Exekutiboa.....	124

## **Laburpena**

Ikerketa kualitatibo honen helburu nagusia, ingurumen delitu eta kalteei dagokionez, Gipuzkoako egungo egoera konkretua ezagutzea izan da. Horretarako, ikuspegi kriminologiko bat baliatuz, kriminologia berdearen adarrak, gai honekiko teorikoki eskaintzen dituen gogoetak (ikuspegiak, delituen tipologia, erregulazioa...) eta proposamenak aintzat hartu dira. Ondoren, helburu nagusiari helduz, ingurumen kalte nagusiak identifikatu dira: arrantza eta ehiza ez-zilegia, isurketak eta suteak. Arazo hauei aurre egiteko ikertutako baliabideak administrazioaren aldetik, Ertzaintza, Guardia Zibilaren Itsas Zerbitzua eta Udaletxeak eta bestalde, GKEEn rola ere aztertu da zentzu honetan. Azkenik, entitate hauek ingurumen kalteen arazoari aurre egiteko izan ditzaketen zailtasunak aztertu dira hainbat dimentsio aintzat hartuz, horien artean aurkikuntza esanguratsuenak, hauek izango lirateke: Ertzaintzaren barne giza baliabide eta baliabide-materialak hobetzeko behar bat dagoela, erregulazioaren eraginkortasuna eskasa dela eta honen bateratasun faltak ere are gehiago zailtzen duela ingurumen eta kalte hauen kudeaketa eta industria eta enpresei dagokionez interes ekonomikoak gidatzen duela hauen jarduera, ondorioz, eragiten dituzten ingurumen kalteen garrantzia gutxietsiz. Ezaugarri positibo bat azpimarratzearren, entitate eta eragile desberdinen arteko lankidetzak ugaria eta altua dela esan daiteke delitu hauen ikerketari dagokionez.

**Hitz gakoak:** kriminologia berdea, ingurumen kaltea, industria, kutsadura, ikerketa kualitatiboa.

## **Resumen**

El objetivo principal de esta investigación cualitativa es acercarse a la realidad de Gipuzkoa en cuanto a los delitos y daños medioambientales que se producen. Con el fin de enfocar el tema desde una perspectiva criminológica se han tenido en cuenta las reflexiones y propuestas que ofrece la rama de la criminología verde (perspectivas, tipologías del delito, regulación...). Retomando el objetivo principal, primero, se han identificado los principales daños medioambientales que se dan: pesca y caza furtiva, vertidos e incendios. Asimismo, los recursos que se han analizado por parte de la administración para hacer frente a estos daños son los siguientes: la Ertzaintza, Servicio Marítimo de la Guardia Civil y Ayuntamientos; por otra parte, también se ha tenido en cuenta el rol de las ONGs. Por último, se han analizado las dificultades que se pueden

encontrar estas entidades a la hora de hacer frente a la problemática de los daños medioambientales, teniendo en cuenta varias dimensiones. Los hallazgos a destacar serían que, por una parte, dentro de la Ertzaintza hay una necesidad de mejorar e incrementar, tanto recursos materiales como humanos. Por otra parte, que la efectividad de las leyes es escasa y que la falta de uniformidad de estas dificulta aún más la gestión de los daños y delitos medioambientales. Además, los intereses económicos que tienen las empresas y las industrias guían su actividad, lo que causa el menosprecio de los daños medioambientales producidos. Por último, con intención de destacar un aspecto positivo, se da una gran y variada colaboración entre entidades y agentes que se encargan de la investigación y gestión de estos delitos e infracciones medioambientales.

**Palabras clave:** criminología verde, daños medioambientales, industria, contaminación, investigación cualitativa.

### **Abstract**

The main purpose of this qualitative research is to know the reality of Gipuzkoa when it comes to environmental crimes and harm. With the aim of analysing the subject from a criminological view, considerations and proposals of green criminology (perspectives, crime typologies, regulation...) have been taken into account. Getting back to the main goal of this research, the primary environmental harms that have been identified are illegal fishing and hunting, toxic spills and arsons. In addition, the administration resources that have been analysed are, on the one hand, the Ertzaintza, the Sea service of Guardia Civil and Town Halls. On the other hand, the role of some NGOs has also been considered. On top of that, the pitfalls that these institutions and agencies may encounter on the way to deal with the environmental issues have been analysed, taking into account different dimensions. The findings of this paper have been, on one hand that there is a need to improve the human as well as the material resources within the Ertzaintza. On the other hand, it has been found that the effectiveness of environmental regulations is scarce and that the lack of uniformity of them makes the management of environmental damage more difficult. Moreover, the fact that business activity is driven by economic interests, causes environmental damage produced by them to be underestimated. Finally, with the intention of highlighting a positive aspect, there is a great and varied collaboration between entities and agents in charge of the investigation and management of these environmental crimes and infractions.

**Key words:** green criminology, environmental harms, industry, pollution, qualitative research.

## 1. SARRERA

Gaur egun, geroz eta arrantzi handiagoa bereganatzen ari da gizartean gizakiak eta bere bizimoduak bere ingurumenean eta gainerako espeziengan eragiten ari dituen kalteen problematika. Egia da, aspalditik talde ekologistek batez ere, zabaltzen saiatu diren premisa bat dela. Paradoxikoki, gizakiaren egunerokotasuna erosoago bihurtzeko asmoz sortu diren asmakizun eta teknologia berriek, batez ere industrializazioaren ondorioz eta automobilen hedapenak, gaur egun bizitzen ari garen larrialdi klimatikoaren egoera eragiten ari da, hau da, gizakiaren bizitza erosoago bihurtzen duten jardura eta asmakizunak, aldi berean, gizakia kaltetzen ari dira. Aitortu beharra dago, eragin horiek epe luzerakoak direla eta oraindik ondorio larrienak ez garela jasaten ari eta horrek orokorrean gizartean sentsibilizazio sortzea eta arazoa konpontzeko ekimenak ahulagoak izatea dakar. Horretaz gain, kriminologiaren diziplinaren barne, maila akademikoan, asko jorratzen ez den gaia dela dirudi, behintzat, gaztelaniazko literatura kriminologikoa bilatzerako orduan. Ingurumenaren egoera honek eta akademikoki dagoen urritasunak gaiaren inguruan ikertzeraz gonbidatu nau.

Beraz, Gradu Amaierako Lan hau kriminologia berdearen ikuspegia oinarritzat hartuko du. Kriminologiaren adar hau, ahalik eta modu laburrenean, deskribatzen saiatuz, ingurumen kalte eta delituen jatorria eta izaera ulertzen saiatzen da. Horrela, hauen aurrezaintzarako eta arazoari aurre egiteko hainbat proposamen eginez eta gaur egun indarrean dauden erregulazio eta legediak aztertuko ditu. Kriminologiaren adar honek hainbat kritika jasan ditu, batez ere, diziplina bereko korrante tradizionalagoengatik, baina, gaur egun kritika horiek bai inplizituko zein esplizituki errefusatu dira.

Lan honen helburu nagusia, gaur egun Gipuzkoako eremu geografikoan ingurumen delitu eta kalteen egoera ezagutzea izan da. Konkretuki ohikoak diren kalteak identifikatu dira lehenengo, ondoren kalte hauei aurre egiteko eskuragarri ditugun hainbat baliabide deskribatzen dira, batez ere, administrazioaren testuinguruan eta gobernuz kanpoko erakundeei dagokionez. Azkenik, ingurumen kalte eta delituei aurre egiteko gure ingurunean topatu ditzakegun zailtasunak identifikatzen dira, bertatik hobekuntzak burutze aldera proposamenak egiteko asmoz.

Beraz, lan honen garapena, Gipuzkoako ingurumen arazoaren errealitatea ezagutzeko helburua izan du. Horretarako atal enpirikoa burutzeko, elkarrizketatuak aukeratzeko orduan, bi hipotesi izan dira gida. Lehenengo, justizia administrazioaren, botere

legegilearen bai eta administrazio polizialaren aldetik interes falta bat dagoela ingurumen kalte eta arazoei aurre egiteko eta horren ondorioz, delitu hauek ikertzerako orduan errekurtso falta bat topatu daitekeela. Beste aldetik, industria eta enpresek euren jardueraren bitartez, osotasunean gizakiok igortzen ditugun negutegi efektuko gasen, baita lur, ur zein airean isuritako kutsaduraren arduradunak direla, proportzionalki zati handi batean. Horrek, aldaketa klimatikoaren efektuak areagotzen ditu, eta lanean ikusiko dugun bezala honen ondorioak kalte oso larriak eragingo ditu, bai gizaki zein gainerako espezieentzat. Beraz, ingurumenean inpaktu gehien sortzen duten eragileak izanik, ingurumenaren babesa bermatzeko, hauei betebeharrak eta neurri zigortzaile larriagoak ezartzea beharrezkoa litzateke.

Horregatik, lehendabizi ingurumen kalteen inguruan marko orokor bat ezartzen saiatu naiz, lehenengo kriminologia berdearen nondik norakoak deskribatuz, ondoren, ingurumenean kalteak sor ditzaketen portaeren eta jardueren inguruan dauden erregulazioak aipatu eta deskribatu dira, gaiaren inguruko erregulazioaren irudi orokor bat sortzeko asmoz, bai mundu-mailan, europar-mailan zein, estatu-mailan. Garrantzitsua da aipatzea, atal horretan aipatutako legedia eta araudiak, ez dituela indarrean dauden erregulazio guztiak barnebiltzen, hau da, ingurumen erregulazioa are zabalagoa dela. Baina, konkretuki lan hau garatzeko esanguratsua diren araudiak biltzen dira bertan. Behin erregulazioa azalduta, ingurumen kalteei aurre egiteko beraien ezaugarri eta izaerarengatik orokorrean topa ditzakegun oztopoak deskribatzen dira. Hurrengo atalean, ingurumen delitu eta kalteek konkretuki eragiten dituzten kalteak deskribatzen dira, horretarako kriminologiaren ikuspegi desberdinek egiten dituzten kaltearen sailkapenak azalduko dira, zein dimentsio dituzten kalte horiek (denbora, eremu geografikoa, kaltetutako elementuak...) eta azkenik zeintzuk diren kaltetuak, biktimizazio lausoa ezaugarri nagusi izanik. Atal orokorraren amaiera gisa, ingurumen delitu eta kalteei aurre egiteko topa ditzakegun baliabideak eta kriminologiaren proposamenak azaltzen dira.

Behin gaia orokorrean kokatuta dagoenean, industria eta enpresen jarduerak konkretuki ingurumenean dituen inpaktuak ikuspuntu kriminologiko batetik aztertzea igarotzen da, atal orokorrean jarraitutako egitura berdina jarraituz. Industria eta enpresen jarduera xehetasun handiagoz azaltzea garrantzitsua iruditu zait, geroago datu zehatzagoekin azalduko den bezala, ingurumenean inpaktu gehien sortzen duten eragileak direlako, batez ere, negutegi efektuko gasen igorpenari dagokionez. Baita ere, Gipuzkoako egoera aztertu nahian, orokorrean Euskadi nahiko industrializatua den eremu bat dela kontuan



izanik garrantzizkoa iruditu zait xehetasun gehiagorekin fenomeno honen azterketa burutzea.

Ikerketaren helburu nagusia betetzeko asmoz, atal enpirikoan baliatutako metodologiari dagokionez metodologia kualitatiboaren bitartez burutu da, ondoren txostenetatik ateratako datu kuantitatiboak ere erabili dira informazio hori osatzeko.

Metodologia kualitatiboari dagokionez, analisia burutzeko, informazio esanguratsua izan zezaketen eragileak identifikatzeko, Eguzki Taldeko Ekologistako abokatuarekin elkarrizketa bat izan nuen. Horren ondoren, eragile garrantzitsuak identifikatu eta horiekin banakako elkarrizketak burutu ditut, salbu bi kasutan non bi elkarrizketatu batera izan ditudan, talde fokalak osatuz. Elkarrizketak burutzeko gidoi bat erabili da (begiratu 1 Eranskina), nahiz eta eragile bakoitza elkarrizketatzerako orduan hainbat aldaketa burutu diren galderen egokitasuna bermatzeko asmoz. Ondoren, elkarrizketatik ateratako informazio hori helburuak betetzera bideratutako informazioa sailkatu, antolatu eta elkarrizketen analisi bat burutu da (8. Atala). Analisi hori, Gipuzkoan ingurumen kalte eta delituei aurre egiteko topatu ditzakegun zailtasunak identifikatzen saiatu da, ondoren, zailtasun horiek gainditzeko asmoz proposamenak burutu ahal izateko eta etorkizunerako ikerketa bideak eskaintzeko asmoarekin.

Lan honen garrantzi sozialari dagokionez, hasieran aipatutakoaz gain, muturreko ikuspegi bat aintzat hartu, ingurumenaren babesa gizakiaren biziraupenerako behar bat bihurtzen ari da. Beraz, gai honen inguruan hitzegitea garrantzitsua iruditzen zait maila akademikoan sentsibilizazioa sortzeko eta beste diziplinetatik ere, ingurumen zientziez aparte, lanak burutzea sustatzeko.

Gainera, askotan fokua gizabanakoan jartzen da, gure jokaera indibidualak aldatzearen garrantzia azpimarratuz, eta ez diot garrantzirik kendu nahi, baina, argi dago sistema eta gobernuaren aldetik aldaketak ere beharrezkoak direla, batez ere, industria, enpresa eta jarduera ekonomikoen erregulazioari dagokionez, hauek bere jarduerak burutzerakoan benetako iraunkortasuna gauzatu dezaten, kontuan izanik ingurumenean kalte gehien sortzen dituzten eragileak direla eta aldaketak burutzeko botere gehien daukatenak ere.

Horretaz gain, ingurumen kalteen eta kalte sozialen arteko korrelazioa ere azpimarratzekoa da. Izan ere, kutsadura gehien sortzen duten herrialdeek, kutsadura horren efektuak gutxien jasango dituztenak dira, eta alderantziz, kutsadura horren

efektuak gutxien eragiten duten herrialdeek jasaten dute. Hau da, ingurumen kalteek desberdintasun sozialak areagotzen dituzte, bai eta gatazka sozialak ere.

## **2. KRIMINOLOGIA BERDEA**

Kriminologiaren “ikuspegi berdea” ingurumenari eragindako kalteek gizakiengan sortutako arduraren ondorioz sortzen da. Hitz gutxitan, kriminologiaren ikuspuntu edo azpiatal honek ingurumen kaltea delitu gisa (zentzu zabalean) aitortzen du (Hall, 2014), eta horrenbestez, ingurumen kalteak ulertu eta honi aurre egiteko moduak, besteak beste, legedi eta erregulazioak, eta prebentzio estrategiak aztergai ditu (Potter, 2017).

Ikuspegi honek barne hartu ohi ditu ingurumenarekin harremana duten arazoak, justizia sozialak, kontzientzia ekologikoa, mundu-mailako kapitalismoak duen izaera suntsigarria, nazio-estatuak eta hauek osatzen duten mundu-mailako erakundearen rola, diskriminazioa, desberdintasunak, hauek klase, genero arraza eta animaliekin harremana daukaten heinean (White, 2013a).

### **a. KRIMINOLOGIA BERDEAREN AURREKARIAK ETA HASTAPENAK**

Historikoki gizarte zientziek gizartea ulertzeko ahaleginetan, gizakiaren bizitza mundu naturaletik bananduta egongo bailitzan aztertu du; baina, azpimarratzekoa da gizakiak ingurumena kaltetzen duten heinean, gizakiak berak ere pairatzen edo pairatuko dituela kalte horiek, izan ere, gizakiaren biziraunkortasuna naturaren menpekoea baita (Potter, 2017). Horrenbestez, gizartea ingurumenetik banatuta egongo balitz bezala aztertzea ez litzateke guztiz egokia izango.

Bestalde, ingurumen kalteenganako ardura antzinatek egon da presente gizartean, kriminologiak honenganako atenzioa bideratu izana berriz nahiko berria da. “Kriminologia berdea”-ren kontzeptua sortu aurretik ikerketa kriminologikoak egin dira ingurumen kalte, delitu eta ingurumen biktimizazioa aztertu dituztenak (Rodríguez & South, 2017). Hain zuzen ere, 80-90 hamarkadetan zientzia naturalenganako interesa eta ingurumen aktibismoa areagotu zirenean, kriminologiaren barne ingurumenarenganako interesa piztea saihestezina izan zen (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2018).

Geroz eta aitorpen eta kontzientzia handiagoa dago gizartean ingurumenean sortzen ari garen narriaduren eta honekin harremana duten gainerako arazoen inguruan, horregatik Kriminologia azken hogeitaz urteetan izandako garapenak interes berriak sortu ditu

diziplinaren barne, hala kontzeptu eta azterketa-teknika berriak sortuz, gainera honek kalte sozial eta erregulazioekin duten harremana ere kontuan hartuz (White, 2013a).

Kriminologiaren beste zenbait adarrek ingurumenaren inguruan egindako ikerketa edo proposamenak izan ditu gida gisa eta ondoren, kriminologia berdeak bere proposamen propioak egin ditu. Adibidez, kriminologia marxista edo kritikoak boteretsuen delituak eta berdintasuna bermatzen ez duten delituak aztertzeak, eragina izan zuen errekurtsio naturalen gehiegizko ustiapen eta ingurumen injustizia ikertzen hasterako orduan (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017) .

Aurrekarien beste adibide bat, desbideratzearen soziologia da. Zehazki etiketatze eta estigmaren kontzeptuek, marjinatutako eta botere gutxiko kolektiboengan atentzioa jartzera gonbidatzen dute eta horrenbestez, indigenen tratamenduaren inguruan eta ingurumen injustizien inguruan gogoetak sortzen ditu (Rodríguez & South, 2017)

Kriminologia feministak ere eragin sakona izan du ingurumen kriminologia garatzerako orduan. Hauek emakumeen biktimizazioa, jasadako marjinazioa, bai delitugile, biktima zein protestari gisa ikertzerako orduan, eta gizonezkoen rola emakumeen eta bizitza zibilizatuaren bortxapenen arduradun gisa aztertu zuten. Ikerketa honek harremana dauka komertzializatua eta militarizatua dagoen ingurumen eta espezien esplotazioaren ikerkuntzarekin (Rodríguez & South, 2017).

Azkenik, kriminologia bakegilea ere aipatzekoa da, ikuspegi honek kriminologiarentzat errespetuak, gatazketan mediazioa erabiltzeak eta adiskidetzeak duen indarra frogatu zuen. Honek planeta errespetuz eta modu desberdin batetan tratatu beharreko filosofia islatzen du kriminologiarentzat (Rodríguez & South, 2017).

Aipagarria da ere, 1976ko Ingurumen Zuzenbide Sozietate Frantsesaren (*“French Society for Environmental Law”*) lehenengo konferentzia, lehenengo aldiz aintzat hartu baitzen ingurumen kalte batzuk delitu gisa aitortzearen ideia (Rodríguez & South, 2017).

Espainian interesgarria da aipatzea Rodriguez-en (1981) lana. Bertan, Espainiako sistema legalak ingurumena babesteko jokatzeko duen papera aztertu zuen. 1978ko Espainiar konstituzioak legeen berrikuntzarako aukera zabaldu zuen eta lan honetan aipatzen da garai hartan ez zegoela ingurumena zuzenean babesten zuen mekanismorik zigor zuzenbidean. Legearen ikuspegitik ingurumena eskubide baten bitartez babestuta zegoen, non gizakiak ingurumenaz gozatzeko gai izan behar duen eta horrenbestez gizakiei

betebehar bat ezartzen zaien, hau da, besteen eskubide hori ez oztopatzeko beharra. Autore honek, ikuspegi legala errefusatu zuen, portaeren kriminalizazio hutsak zuzenean eta modu eraginkorrean ingurumena babesten duelaren ideia baztertuz, gainera legearen ikuspegia tresna antropozentrista (ikusitako beherago) gisa kalifikatu zuen. Bere ikerketa honetan ingurumen delitugileak honela sailkatzen ditu: 1) ez-jakintasunagatik delituak burutzen dituztenak; 2) zeharkako delitugileak, hau da, kaltegarria den beste portaera baten ondorioz, sortzen diren aurreikusitako gabeko ingurumen kalteen eragileak; 3) Delitugile finantzario edo industrialak. Bere ustez, ekonomia eta ekologiaren arteko tentsioa zen ingurumen narriaduraren eragile nagusia eta horregatik, delitugile finantzario edo industrialetan egin beharko ziren esku-hartzeak nagusiki (Rodríguez & South, 2017).

Nahiz eta aurrekari hauek oinarri izan, “Kriminologia berdea” kontzeptua beranduago erabiltzen hasi zen, honen aitazindari Lynch dela esan daiteke, bere 1990eko lanean argitaratu baitzen lehenengo aldiz kontzeptu honen erabilera (Rodríguez & South, 2017) (White, 2013a).

Lynch-ek (1990) kriminologia berdea hiru zutabetan oinarrituta dagoela aldarrikatzen du. Lehenengo zutabea **ekofeminismoa** da, ingurumen narriaduraren eraginak emakumeei gizonekin konparatuz era larriagoan eragiten diela defendatzen du. Bestalde, **oinordetza kolonialaren kritikak** ingurumen diskriminazioan islaturik, gizakien artean ingurumen kalteen inpaktuen distribuzio desorekatu bat dagoela adierazten du. Azkenik, **sozialismo ekologikoak** kapitalismoak planeta eta izaki bizidunen bizitza arriskuan jartzen duela eta gainera delituaren definizioa modu diskriminatorio batean baldintzatzen duela aldarrikatzen du (Hall & Varona, 2018).

## **b. BEHARREZKO KONTZEPTUAK**

### ➤ **Ekologia**

Ekologia biologiaren adar bat da ekosistemak ikertzen dituenak, hau da, gizakiak eta gizakiak ez diren ingurune naturaleko elkarrekintza konplexuari erreferentzia egiten dio, osagarri biotiko (landare, animalia, onddo eta bakteriak) eta ez-biotikoak (airea, ura eta lurra) barne hartuz (White, 2013a).

Bestalde, ekologismoa ingurune naturalaren babesaz ardura daukan mugimendu sozio-politiko bat da eta ekologiari informazioa berreskuratzen du, besteak beste. Beharrezkoa da azpimarratzea ekologia eta ekologismoa kontzeptu desberdinak direla nahiz eta, fonetikoki eta aztergai diren arazoengatik, antzekotasunak izanda hainbat testuingurutan

sinonimo gisa erabiltzen diren. Horregatik, ekologiak ahalegin handiak egin behar izan ditu etiketa politiko hori desagerrarazteko eta gainerako zientziek duten onarpen soziala bereganatzeko (Nuche & Valladares, 2019).

Ekologia eta ekologismoaren arteko harremana ulertzen errazteko hurrengo adibidea egokia izan daiteke: ekologiak testuinguru ekologista batean (galtzeko zorian dauden animaliak babestea) lagungarriak izan daitezkeen galderei (zeintzuk dira animalia hauek honelako arriskuan jartzen dituzten egoerak: kutsadura, habitat-aren suntsiketa...?) erantzuten saiatzen da (Nuche & Valladares, 2019).

Bi zientzia hauek daukaten harremana hertsiarengatik, garrantzitsua da ekologiak zientzia gisa aitorten bat jasotzea, ekologismoak zientzia honetan oinarritzen dituen proposamenak ere aintzat har daitezen gizartean; ekonomia, teknologia edo matematiketan oinarritutako berrikuntzak enpresetan duten onarpenak bezala (Nuche & Valladares, 2019).

#### ➤ **Ingurumen kaltea eta ingurumen delitua**

Ingurumen kaltea eta ingurumen delitua definitzerakoan ez dago adostasun orokor bat.

Hasteko, Pierre Foy Valencia-k (1992), ingurumen delitua honela definitu zuen: muga moralak gainditzen dituen portaerak era negatiboan ingurumenari eragiten diotenak, gaur egungo zein hurrengo belaunaldien bizi kalitatea kaltetuz (Rodríguez & South, 2017).

Bestalde, kriminalitatea definitzerako garaian ikuspegi legalista hertsia batek zigor kodea oinarritzat hartu ohi du. Ikuspegi honi jarraiki, ingurumen delitu bat ingurumenean kalte bat sortzen duen eta zilegia ez den egite edo ez-egite bat izango litzateke hau ikertzeko eta zigor bat ezartzeko betebeharra sortuz (White, 2013a).

Hala ere, ikuspegi hertsia horrek eskaintzen digun definizioa soilik aintzat hartu ezker ezkutatuta geratzen dira, zilegi eta legalak diren ingurumen kalteak, hala eta guztiz ere, era negatibo batean gizakiak, ingurumena eta animaliak kaltetzen dituenak (White, 2013d). Horrenbestez, kriminologiaren diziplina orokorrean gertatzen den bezala “ingurumen kalte”aren kontzeptua proposatzen da, kalte zilegi hauek argitara atera daitezken. Portaera hauen adibide izan daitezke, tretza edo hainbat sare-bidezko arrantza, zianuro eta artsenikoa lurlean injektatzea mineral eta metal baliotsuak lortzeko, edota natura suntsitzea errepideak eraikitzeko (White, 2013a).

Ingurumen kalteak hiru ezaugarri ditu (Hall & Varona, 2018):

1. Biktima posibleak bere osotasunean identifikatzen dituela, hau da, gizaki zein gizakia ez den beste izaki bizidunak.
2. Izaera globala edo erregionala dute, horregatik garrantzitsua da fenomenoak eragiten dituen kalteen izaera indibiduala eta kolektiboa aztertzea.
3. Ingurumen kaltearen inpaktuak izan ditzakeen ondorioak epe motz, ertain edo luzerakoak izan daitezke.

Argi ikus daiteke, desadostasun garrantzitsua dagoela ingurumen kaltea zer den definitzerako orduan, ofizialki lege kriminal eta zibila kontuan hartuz edo ikuspegi ekologiko bat aintzat hartu ezker (White, 2013a). Azkenean, jarduera bat “kalte” edo krimen gisa kalifikatzeko irizpideak, jarduera hauek aztertzen dituzten ikerlarien balore, ezagutza eta irizpideen arabekoak izango dira (White, 2013f).

#### ➤ **Ingurumen zuzenbidea**

Ingurumenaren babesa, sustapena eta garapena baimentzen duen eredu iraunkor bat indarrean jartzea gaur egungo gizartearen ardura nagusietako bat da, eta horrenbestez hau lortzea erraztuko duen zuzenbide bat edukitzea ere. Zuzenbideak gizakiaren ardurak islatu ohi ditu eta horregatik ingurumen zuzenbidearen garapena baimendu du ardura honek (Jordano, 2003).

Beraz, ingurumen zuzenbidea sakabanatutako lege eta arauen multzo bat da, zuzenean edo zeharka helburu amankomun bat dutenak: ingurumenaren defentsa, errestaurazioa eta sustapena. Lege eta arauen multzo honi ingurumen zuzenbidea deitu ohi zaio. Beste modu batera esanda, ingurumen zuzenbidea ingurumenari buruzko eta hau babesteko sortutako zuzenbidea da (Jordano, 2003).

Zuzenbide honen barne modu errazenean identifikatu daitezkeen printzipioak hauek dira: aurrezaintza printzipioa, “polluter pays” (*kutsatzen duenak ordaintzen du*) eta ingurumenean sortutako inpaktuen ebaluazioen egikaritzea. Baita, ondorioztatu liteke, osasun publikoaren babesa eta sistema ekologikoen osotasuna bermatzea ingurumen zuzenbidearen funtsezko helburuak direla (Yang & Percival, 2009).

Hala ere, garapen bidean dagoen zuzenbide bat dela esan daiteke eta horrenbestez honen eremua zehazki definitzea zaila da (Yang & Percival, 2009).

Espainiaren kasuan ingurumen zuzenbideari dagokionez, pertsonen garapen egoki bat izan dezaten ingurumen egoki baterako eskubidea ezartzen da Espainiar Konstituzioaren 45. artikuluan (Jordano, 2003; de Luis, 2018).

Hainbat herrialdek sakabanatutako lege hauen harmonizazio bat egiten saiatu dira, honen adibide dira, Alemaniako 1997ko Ingurumen Kode bat sortzeko proiektua (Jordano, 2003)

Zuzenbide honen ezaugarri esanguratsu bat duen izaera globala da, izan ere, arazo lokal, nazional eta erregionalak harreman handia daukate mundu-mailan suertatzen diren gaitzekin. Izaera global honek arrazoi batzuk ditu oinarri: globalizazioa, nazioarteko ingurumen legeen hazkundea, hainbat nazioetako ekonomiaren garapena, legeen erreformak eta oinarrizko behar ekologiko eta osasun publikoko beharrak. Ingurumen zuzenbide globala beraz, erregulazio sistema nazional, internazional eta transnazionalen multzoa da (Yang & Percival, 2009).

Gaur egun indarrean dauden lege eta arauen artean dituzten funtzioen eta arautzen dituzten eremuen arabera hurrengoak desberdindu daitezke: ingurumenaren babesa bermatzen duten teknika juridikoak arautzen dituztenak (merkatuko tresna edo tresna ekonomikoak, tasak, zergak, eremu babestuak, entitateen ardurak...), ingurumenean egin daitezkeen esku-hartzeak eta ingurumena osatzen duten elementuak arautzen dituztenak (airea, ura, lurra, kostaldea, mendiak...), baita arau edo lege orokorrak. Gaur egungo hainbat Zigor Kodek delitu ekologikoak edo ingurumen delituak deritzonak barneratu dituzte (Jordano, 2003).

Ondorioz, zentzu honetan ingurumen zuzenbidea ingurumenaren erabilpenak sortzen dituen gatazkak mugatu eta hauei buruzko erabaki juridikoen multzoa izan daiteke. Ingurumen kalitatearen inguruko arauak ezarriko lukete muga zilegia eta debekatuta dauden ekintzen artean (Jordano, 2003).

### ➤ **Ingurumen justizia**

Ingurumen justizia sortzen da hainbat faktore sozioekonomikoren arabera ingurumen ondasunak edo kalitatezko ingurumen bat edukitzeko aukera edo eskuragarritasun maila pertsona guztientzako berdina izan ez zitekeelaz ohartzerakoan (Rodríguez & South, 2017). Izan ere hainbat ikerketek, ingurumen arazo desberdinak aztertu dituztenak, adierazten dute koloreko pertsonen, minoria etnikoek eta pertsona indigenek bereziki jasaten dituztela ingurumen kalteak, adibidez, Kanada, Australia eta AEBtan. Pairatzen

dituzten kalteen artean hurrengoak izan daitezke: airearen muturreko kutsadura, istripu kimikoak eta abar (White, 2013a).

Kontzeptu honek ingurumenari eragin diezaioketen erabakietan pertsonen eta komunitateen parte hartzearen garrantzia azpimarratzen du. Belaunaldien arteko justiziarekin ere erlazionatzen da, izan ere, ingurumen kalteen eraginak jasango dituzten pertsonak oraindik ez jaio izana posible da eta egungo belaunaldiei ardura bat ezartzen zaie hurrengoekiko (Hall & Varona, 2018).

White (2013a)-en arabera aurreko ikuspegi hori gizakiaren dimentsiora bakarrik mugatzen da eta haren ustez ingurumen delituek oraindik eremu zabalagoa arakutzen dute. Horrenbestez, **justizia ekologikoaren** kontzeptua egokiagoa dela deritzo, hau da, gizakiak eta gizakiak ez diren animaliak barne hartuz, ingurumen eskubideak eskubide sozialen dimentsio bat izanik.

Ikus daitekeen bezala ingurumen justizia ere ikuspegi desberdinetatik aztertu daiteke, hain zuzen ere, hiru ikuspegi hartzen dira nagusitzat, biktimak zein edo zer diren kontuan hartzen denaren arabera: **ingurunearen eskubideak eta ingurumen justizia** (1) edo **herritartasun ekologikoak eta justizia ekologikoa** (2) eta **animalien eskubideak eta espezien justizia** (3).

Ikuspegi hauek kriminologiaren ikuspegiak azaltzen diren atalean deskribatuko dira modu sakonagoan.

Kontzeptu hauen azalpena eman ondoren kriminologia berdearen deskribapena sakonki burutzera joko da.

### c. DELITUEN TIPOLOGIAK

Kriminologia berdean aztergai diren delituen tipologia bat sortu nahian klasifikazio mota desberdinak egin dira. Hasteko White-k (2013c) ingurumen kalteak hiru dimentsiotan banatzen ditu:

- **Marroia:** dimentsio honek arazo “zikinak” barne hartzen ditu, esate baterako, aire edo ur kutsadura, , hondakin arriskutsuen deuseztapena, petrolio isurketak, pestiziden erabilera etab.
- **Berdea:** euri azidoa, habitaten suntsiketa, basoen ustiapena, animalien galera, atmosferako ozono kaparen galera eta abar, barneratzen ditu.



- **Zuria:** genetikoki eraldatutako organismoak, klonajeak, ingurumenarekin harremana duten gaixotasun kutsakorak, animaliekin esperimentuak egitea eta antzeko “laborategi” jarduerak barne hartzen ditu.

Haintzat hartzekoa da ere, Carrabine, Cox, Lee, Plummer eta South-ek (2009) (Potter, 2017) delitu berdeen egindako sailkapena:

**Lehen mailako delituak,** ingurumenari edo espeziei eragindako kalte zuzenak edo suntsiketak biltzen dituen kategoria da.

**Bigarren mailako delituak:** kontuan hartzen dituen kalteak gobernu-jarduerak edota jarduera korporatiboak eragindakoak dira, ez-zilegi edo zuhurtziagabekeri gisa identifikatu daitezkeenak. Halaber, erakunde hauek ingurunearekiko kaltegarriak izan daitezkeen burutzen dituzten jarduerak modu egokian kudeatzeko eurek ezarritako barne-arauak urratzen dituzten ekintzak ere barne hartzen ditu.

Gainera, **hirugarren mailako** kategoria bat gehitzen du: ingurumen kalteen ondorioz piztutako erreakzio gisa burutzen diren delituak. Erreakzio hauen pizkundea areagotu dezakete ingurumen biktimizazioaren esperientziak. Adibidez, ingurumen kalte hauen injustizia aldarrikatzeko egiten diren protestetan ondarearen aurkako delitu edota pertsonen aurkako indarra erabiltzea gerta daiteke (Potter, 2017).

#### **d. ZEIN PORTAERA BARNE HARTZEN DITU?**

Orain arte, kriminologia berdean nabarmenki gehien aztertu diren gaiak eta portaerak hurrengoak izan dira:

- **Aldaketa klimatikoa:** fenomeno honen eragile nagusia energiaren kontsumoa da, noski kontsumo hau ez da berdina herrialde guztietan, hain zuzen ere, kontsumo aberatseko herrialdeek eragiten dute proportzionalki gehien aldaketan, ordea, etorkizunean honen ondorioak gehien jasango dituzten herrialdeak jada ekonomikoki pobreak direnak izango dira. Desoreka hau nazioarteko zein nazio barnekoa izango da (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017; Pajares, 2020), hau da, ingurumen injustizia bat bihurtuko da. Beraz, ondorioztatu daiteke aldaketa klimatikoak injustizia soziala areagotzen duela, beste garrantzizko arazoi bat arazo hau kontuan har dadin (Pajares, 2020).

Zenbait kriminologok aldaketa klimatikoak hainbat faktore kriminogeno eragingo dituela ere adierazten dute. Gainera, Kramer-ek (2013) aldaketa klimatikoaren

gertaera ukatzea eta gaiaren inguruko erregulazio falta Estatu delitu edo delitu korporatibo gisa kalifikatzen ditu (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017).

Horretaz gain, ikerketa baten arabera aldaketa klimatikoa mundu mailako arazo nagusienetarikoa gisa jotzen da gizartean ere, hain zuzen ere, inkestan parte hartu zuten 26 herrialdeetatik 13k (Pew Research Center, 2019).

Arazo nagusitzat jotzen duten pertsonen artean honako ezaugarriak topa daitezke: ideologia ezkertiarra duten pertsonak aldaketa klimatikoarekiko ardura gehiago adierazten dute. Baita, hezkuntza maila altuagoa duten pertsonak arazo bezala ikusteko tendentzia altuagoa daukate. Gainera, emakumeek gizonek baino ardura gehiago adierazten dutela ere ondorioztatzen da bertan (Pew Research Center, 2019).

Gainera, aldaketa klimatikoaren eraginaren inguruko ardura eta garrantzia soziala handitzen doala ikus daiteke, batez ere, aldaketa klimatikoaren efektuak eta ondorio larri nabarmenak eta esanguratsuak pairatzen dituzten herrialdeetan, adibidez, Kenyan (Pew Research Center, 2019).

- **Elikagaiak eta nekazaritza:** elikagaiak kultibatu, produzitu eta saltzen diren moduaren arabera delitua edo ekintza kaltegarri desberdinak eragin edo erakarri ditzakete. Adibidez: elikagaien iruzurra, elikagaien ondoriozko intoxikazioa, elikagaiak etiketatzeke legeen urraperiak, merkatu ez-zilegiak eta elikagaiekin erlazio duen lan esplotazioa. Haintzat hartzekoak dira ere goseteak eta elikagaien urritasuna (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017)
- **Hondakinak:** hondakinek orokorrean ez dute garrantzizko atentziorik jasan gehiegizko bolumen bat edukitzea eta kantitate hau arriskutsua izatera iritsi arte. Hondakinak sortzen diren kalte ekologiko garrantzitsuenetarikoa dira, izan ere, hauek gas forman atmosferara ere igortzen ditugu, kutsadura atmosferiko gisa ere ezaguna da fenomeno hau. Gas hauetako batzuk osasunerako oso arriskutsuak izan daitezke, besteak beste, negutegi efektuko gasak, aldaketa klimatikoaren eragile nagusietarikoa bat (del Val, 2009). Industriek burutzen dituzten hondakinen isurketak ere aintzat hartzekoak dira bai lur zein uretan.

Aipatzekoa da ere, talde kriminal antolatuek duten parte hartzea hondakinen kudeaketan eta suntsiketean. Honen ondorioak korrupzioa eta kutsadura izan ohi

dira. Autore batzuk zerbitzu ilegal hauek “lepo zikineko delitu” gisa izendatu dituzte eta honen jatorria legeen aplikazio eta exekuzio arduragabeen ezartzen dute (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017).

- **Animalienganako tratu txarrak:** gizakiak animaliak gutxietsi izan ohi ditu eta honen ondorioz, tratu apalesgarriak jasaten dituzte, animaliak ardura edo justizia xumeagoa merezi dutelakoaren pertzepzioa sortuz. Egoera honetaz ohartzera koan atentzio gehiago eman zaio animaliei kalte eragiten dioten jardueri eta hauek delitu kontsideratzera heldu da. Jarduera aztertuenak arauak errespetatzen ez dituen ehiza, arrantza eta animalien trafiko eta merkatu ilegala dira (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017).
- **Ingurumen justizia eta biktimizazioa:** Ingurumen justiziaren helburua pertsonen bizitza kalitatea eta beharrak asebetetzea da, kolektibo ezberdinen berdintasuna bermatuz edo areagotuz eta errekurtso iraunkorrak erabiliz. Ingurumen justizia, justizia sozialetik banaezina da, hau da, interdependenteak dira. Baieztapen honetatik eratorritzen da, ingurumen delitu baten biktima izateko zaugarritasuna ez dela berdina gizarte kolektibo guztientzat, gehiago zehaztuz, faktore sozial okerragoak dituzten pertsonak (pobrezia, arrazakeria, langabezia eta abar jasaten dute pertsonak) zaugarriagoak dira horrelako delitu baten biktima izateko (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017). Honen ideia islatzeko hasieran aipatutako errepikatzea zentzuduna da, aldaketa klimatikoari dagokionez kontsumo aberatseko herrialdeek eragiten dute proportzionalki gehien aldaketan, ordea, etorkizunean honen ondorioak gehien jasango dituzten herrialdeak jada ekonomikoki pobreak direnak izango dira.
- **Ekozidioa:** azkenik kontzeptu hau ere aipagarria dela esan daiteke, delitu tipo berri bat sortzearen proposamenarekin bat baitator. Ekozidioaren kontzeptua Arthur Galston biologoak erabili zuen lehenengo aldiz 1970ean Vietnameko gerrari buruz hitzegiterakoan (Hall & Varona, 2018). Stop Ecocide GKEak kontzeptu hau deskribatzerakoan egiten duen proposamena hurrengoa da: ekosistemen kalte masibo edo suntsiketa, hau da, naturaren kalte hedatu, larria edota sistematikoa. Adin honetako kalteak eragiten dituzten portaerak hauek izan daitezke: arrantza industrialak, petrolio isurketak, palmako olioak edota zura produzitzeko burutzen diren baso soiltzeak eta abar (Stop Ecocide, n.d.) .

Hala ere, aipatzekoa da , gaur egun oraindik ez dela zehaztu Kriminologia berdearen definizioaren barne zein fenomeno edo gertakari barne hartu ditzakeen ala ez (Rodríguez & South, 2017). Honek aldi berean bat egin dezake kriminologia orokorraren barne suertatzen den eztabaidarekin: zer da delitua? zigor kodean tipifikatuta dauden delituak soilik hala kalte sozial gisa identifikatu daitezkeen gertakariak? (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2018).

#### e. KRIMINOLOGIA BERDEAREN IKUSPEGIAK

Kriminologia berdearen ikuspegiak ingurumenari eragindako kalteak eta delituak (zentzu zabalean) aztertzen ditu eta kriminologiaren ikuspegitik gertakari hauek ulertzeko eta haiei aurre egiteko eta aurrezaintzarako ekarpen aproposak egin ditzakeela iradokitzen du (Potter, 2017). Horretaz gain, ingurumena babesteko lege eta arauak ere aztertzen ditu (Hall & Varona, 2018).

Hala ere, aurretik esan bezala, kriminologia berdea zientzia zehaztugabea da oraindik, beraz, ez dago teoria bakar uniforme bat kriminologia berdea osatzen duena, non zehazki aipatzen den zer bai eta zer ez den kriminologia berdea (Rodríguez & South, 2017).

Gizarte eta naturaren arteko harremanak ulertzerako orduan hainbat filosofia hartu daitezke kontuan eta horrenbestez kriminologia berdeak ere bere ikerketaren gida gisa ere aintzat hartzen ditu (White, 2013a):

- **Antropozentrista:** ikuspegi honek gizakiaren nagusitasun biologiko, moral eta mentala goraiatzen du gainerako izaki bizidun eta ez-bizidunen gainetik. Beraz, naturako errekursoak tresna gisa ikusten ditu gizakiaren interesak asetzeko.
- **Biozentrismak** ordea gizakia beste edozein espezie gisa ikusten du eta gainerako espezieen balio berdina duela defendatzen du. Horrenbestez, naturaren kontserbazioari ematen dio lehentasuna, gizakiok ahalik eta inpaktu gutxien edo inpakturik ez izatea gainerako ekosistemengan galdatuz.
- **Ekozentrista:** perspektiba honek ez du gizakia gainerako organismoekin konparatuz ez gorago ez beherago ezartzen, baina, gizakion ardura goraiatzen du, produkzio sistema eta metodoak garatzeko gaitasuna duen izaki bakarria izanik mundu mailan ondorioak eraginez. Hortaz, gizakiak bizirauteko behar dituen errekursoen erabilpenaren eta errekurso hauek kontserbatzeko eta gainerako

izakien biziraupena bermatzen duten lege eta arauen arteko oreka bilatzen saiatzen da.

Azken bi filosofia hauen adierazle dira herrialdeetako konstituzioetan ingurumenaz disfrutatzeko eskubidea aitortu izana. Hau egiten lehenengo herrialdea Ekuador izan zen 2008. urtean, bertan naturaren errestituziorako eskubidea barne hartuz (Hall & Varona, 2018). 2015 urtean munduko 150 konstituzioetan aitortua zegoen eskubide hau, hau da, munduko konstituzioen hiru laurden baino gehiagotan (de Luis, 2018).

Nire pentsatzeko era pertsonala biozentrismo eta ekozentrismotik hurbilago egotea baliteke eta horrenbestez norabide hau jarraituko du nagusiki lan honek. Hala ere, baliteke ikuspegi antropozentriko baten zantzuak ere agertzea, izan ere, lan honen helburuetako bat ingurumen kalteen inguruan sentibilizazio bat sustatzea ere bada. Badirudi gizakioi kalte bat sortzen ez den arte, gainerakoa kaltetzea ez zaigula axola. Horregatik, aldaketa klimatikoaren eta kutsaduraren arazoekiko sentibilizazioa sortzeko helburuarekin gizakiarengan eragiten diren kalteak ere azpimarratuko ditut lanean zehar.

Ildo berean beste autore batzuek kriminologia hiru ikuspuntu desberdinetan sailkatzen dute eta horrenbestez, kriminologia berdea ere bai (Hall & Varona, 2018):

- **Ikuspegi legala:** ingurumen delitua osasuna, pertsonen segurtasuna eta ingurumena babesteko ezarritako legeak urratzen dituzten portaera gisa ulertzen ditu.
- **Ikuspegi juridiko-soziala:** delitua desbideratze, kalte zibil eta arau hauste administratiboen arteko desberdintasunak eraikuntza sozialak direla aitortzen du.
- **Ikuspegi biozentrista edo “deep green” (*sakonki berdea*):** sistema biotikoen narriadura eragiten duen gizakiaren edozein ekintza ingurumen delitu gisa identifikatzen du.

Lan honen norabideak ez du ikuspegi legal bat jarraituko, izan ere, tipifikatuta edo administratiboki santzionatuta dauden portaerak bakarrik kontuan izan ezker, ez da tokirik sortzen portaera edo kalte berrien tipifikazioa eztabaidatzeko. Beraz, lan honen ardatz bat bai lege eta araudiak izango direla, baina, honekin batera objektiboki beste diziplina batzuek neurtutako kalteak eta hauek jasotako datuak ere hartuko dira kontuan.

Hasieran aipatu bezala hiru ikuspegi nagusi daude autoreek ingurumen arazo edo gatazkak bai eta kalteak eta hauei aurre egiteko konponbideak irudikatzen dituzten moduaren arabera (White, 2013a):

- 1. Ingurumen eskubideak eta ingurumen justizia:** Ingurumen eskubideak giza-eskubide edo eskubide sozialen luzapen gisa identifikatzen dute, giza-bizitzaren kalitatea hobetu nahian. Belaunaldien arteko ardura bat ezartzen dute eta gaur egungo pertsonen arteko berdintasuna kalitatezko ingurune bat izateko bermatu nahi dute, bai arraza, genero, adina eta etnia desberdinen artean. Izan ere, ikerketek adierazten dute pertsona batzuek beste batzuk baino probabilitate gehiago dituztela ingurumen kalteak pairatzeko aipatutako ezaugarrien arabera. Beraz **biktimizazio diferentzial** bat sortzen da. Biktimizazio diferentzialak harremana izan ohi du kalte hauek jasaten dituzten pertsonen pertzepzio subjektibo eta kontzientziarekin, adibidez, ingurumen kalteen inguruko ez-jakintasuna edota hauek azaltzeko alternatibak edukitzea (jaungoikoaren eginkizunak etab.).
- 2. Herritartasun ekologikoa eta justizia ekologikoa:** herritartasun ekologikoak gizakia ekosistema konplexu baten parte dela aitortzen du, gizakien onurarako ekosistema hau zaintzeko beharra adierazten dute eta babes hau ingurumenak propio dituen eskubideen bitartez gauzatzen da. Kalte hauen izaera globala eta maila txikiagokoen arteko kalteen harremana aitortzen du. Justizia ekologikoak biosferaren kalitate eta gizakiak ez diren espezien eskubideak aldarrikatzen ditu. Beraz, kriminalitatea produkzioa kontrolatzen duten jarduerekin eta honek ingurumenean egiten duen ustiapenarekin harremana dauka. Kontrol hau egikaritzen dutenak korporazio handiak eta klase altuko eragileak izan ohi dira.
- 3. Animalien eskubideak eta espezien justizia:** Gizakiak ez diren animaliak eskubideak dituzte, batik bat, errespetuzko tratu bat jasotzeko eta hauek modu arduratsuan zainduak izateko, gizakiari ardura etiko bat ezarriz. Espezismo kontzeptu erabili ohi da gizakiak ez diren animalienenganako burutzen den diskriminazioa aipatzeko. Diskriminazio hau animaliak gizakiekin konparatuz gutxiesten direnean gauzatzen da, sexismo eta arrazakerian emakume eta kolore desberdineko pertsonenganako aurreiritzi eta diskriminazioak gauzatzen diren bezala.

Filosofia ezberdinak izateaz gain, diziplina honek beste zenbait eremu akademikoetan jasotako datu eta ebidentziak ere aintzat hartzen ditu, baita ingurumenak jasaten dituen erronkak ulertzen laguntzen duten gomendioak eta horretarako burutzen diren ekintzak. Horrela, ingurumen justizia lortzeko asmoz, ingurumen legedia eta politikak hobetzeko ahaleginak egiten ditu (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2018).

### **Zer da ekokriminologia?**

Gainera interdiziplinaritate honek *ekokriminologia* bat garatzea baimentzen du, hau da, ekologikoki informatuta dagoen gizarte zientzia bat (Potter, 2017).

Horrenbestez, ekokriminologia natur zientzia eta gizarte zientzietan oinarritzen da. Izan ere, natur zientziek giza jarduerak mundu naturalean izan dezaketen eragina, zein jarduera izan daitezkeen kaltegarriak eta hauen zergatiak ulertzen lagundu dezakete (Potter, 2017) eta horrela jardueren kriminalizazioa beharrezkoa den edo ez informatu dezakete.

Gainera, ekopsikologia eta ekosoziozian oinarritutako ekokriminologia batek, ikerketa eremua zabaldu egiten du honelako gaiak ere kontuan hartuz: delituaren kontrolak ingurumenean duen eragina edota delituak burutu dituzten pertsonen inguru-naturalarekin bizikidetzak bat izanez gero, honek izan dezakeen eragina delitugileen birgaikuntza prozesuetan (Potter, 2017).

### **f. KRIMINOLOGIA BERDEAREN ZEREGINAK**

Orain arte aipatutako guztia kontuan hartu ezkerok kriminologia berdearen zereginak definitzea posible izango litzateke. Hiru **helburu** nagusi identifikatu daitezke: ingurumen kalteen fenomenoak ulertzea eta ikertzea, jarduera hauen erregulazio mekanismoak eta kontrol soziala ikertzea eta azkenik, ingurumenean sortzen diren aldaketan eta kriminalizazio prozesuen arteko harremana ikertzea (White, 2013a).

Helburu bakoitza eginkizun desberdinak barne hartzen ditu. Ingurumen kalteen fenomenoak ulertzea eta ikertzea hurrengo ekintzak barne hartu ditzake (White, 2013a):

- Ingurumenaren definizio eta mota desberdinak identifikatzea eta hauen inguruan interpretazio eta analisiak egitea.
- Delitu mota desberdinak identifikatzea eta ingurumen delituen tipologia operatibo bat garatzea.

- Ingurumen delitu bat zer den eztabaidatzea ikuspegi desberdinak kontuan hartuz, legala, kalte soziala, ekologikoa, eskubideak eta interes publikoa.

Ingurumen kalteak eragiten dituzten jardueren erregulazio mekanismoak eta kontrol soziala ikertzeko (White, 2013a):

- Ingurumen delituak kontrolatzeko indarrean dauden mekanismoak, legeak eta erregulazioak, identifikatu eta hauen inguruko erregistro operatibo bat garatu.
- Ingurumena babesteko eta mantentzeko eskuragarri dauden neurri proaktiboak, esaterako, aurrezaintza esku-hartzeak eta hezkuntza-programak ikertu.
- Indarrean dauden ikerketa-neurriak, epaiketa-prozesuak isunak eta santzioak aztertu.

Ingurumenean sortzen diren aldaketen eta kriminalizazio prozesuen arteko harremana ikertzeko (White, 2013a)

- Ingurumen delituen sorburua eta hauek zein baldintzatan burutzen diren aztertzea, esaterako, motibazioak, joerak, egituren gaitasunak hauek burutzeko eta estatuaren parte-hartzea.
- Ingurumen kalteak eragiten dituzten faktoreak aztertu.
- Ingurumen kalteak eragiten dituzten ondorio negatiboak aztertu.
- Aintzat hartzea ingurumen kalteen ondorioz sortzen diren gatazkekin harreman duten kriminalizazioak, adibidez, aktibisten jarduerak.

#### **g. KRITIKAK**

Kriminologia berdeari egin ohi zaion kritika orokorrean kriminologia ingurumen kaltea aztertzeko egokia ez dela da eta ideia hau garatzeko hainbat argudio erabiltzen dira (Potter, 2017).

Hasteko, ikuspegi legal hertsia bati jarraituz, legalki delitu bezala tipifikatuta ez dauden ingurumen kalteak zuzenean kriminologiaren eremutik kanpo daudela baieztatzen dute. Honi jarraiki beste argumentu bat da aztergaiak jada kriminologikoak izan ezker, ez dagoela beste kriminologia desberdin baten beharrik (Potter, 2017). Kriminologia kritikoa kontuan izanik, honek zein jarduera kriminalizatzen diren eta kriminalizazioaren zergatiaz arduratzen da, beraz, korrante honen arabera jarduera bat kriminalizatua egon



edo ez kalte sozial bat sortzen duen heinean, kriminologiaren aztergai izan daiteke, hain zuzen, tipifikazio bat beharrezkoa den ala ez aztertzeko lehenik eta ildo berean kriminalizazioak jarduera hauen aurrezaintzan duen eraginkortasuna ere legitimoki aztergai litzateke (Potter, 2017). Gainera, kriminologiaren eginkizun nagusietako bat ez da soilik ikuspegi legal batetik ingurumen delitu bat zer den definitzea, baizik eta ikuspegi sozial, ekologiko, interes publiko eta eskubideen ikuspegitik ere (White, 2013a).

Bestalde, nahiz eta argudio honek kriminologia berde baten ideia onartu, delituaren arazoaren inguruan egonkortuta dagoen ohizko kriminologia korrontearantzat interes gutxiko gaia dela adierazten dute beste batzuk (Potter, 2017). Hala ere, aurretik egindako deskribapen guztiak kontuan izanik, zentzuduna da ondorioztatzea ingurumen kalteek kalte sozialak eragiten dituztela aldi berean eta hori arrazoi nahiko da kriminologiaren intereseko gaia izan dadin.

Baita ardura bat zabaldua dago, kriminologia berdearen barne lan egiteko interesa duten pertsonak sinesmen ideologiko eta politiko pertsonalen eraginpean jarduten dutela adierazten duena. Beste era batera esanda, aurreiritzirik gabeko gizarte zientzia objektibo bat izateko galdakizunak betetzen ez dituela aldarrikatzen dute (Potter, 2017). Kriminologia berdearen autoreek sinesmen ideologiko eta politikoen eraginpean lan egiten dutela baieztatu ezker, baieztapen hau gainerako kriminologoetan ere islatu daiteke. Izan ere, portaera bat kriminalizatu edo kriminalizatu behar ez den eztabaidatzen denean ere sinesmen politikoak eta pertsonalak tartean egon daitezkeela ondorioztatu daiteke. Baina, kriminologia eta kriminologia berdea gizarte zientzia objektibo bat izateko eta oztopo hau saihesteko, portaera baten deskribapen eta tipifikazioan erabiltzen diren arrazoi eta justifikazioak hartu beharko dira aintzat. Justifikazio horiek ebidentzia empirikoetan oinarritu ezker ideologiaren sesgoa gainditu daiteke.

Gainera White-en (2013a) hitzetan, ingurumenarekin erlazionatutako mugimendu sozialak eta “berde” deritzogun partidu politikoen arteko elkarkidetzak eta lankidetasuna posiblea den heinean, kriminologia berdearen lana proiektu hauena baino haratago doa, talde hauetatik desberdintzen duten arazo eta ardura desberdinak izanez. Beste modu batetara esanda, ez da talde edo kolektibo “berde”-en dimentsio intelektuala, nahiz eta talde hauen politika eta praktika informatu ditzakeen, baina, ez dago elkarlotuta antolakunde politikoetara.

Kriminologia berdea kritikatu izan da ere ingurumen arazoak aztertze gaitasun nahikoa ez izateagatik, hau da, oinarri teoriko eta ezagutzen faltagatik (Potter, 2017). Baina, *ekokriminologia*-ren norabidea kontuan izanik, hau da, ekologikoki informatu dagoen gizarte zientzia gisa irudikatu ezker gabezi honi aurre egin diezaioke.

Egia da, kriminologoengan esfortzu gehigarri bat izan daitekeela ingurumen kalteen inguruan janztea, baina horretarako ere, interdiziplinaritatea daukagu eta lan-talde interdiziplinarrak osatu daitezke. Epaitegietan zuzenbidean adituak diren profesionalak bakarrik lan egiten ez duten bezala, talde psikosozialak eta beste gaietan adituak diren perituak hartzen dute parte. Era berean, kriminologia berde bat osatzeko diziplina ezberdinetatik informazioa bereganatuz *ekokriminologia* bat sortzeko aukera erreal bat existitzen da. Esaterako, zoologia, geografia, soziologia, zientzia politikoak eta filosofia uztartzea egokia izango litzateke. Izan ere, ingurumen kalteen artean zein kalte onargarria den eta zein ez erabakitzerako garaian ezagutza zientifiko eta baloreetan ondorioak oinarritzea erraztuko luke (White, 2013a).

Kritika hauek ezeztatuak izan dira bai inplizituki zein esplizituki. Egiazki, kritika hauen oinarria orokorrean adar honek egin ditzakeen ekarpenen estima falta bat da, bai kriminologiaren barnetik zein kanpotik (Potter, 2017).

### **3. MARKO JURIDIKO-NORMATIBOA ETA KONTROL MEKANISMOAK (OROKORREAN)**

Argi dago, ingurumen narriadura gizakiok pairatzen dugun arazo nagusietariko bat dela. Egungo garapen eredu okerrak (gainpopulazioa eta errekurtsoen banaketa desorekatua, bidezkoak ez diren merkatu-harremanak, politika eta politikari arduragabeak) azaleratu du herrialde guztien oreka naturala mantentzeko eta arauak errespetatzeko beharra, sistema naturalen osotasuna eta berriztatzea bermatu dadin (Jordano, 2003). Horregatik ezinbestekoa da ingurumena babesteko marko juridiko bat eta kontrol mekanismoak sortzea.

Hasieran aipatu dugun bezala, ingurumen zuzenbidea sakabanatutako lege eta arauen multzo bat da, horregatik aintzat hartzekoa da atal honetan aipatutako legeak ez direla ingurumena erregulatzen duten lege eta erregulazio guztiak, baizik eta nire aburuz lan hau garatzerako orduan garrantzitsuak direnak. Izan ere, oso zaila izango litzateke arau

guztiak osotasunean aipatu eta deskribatzera iristea, eta agian lanaren haria galtzea ere eragingo luke.

Sakabanatze honen arrazoiatariko bat da maila geografiko desberdinak kontuan hartu ezkererregulazio desberdinak daudela bai eta honen objektu diren gai desberdinak medio direla.

Hau esanda, orokorrean herrialde gehienetan kriminalizatzen diren portaera edo ingurumen kalteak hurrengoak dira (Hall & Varona, 2018):

1. Flora eta faunaren salerosketa edota bidegabeko jabetzea.
2. Kutsadurarekin harremana duten delituak.
3. Beraien ezaugarri erradioaktibo edo arriskutsuengatik debekatuta dauden substantzien garraio edo metaketa.

Orain, Espainiako marko juridikora hurbiltzeko lehenengo maila erregional desberdinetan dauden arauak aztertuko ditugu:

#### **a. MUNDU MAILA: NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (NBE)**

1972an NBEek Giza Ingurumenaren Deklarazioa egin zuen Estokolmon (Suedia), Lurraren Lehenengo Gailurra gisa ere ezaguna. Bertan, lehenengo aldiz aldaketa klimatikoaren arazoa aipatu zen, gobernuari aldaketa klimatikoa eragin zezaketen ekintzak kontuan hartu behar zituztela eta ekintza hauen arriskugarritasuna ebaluatu behar zutela adieraziz. Horretaz gain, Nazio Batuen Ingurumenarentzako Programaren Administrazio Kontseilua (PNUMA) eratu zen (Jackson, n.d.). Gainera, munduko herrialde askotan beraien konstituzioetan ingurumenerako eskubideak barneratzea eragin zuen. Belaunaldi desberdinen arteko elkar-ardura ere aitortuz (de Luis, 2018).

1979an PNUMAk Atmosferaren distantzia luzeko kutsadurarako Konbentzioa sortu zuen, klimari buruzko sortutako nazioarteko lehenengo tresna delarik eta 1985an Ozono Geruza Babesteko Konbentzioa ezarri zen Vienan. Hala ere, 1987an NBEren Batzar Orokorrak benetako sustapena eman zion ingurumeneko gaiei, ekintza nazional eta nazioarteko kooperazioa gidatzeko marko bat ezarri zuenean ingurumena errespetatzen duen garapena lortzera zuzenduta dauden politika eta programei buruz (Jackson, n.d.).

1988an beroketa globalak eta ozono geruzaren suntsiketak eztabaida publikoan eta nazioarteko mailako programa politikoetan garrantzia bereganatu zuen, horrenbestez,

Aldaketa Klimatikoari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldea (IPCC<sup>1</sup>) sortu zen (Jackson, n.d.).

1992an ingurumenaren inguruan nazioarteko neurriak hartzeko premia geroz eta indar handiagoa lortzen zuen heinean, Batzar Orokorrak NBEn Ingurumen eta Garapenaren Konferentzia ezarri zuen Rio de Janeiron (Brasil). Honek nazioarteko akordioentzat marko berri bat ezarri zuen ingurumena mundu-mailan babesteko helburuarekin Agenda 21 programa ezarriz nazioarteko kooperazioa bultzatzeko asmoz (Jackson, n.d.). Baita aipatzekoa da bertan, estatuei bere herritarrekiko betebeharrak batzuk ezartzen zizkiela: ingurumenari buruzko informazioa eskuragarri jartzea, erabakietan herritarren parte-hartzea bermatzea eta prozesu judizial edo administratibo batetarako eskubidea bermatzea, ingurumena objektu izanik (de Luis, 2018).

Konferentzia honetako gertakari garrantzitsuenetakoa, Nazio Batuen Aldaketa Klimatikoari buruzko Hitzarmen Markoa sinatzeko gonbitea izan zen, 1992 urtearen amaieran 158 estatuk sinatu baitzuten. Honek atmosferako negutegi efektuko gasen maila orekatzeko helburua ezartzen zuen Kliman gizakiaren eragin arriskutsua ekiditeko (Jackson, n.d.).

1997an Kyoto-ko (Japonia) Protokoloa ezarri zen, honen helburua herrialde industrializatuek igortzen dituzten, negutegi efektua eragiten duten gasen totala gutxienez %5ean murriztea zen 2008-2012 urteen bitartean (Jackson, n.d.). Protokolo honek mekanismo instituzional berriak garatu, gasen igorpena murrizteko neurriak sustatu zituen eta karbonoaren nazioarteko merkatua sortu zuen (Pajares, 2020). Gainera, ikuspegi aldaketa bat baimendu zuen, neurrien fokua eremu pribatura ere zabalduz. Izan ere, aipatutako merkatuak eta Garapen Garbirako Mekanismoek industria eta enpresek nazio-mailako lege eta arauak ez ezik, nazioarteko erregulazioak ere aintzat hartzea bultzatu zuen (Yang & Percival, 2009).

Nahiz eta zenbait alderdi positibo izan protokolo honek, herrialde industrializatuetako ingurumeneko zenbait ministroren arabera, bertan aipatutako mekanismoak ez dira nahikoak izango ezarritako helburuak lortzeko. Hain zuzen ere, gaur egun indarrean dauden neurriak kontuan izanik gasen igorpenak %5ean murriztu ordez %20ra areagotzeko aukera egongo litzateke (Jordano, 2003).

Aipatzekoa da ere 1998ko hitzarmena, Aarhus-eko Konbentzio gisa ere ezaguna, ingurumen gaietan informazioa eskuragarri izateko, erabakietan parte-hartze publikoa

---

<sup>1</sup> Intergovernmental Panel on Climate Change

egoteko eta justiziara jotzeko aukerari buruzkoa (Hall & Varona, 2018). Izan ere, parte-hartze publikoak gizartearen inplikazioa ingurumen gaitan ahalbidetu behar baitu, ezin du informazio publikora soilik mugatu, herritarrak ingurumen administrazioaren eragile eta bermatzaile bihurtu daitezkeen. Honek hainbat hitzarmen eta legedien efektibotasun erreala areagotzea ahalbidetuko zuen (Jordano, 2003).

1998ko NBEen Ingurumenari buruzko Programan hainbat aipamen interesgarri topatu daitezke: ongizate ekologikoa, espezieen arteko harremanei eta ingurumenarekin daukaten elkarrekintzari erreferentzia eginez eta aldaketa klimatikoarengatik arduraren berezi bat adieraziz, bereziki, beroketa global eta baso eta oihanen galtzearengatik, bai eta espezieen aniztasunak jasaten duen mehatxuarengatik, hau da, galtzen ari diren espezieak eta modifikazio genetikoak (Pajares, 2020)

### **Nazio Batuen Erakundeak ezarritako Garapen Iraunkorrerako Helburuak**

2015eko irailaren 25ean Nazio Batuen Erakundea (NBE) osatzen duten nazioarteko buruek, pobreziaarekin amaitzeko planeta babestu eta guztion oparotasuna bermatu nahian helburu multzo bat ezarri zuten **2030 agenda** gisa gauzatu dena, helburu horiek 15 urtetan betetzeko asmoarekin. Helburu hauek bete daitezkeen, bai gobernuak, sektore-pribatuak, gizarteak eta gizabanakoek hartu beharko dute parte. 17 helburu osatzen dute guztira agenda hau (zerrendatuta ezarritako lehentasunaren arabera) (NBE, 2015a) :

1. Pobreziaarekin amaitu
2. Gosearekin amaitu
3. Osasuna eta ongizatea sustatu
4. Kalitatezko hezkuntza bat bermatu
5. Genero berdintasun bermatu
6. Ur garbia eskuragarri edukitzea
7. Energiaren eskuragarritasuna zabaldu eta hau ez-kutsakorra bihurtu
8. Gizalegezko lana eta hazkunde ekonomikoa bermatu
9. Industria, berrikuntza eta azpiegiturak (errepideak, elektrizitatea etab.)
10. Mundu-mailako desberdintasun eta bidegabekeriak murriztu

11. Hiri eta komunitate iraunkorrak garatu (adibidez, garraiobide iraunkor eta publikoen erabilpena).
12. Produkzio eta kontsumo arduratsua, adibidez, hainbat materialen birziklapena sustatzeko
13. Klima aldaketari aurre egiteko ekintzak sustatu.
14. Ozeanoen biodibertsitatea eta osotasuna bermatu
15. Lurreko ekosistemen osotasuna bermatu.
16. Bakea, justizia eta bidezko instituzioak bermatu.
17. Herrialdeen arteko kooperazioa eta batasuna helburuak lortzeko

2015eko abenduaren 12an NBEek **Pariseko Neutraltasun Klimatikoaren Akordioa** adostu zuten. Akordio hau aldaketa klimatikoari buruzko nazioarteko tratatu bat da, juridikoki (NBE, 2015b). Akordio honetan aro preindustrialeko temperatura globala kontuan izanik, XXI. mendearen amaieran 2°C-ko berotze globala ekiditeko eta 1,5°C-ko berotzea ez gainditzeko neurriak hartzeko helburuak ezarri ziren (Pajares, 2020).

Helburu hau lortzeko herrialdeek konpromisoa hartzen dute negutegi efektuko gasen gehienezko igorpena lehenbailehen lortzea, mendearen erdian neutraltasun klimatikoa gauzatu dadin (NBE, 2015b).

Akordio hau indarrean jartzeak eraldaketa sozial eta ekonomiko bat galdatzen du. 5 urteko ziklotan funtzionatzen du akordioak, non herrialdeek geroz eta asmo handiagoak burutzen dituzten. Ezarritako helburua lortzeko, 2020. urtean herrialdeek hartu beharreko neurrien inguruko planak aurkeztu zituzten, baita zein egokitzapen neurri erabiliko dituzten temperaturak areagotzen diren heinean eta epe luzearako garapen estrategia negutegi efektuko gasen igorpen baxua izango dutenak. Honetaz gain, akordio honek herrialde aberats eta garatuenei eskaera egiten die hainbeste errekurtsio ez dituzten herrialdeei laguntzeko bai ekonomikoki eta teknologiarik aldetik (NBE, 2015b).

Egindako aurrerapenen ikuskapenerako 2024tik aurrera herrialdeek hartutako neurrien inguruan, era gardenean, informatu beharko dute, baita neurri hauek zein ekarpen egin dituzten aldaketa klimatikoaren efektuak arintze aldera, zein egokitzapen neurri hartu dituzte eta jasotako edo emandako laguntzak. Azkenik, aurkeztutako informe hauek

ebaluatzeko nazioarteko prozesuak aurreikusten dira, ebaluazio hauek aholkuak egikaritutako dituzte hurrengo ziklorako (NBE, 2015b).

Miguel Pajares-ek (2020) *Refugiados Climáticos* liburuan azaltzen duenaren arabera, nahiz eta juridikoki loteslea izan akordio hau, ez da hertsiki loteslea, izan ere, ez ditu santziorik aurreikusten, beraz, ezin da neurrien egikaritzea ziurtatu.

Gainera, 4.2. eta 4.19 artikuluei erreparatu ezker ikus daiteke erabiltzen diren aditzak ez dutela derrigorrezkotasun bat islatzen, adibidez, “deberán”, “procurarán”. “intentarán”, “se esforzarán” ... (Pajares, 2020)

Horretaz gain, azpimarratzekoa da 2015ean erregai fosilek munduko energiaren %86a hornitzen zutela eta hauek negutegi efektuko gasen igorle nagusietakoa izanik, kontraesankorra dirudi, akordioan gas hauen igorpena murrizteko asmoa adierazten dela, baina, erregai fosilak ez direla behin ere aipatzen (Pajares, 2020).

#### **b. EUROPA: EUOPAR BATASUNA (EB)**

Behin marko globala ezarrita, Europar Batasun mailan hartu diren neurria aztertzerako joko dugu.

Hasteko, **2004/35/CE Direktiba Ingurumen Erantzukizunari** buruzkoa, 2004ko apirilaren 21ean hitzartu zuten Europako Parlamentuak eta Kontseiluak (González-Vaqué, 2006). Direktiba honek ingurumen kalteei aurre egiteko santzio zibilen garapenari hasiera eman zion (Hall, 2014) eta aurrezaintza-neurriak zein neurri konpontzaileak aurreikusten ditu. Beraz, araudi honen helburua aurrezaintzarako eta ingurumenean eragin daitezkeen kalteak konpontzeko marko komun bat sortzea da, gizartearentzat zentzuzko kostu bat suertatuz. Horrenbestez, bere lehenengo artikuluan ezartzen du ingurumen-erantzukizuna, “kontaminatzen duenak ordaintzen du” printzipioan oinarrituko dela (González-Vaqué, 2006).

Direktibak bere 3.1. artikuluan erantzukizunaren bi eremu-aplikagarri ezartzen ditu: hainbat jarduera profesionalak eragindako ingurumen-kalteak eta jarduerak hauek ingurumenarentzat arriskuak sor ditzaketenean (1) eta jarduera hauek babestutako espezie eta habitat naturalei kalteak eragiterakoan edota arriskuan jartzerakoan (2) aplikagarri izango da. Hori bai, kalte edo arrisku horiek eragilearen errua izatea edo arduragabekeriagatik burutu izana beharrezkoa izango da (González-Vaqué, 2006).

Bere 2. artikuluan direktiban erabiltzen den ingurumen-kalte kontzeptuaren norainokoa azaltzen da, honen arabera eta aurretik aipatutako artikuluari jarraiki ingurumen-kaltearen definizioa ingurune horretako elementu konkretu batzuei soilik egiten die erreferentzia eta hauek soilik sortzen dute aurrezaintzarako eta konpontzeko betebeharra. Horrenbestez, ondorioztatu daiteke araudi honek ez duela helburu ingurumena babestea era global batean. Gainera, elementu hauen osotasunean kalte bat eragin dela aintzat hartzeko beharrezkoa da hainbat baldintza betetzea, hau da, zuzenean edo zeharka aldaketa kaltegarri bat eragitea eta aldaketa hori neurgarria izatea (González-Vaqué, 2006).

Aurretik aipatu da ingurumenean kalte bat sortzeko arriskua ere marko honen objektuaren parte dela, horrela, aurrezaintza osatuz. Arriskua aipatzerakoan erregimen honek esan nahi duena da, kalte hori sortzeko aukera nahikoa existitu behar duela gertuko etorkizunean (González-Vaqué, 2006).

Kontuan hartzekoa da, ingurumenaren babesa interes lauso bat dela eta gainera pertsonak beti ezin dutela jardun interes hau defendatzeko edota beti ez dutela aukera horrela jarduteko. Beraz, hau kontuan izanik direktiba honek ezarritako prozesuetan berrikuntza bat sartu zuen, hau da, ingurumenaren babesa sustatzen duten Gobernu Kanpoko Erakundeei (GKE) direktiba honen aplikagarritasuna eraginkorra izan dadin ekarpen egokiak egiteko aukera ematea (González-Vaqué, 2006).

Hala ere esan beharra dago, direktiba hau aplikagarria izango dela soilik kutsadura difuso baten eraginez kalte edo arrisku bat sortzen denean, kaltearen eta eragileek burututako jarduera zehatzen artean harreman kausal bat dagoela frogatu daitekeenean (González-Vaqué, 2006).

Direktiba hau kritikatu izan da, errekurso naturalei egindako kalteen larritasuna determinatzeko ezarritako mekanismoek zehaztasun falta izateagatik eta EB osoan erantzukizun zibila ezartzeko sistema-efektibo bat garatzen huts egiten duelako (Hall, 2014).

Izan ere, aipatzekoa da direktibak hurrengo aitortu zuela:

*“No es posible subsanar todas las formas de daño medioambiental mediante el mecanismo de la responsabilidad. Por consiguiente, la responsabilidad no es un instrumento adecuado para abordar la contaminación de carácter extendido y difuso, en la cual es imposible asociar los efectos*



*medioambientales negativos con actos u omisiones de determinados agentes individuales” (González-Vaqué, 2006, 9 orr.).*

Azkenik, azpimarragarria da pertsonen eragindako lesioak, jabetza pribatuei eragindako kalteak edota bestelako galera ekonomikoak ez dituela barne hartzen (González-Vaqué, 2006)

Aipatzeko da baita **Lisboako Tratatuko** (2007/C 306/01) 13. Artikulua, non animaliak izaki sentikor gisa aitortzen diren eta estatuen barne legedietan horrela aitortzeko betebeharra ezartzen die. Beraz, animaliak propietate gisa irudikatzearen ideia deuseztatu zen bertan (Giménez, 2017)

Europako Kontseiluaren 1998ko **Hitzarmena “sobre la protección del medio ambiente a través del derecho penal”** (*ingurumena zigor zuzenbidearen bitartez babesteari buruzkoa*) izan zen **2008/99/ CE Direktibaren** aurrekaria, objektu bera duena. Lehenengoa, ingurumena kaltetzen duten zein kondukta kriminalizatu beharko ziren adierazten zuen Europako lehen testu normatiboa izan zen, nahiz eta izan zuen berrespen eskasak honen eraginkortasuna deuseztatu zuen (de Luis, 2018)

Bigarrena, Europar Parlamentuak eta Kontseiluak ezarri zuten, EBeko estatu kideen ingurumenari buruzko erregulazioak bateratzeko beharra ikusi zutelako, komunitate ingurumen politiken hainbat urrapenen aurrean, hauek nahikoak ez zirela aitortuz. Horregatik, eraginkortasun urri honi aurre egiteko zigor zuzenbidearen erabilgarritasuna baliatu zuten. Beraz, argi ikus daiteke helburua erregulazio penal nazionalak indartzea dela, direktiban definitzen diren ingurumen delituen aurrezaintzarako eta hauek burutu ezkeroko egileek zigor bat edukiko dutela ziurtatzeko (de Luis, 2018).

Direktiba honen arabera ingurumena kaltetzen duten jarduerak airean, estratosfera barne, lurra, ura, animalia edota landareei eta espezieen kontserbaziori eragin daitezkeen kalteak dira. Ostera, araudi honek ikuspegi antropozentriko bat duela adierazi da, ingurumen delituek gizakiengan dituzten ondorioetara bideratzen baitu atentzioa (de Luis, 2018).

3. artikuluan zerrendatzen dira zein jarduerak diren delitu, haien artean: zenbait jarduera gizakien heriotza eragin edota osotasuna kaltetu dezakeenean (isurketak, material arriskutsuen garraioan, ustiapenak...), edota aire, lur, animalia landareak arriskuan jartzen dituztenean edota kaltetzen duenean. Baita, fauna eta flora babestuen salerosketa eta eremu babestu baten barneko habitat baten narriadura larria eragiten duen edozein portaera ere tipifikatuta daude (2008/99/ CE).

Bestalde, pertsona juridikoak erantzule gisa kontsideratu daitezkeela bermatzeko estatuen betebeharra 6. artikuluan ezartzen da. Hobeto esanda, pertsona juridikoak erantzuleak izango dira antolakundean zuzendari posizioa duten pertsonen burutzen dituztenean bertan aipatutako delituak edota delitua pertsona hauek beraien betekizunetan kontrol edo ikuskapenak modu egokian ez burutzegatik horrelako delitu bat burutzen denean (de Luis, 2018).

Direktiba honek egungo estatu kideen ingurumen delituei buruzko erregulazioa gidatu du. Transposizioa egiterakoan estatuek hein garrantzitsu batean bete dutela esan daiteke, egiazki, herrialde gehienek bere marko nazionalean barneratu dutelako nahiz eta zenbait desberdintasun edo hutsunerekin (de Luis, 2018).

Hala ere, EBko Komisioak 2019-20 urteetan direktibaren ebaluazio bat egin zuen eta ebaluazio horren ondorioek adierazten dute, bere helburuak ez dituela guztiz bete. Esate baterako, direktibak ingurumena babesteko orduan efektu gehiegirik ez dauka eta legea aurrera eramaterakoan, praktikan inplementazioa oso pobrea du. Adierazpen honen oinarria da direktibak ez duela ingurumen delituengatik jazarpen gehiago edota kondena gehiago ezartzea eragin, ezta santzio disuasorioagoak jartzera eraman (Comisión Europea, 2020).

Azkenik, Europa mailan ingurumena babesteko **Natura 2000 sarea** proiektua ere aipatzea merezi du, hain zuzen ere, Europan egoera larri eta arriskutsuenean, edo beste modu batetara esanda, galtzeko zorian dauden habitat eta espezieak babesteko sortu zen. Guztira 26.000 eremu desberdin babesten ditu, EBren azaleraren bosten bat, baita itsasoetako eremu garrantzitsu batzuk (Comisión Europea, 2015) .

Sare honek bi direktiba ditu bere oinarrian: 1979ko Hegaztien Direktiba, EBko hegazti basati guztiak babesteko, baita, 1992ko Habitaten Direktiba, EBko herrialde guztiak, galtzeko zorian dauden habitat, landare eta animali espezie guztiak, babestera derrigortzen dituen (Comisión Europea, 2015).

Proiektu honek ingurumenaren eta gizakien arteko elkarkidetzeta eta lankidetzeta arazo honi aurre egiteko modu eraginkorra dela aitortzen du, beraz, jarduera ekonomikoak ez ditu bere irismenetik baztertzen, baizik eta habitat eta espezien babesarekin bateragarriak direla ziurtatzea bilatzen du. Beraz, babestutako espezie eta habitatak larriki asaldatu ditzaketen jarduerak saihestu eta beharrezkoa izan ezker, eremu hauen kontserbazioa

hobetzeko asmoarekin neurri positiboak aurrera eramatea izango ditu betekizun (Comisión Europea, 2015).

### c. **ESPAINIA**

Espanian ingurumena babesteko aipatutako nazioarteko hitzarmen eta direktibak estatuko legedi eta araudietan barneratu ditu, hauek eraginkorrak izan daitezzen estatuaren barne (de Luis, 2018).

Lehenik eta behin aintzat hartzekoa da, lehenago aipatu bezala **Espainiar Konstituzioaren** 45. artikuluan naturarako edota ingurumen egoki baterako pertsonen eskubidea aitortzen dela. Aitorpen hau ikuspegi antropozentriko batetik egiten dela deritzote, lehen helburua gizakiaren babesa baita (de Luis, 2018).

Aitorpen honek autoritate publikoen jarduera gidatu behar du, baina ez da oinarrizko eskubide gisa aitortzen. Beraz, eskubide hau urratu ezker, eskubide honen egikaritzea aldarrikatzeko zuzenean Auzitegi Konstituzionalarengana jotzeko aukerarik ez dago (de Luis, 2018).

Konstituzioko eskubide hau eraginkorra izateko tresna bat, Aarhus-eko hitzarmenaren transposizioa da, 27/2006 legearen bitartez egiten dena. Hau ingurumen gaietan informazioa eskuragarri izateko, erabakietan parte-hartze publikoa egoteko eta justiziara jotzeko aukerari buruzkoa da (de Luis, 2018)

Legedi honen helburua hurrengo eskubideak arautzea da (de Luis, 2018):

- a) Autoritate publikoek daukaten ingurumenari buruzko informazioa publikoarentzat eskuragarri egotea.
- b) Ingurumenean eragin zuzen edo zeharkakoa duten erabakiak hartzeko prozesuetan herritarren parte hartzeko eskubidea, hauen ekoizpena eta onarpena Administrazio Publikoari dagokionean.
- c) Autoritate publikoen egite edo ez-egiteak ingurumen araudien urrapen bat suposatzen dutenean, ikuskapen administratibo edo judicial bat eskatzeko eskubidea.

Legedi hau aplikatzeko eremua partikularren eta administrazio publikoaren arteko harremanak dira eta bide administratibo edo kontentzioso-administratibotik egin daiteke (de Luis, 2018).

Legedi honen 22 eta 23 artikulua ingurumen gaien inguruko akzio popularra arautzen dute. Baina errealitatean, prozesu judizial batera jotzeko aukera informazio eskubide eta herritarren parte-hartzeen urrapenentzako dago eskuragarri soilik eta ez administrazio publikoak urrapenen bat burutzen duenerako (de Luis, 2018).

Azken honengatik, doktrinak hainbatetan kritikatu du legedi hau. Izan ere, egokiena izango litzatekeelako edozein pertsona fisiko edo juridikok, administrazio publikoak urrapen bat burutzerakoan errekurtsio bat egikaritzeko aukera izatea, ez soilik kalte zuzen bat eragiten dionean baita ingurumen araudien edozein urrapenen kasuetan (de Luis, 2018).

**Zigor Kodeari (ZK)** erreferentzia eginez gero, 325. artikulutik aurrera ingurumen delituak araututa daude, zuriz eraturako artikulua dira gehienbat, hau da, beste ingurumenari buruzko legeetara jotzea beharrezkoa da. Laburki deskribatuz hauek dira kriminalizatuta dauden portaerak (LO 10/1995):

- Ingurumena babesten duten lege orokorrak urratuz aire, lur, ur, animalia eta landareen kalitatea larriki kaltetu (besteak beste, sistema naturalen oreka kaltetzea) ditzaketen jarduerak (kutsadura, isurketak...). Pertsonen osasuna arriskuan jarri edota kalte larriak eragin ditzaketenak ere kontuan hartuko da.
- Babestutako eremu naturalak kaltetzea edota bertako elementuekin trafikatzeta.
- Jarduera edo industriek ingurumenean eragin ditzaketen kalteak ezkutatzeta edota faltsutzea.
- Animaliekiko tratu txarrak eta ustiapen sexuala

Beraz, batzuen arabera babestutako ondasun juridikoa ingurumena eta sistema naturalen oreka da eta horregatik ingurumen kalte hauek gizakiei eragin ezkerro astungarri gisa gehitzen da, ikuspegi ekozentriko bat hartu nahian. Baina, beste batzuen arabera, babestutako ondasun juridikoa lur, aire, ur, fauna eta floraren kontserbazioa dira, hau guztia, giza osasunaren inguruan kokatuta dagoelarik, bertan ikuspegi antropozentriko bat gauzatzen delarik (de Luis, 2018).

Bertan ezartzen diren zigorrak aztertu ezkerro pertsona fisikoei ezartzen zaizkien zigor arinenak 326.2 artikuluan azaltzen dira, hondakinen garraio ez-zilegiagatik: 3 hilabete eta 1 urte bitarteko lanerako desgaitasuna berezia, 6-18 hilabete bitarteko isun zigorra eta 3 hilabete eta urte bat arteko espetxe zigorra (LO 10/1995).

Zigor larrienen artean 2-5 urte arteko arrantza edo ehizarako eskubidearen egikaritzarako desgaitasuna berezia ezartzen da 335.1 eta 3. artikuluetan, espresuki debekatuta dauden espezieak arrantzatu edo ehizatu ezker edota jarduera hauek burutzerakoan eremu naturalean kalte larriak eragin ezker; 12-24 hilabete bitarteko isun zigorra babestutako espazio batetan, espazioa babesteko ezaugarri izan den elementuren bat kaltetu ezker (330. Art.); eta 2-5 urte bitarteko espetxe zigorra, burututako jarduerak sistema naturalen oreka kaltetu dezaketenean (325.2. art.) (LO 10/1995).

2015eko erreformaren ondoren, ingurumen delituak berridatzi eta delituak zuhurtziagabekeria larriaren bitartez burutzeko aukera barneratu zen (de Luis, 2018).

Honetaz gain, PNIEC (Plan Nacional Integrado de Energía y Clima 2020-2030) planari ere aipamen bat egin behar zaio. Programa honen negutegi efektuko gasen %23ko murrizketa du helburu. Honek bat egiten du 2030ari begira Europak ezarritako helburuekin eta Pariseko akordioarekin. Plan hau oraindik ez dago guztiz osatua edo amaitua, izan ere, 2020ko martxoaren 14an alarma estatuaren deklarazio horretarako kausa bat izanik (MITECO, n.d. a)

Espainian 2000 Natura Sarea, Garrantzi Komunitarioa duten 1467 tokiek eta 657 babes bereziko tokiek osatzen dute. Baina, oraindik sare hau ez dago guztiz osatua, hainbat espezie eta habitat ez daukatelako babes nahikorik. Beraz, sareari leku gehiago gehitzea beharrezkoa da hauen babesa bermatzeko (MITECO, n.d. b).

#### **4. INGURUMEN KALTEEI AURRE EGITEKO BALDINTZAK ETA ZAILTASUNAK (OROKORREAN)**

Gaur egun arrazoi desberdinengatik hainbat zailtasun aurkitu daitezke ingurunearen aurkako delituen inguruan kontzientzia sortzeko eta hauek ezagutzera emateko. Zailtasun hauek aldi berean delitu hauek burutzea errazten dituzten faktoreak ere izan daitezke.

Zailtasun hauek gizarte garaikideen egituretan, publikoaren pertzepzioan eta sektore akademikoan oinarrituta daude, besteak beste. Beste modu batera esanda, hiru “sesgo” nagusi antzeman daitezke: “sesgo” antropozentriko bat non gizakien interesak lehenesten diren gainerako espezien interesen gainetik; “sesgo” urbano bat, landako eremuetan gertatzen diren gatazken inguruko utzikeri bat eragiten duena eta azkenik, ezagutzaren “sesgo”-a, ezagutza zientifikoa egi bakar gisa inposatzen duena, beste ezagutza motak, esaterako, ezagutza tradizionalak baztertuz (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2018).

Horretaz gain, gizartean gertatu ohi den bezala kriminologia ikuspegi antropozentrista batetik bideratu ohi ditu ikerketak, hau da, gizakiaren nagusitasun biologiko, moral eta mentala azpimarratuz, gainerako izaki bizidun eta ez bizidunekin konparatuz, azkenik, hauek modu instrumental batean irudikatuz. Horrenbestez, biktimaren kontzeptua ere ikuspegi horren ildotik eraikitzen da eta ondorioz ekosistemei eta espeziei eragindako kalteak legitimatzen dira edota ikusezinak gertatzen dira (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017).

Beste faktore garrantzitsu bat enpresa edo industriek duten **botere ekonomikoa** da. Izan ere, bere errekurtsu eta botereaz baliatzen dira legegileei sinestarazteko ingurumen kalteak mugatzen dituzten lege eta arauak indarrean jartzea kaltegarria izango dela garapen ekonomiko iraunkor eta egonkor bat gauzatzeko, bertatik ondorioztatuz kaltegarria izango dela gizarte osoaren egoera ekonomikoarentzat eta horrela arau hauek indarrean jartzea saihesten dute (Hall & Varona, 2018). Horrenbestez, ondorioztatu daiteke delituen definizio legal eta arauak posizio boteretsuak dituztenen interesak islatu ohi dituztela (gutxienez partzialki), besteak beste, elite sozioekonomikoen kideenak eta haien produkzio sistemak ingurumen kalteak sortzen dituzten antolakundeak (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017; Long, Lynch, & Stretesky, 2020; White, 2013d). Azkenean paradoxa moduko bat eratzen da, gobernuaren erregulatu behar dituen jarduerak burutzen dituzten enpresen menpeko aurkitzen du bere burua (White, 2013e). Hala ere aipatu beharra dago, legegileak ez direla bateratutako talde homogeen bat eta enpresa hauen produkzioa mantentzeko interes estrukturalak eragiten duela, batik bat, legediak ingurumenaren babesaren alde ez moldatzea (Long, Lynch, & Stretesky, 2020).

Gainera, posizio boteretsu hau daukatenek saihestutako edo urratutako lege eta arauen ondorioz sortutako kalteen ardura beste erakunde edo pertsoneri lekualdatzen saiatzea ere ohikoa da, beraien langile eta produktuentzako segurtasun arauak sortuz (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017). Honen adibide da, *Corporate Compliance* sistema, azkeneko atalean honen funtzionamendua azaltzen da.

Stretesky eta Lynch-ek (2017) “treadmill of production” (*Produkzioaren gurrupila*) teoria garatu dute azalduz egungo **eredu ekonomiko global neokapitalistak** ingurumen kalteen beharra duela. Horrela, gizakiaren jokabide eta ingurumen kalteen arteko harremana maila **politiko-ekonomiko** batean ulertzen lagunduz (Potter, 2017).

Teoria honek dioenaren arabera, kapitalismoaren ereduaren barne enpresek edo industriek beraien irabaziak areagotu ditzakete, produkzioa hedatuz, produktu gehiago salduz edota langileen ondorioz sortutako kostuak murriztuz. Ondorioz, kapitalismoak ekologia eta ekonomiaren arteko gatazkak sortzen ditu, izan ere, kapitalismoa produkzioa bizkortzea eragiten duen heinean, errekurtsoen erauzketa handiagoa galdatzen du eta kutsadura gehiago eragiten du (Long, Lynch, & Stretesky, 2020).

Ilido berean, eremu legal eta politikoak ingurumenaren babesa garapen ekonomikoaren testuinguruaren barne gauzatzen saiatzen da eta honen ondorioz, estatuak ez ditu jarduera ekonomiko produktiboak burutzen dituzten erakundeen jarduera erregulatzeko edo kriminalizatzeko asmo handirik adierazten (White, 2013d).

Aintzat hartzeko beste faktore bat, ingurunearentzat kaltegarriak diren **jarduera legalki jazartzeko zailtasunak dira**, ingurumena kaltetzen duen jarduera baten ardura pertsona fisiko, juridiko edo estatu bati egoztea, oraindik erronka gogorra baita. Izan ere, askotan zaila da kausalitate zuzeneko edo zeharkako harreman bat ezartzea egite edo ez-egite eta sortutako kaltearen artean. Zailtasun hau are gehiago areagotzen da, ingurumen kalteak sortzen dituzten jarduerak eta hauen inpaktuak denbora-eskala luzea ezaugarri dutelako, ohiko jarduera kriminalak ez bezala. Beraz, ondorioztatu daiteke justizia kriminalak ez duela malgutasun nahikorik etorkizuneko ingurumen-kalteak edota ingurumen kalteen ondorioz animalia eta gizakiek gaur egun pairatzen dituzten kalteak aintzat hartzeko (Hall, 2014).

Gainera, prozesu penalen joera pertsona indibidual edo talde txikiek burututako delituetara moldatzea da, baina, ingurumen delituen ardura erakundeen jardueretan, biktimizazio talde handietan eta animalia eta ekosistemetan duten inpaktuen inguruan ezartzen da (Hall, 2014).

Ingurumen delituen inguruan poliziek daukaten iritsiera ikertu zuen lan batean (hiru herrialde aintzat hartu ziren) 5 zailtasun komun aurkitu zituzten gorputz polizialen barne: 1. Eragile desberdinen arteko kooperazio eskasa; 2. Baliabideen aurrekontu desegokia; 3. Urritasun teknikoak legedi, prozedura eta agentziaren barne politikan; 4. Ezagutza eta gaitasun tekniko urriak; 5. Kontrola egikaritzeko gaitasun eta kudeaketa sistema moldagarrien falta. Gabezi hauek modu globalean aplikagarri dira, hala ere, testuinguruaren arabera aldaketak egon daitezke gabeziaren jatorrian edo gabezia berean (White, 2013d).

Halaber, ingurumen delituen izaerak hainbat erronka ezartzen ditu polizien bere lana modu eraginkorrean burutu dezaten. Esaterako, delitu hauek dimentsio lokal, erregional edota globala izan dezakete. Gainera, zenbait kasutan delitua bera detektatzea zaila izan daiteke, adibidez, kimikoen bitartezko kutsadura giza ikusmenarentzat behagarria ez izatea. Delitu batzuk nazioen arteko negoziazio eta eztabaidak sor ditzakete, hainbat kasuetan herrialdeen arteko desadostasunak sortzen direlako edota erregulazio desberdinak daudelako. Beste batzuk, delitugile mota desberdinak barne hartu ditzakete krimen antolatuko taldeak eta delitugile indibidualak. Azkenean, ikerketa teknika eta ezagutza oso konketuak eta ugariak beharko dituzte (White, 2013d).

Bestalde, esan daiteke, gobernuko departamentuak ingurumenaren babesaren gaiaren inguruan ez daudela behar bezain beste informaturik eta honek ingurumena babesteko ekimenak berandu egikaritzea edota porrot egitea eragiten duela (White, 2013d).

Horretaz gain, beste zailtasun bat herrialde mugakideen artean burutzen diren jardueretan topatzen da, esaterako, jarduera hori zilegia denean herrialde batean, baina, bestean ez. Askotan jarduera hauek oharkabekoan geratzen baitira, adibidez, kutsadura sortzen den kasuetan eta kutsadura hori beste lurraldeetara igarotzen denean (Hall, 2014).

Europako Justizia gorteak dio, Europako herrialdeen artean santzioak ezartzerako orduan harmonizazio falta handia dagoela eta hau ingurumen delituen nazioarteko izaerarekin batuz, jarduera kutsakorrek eta hondakinen garraioa modu ez-zilegian burutzeko aukera zabaltzen duela (White, 2013d).

Zigor Kodean adierazten den delitu kontzeptua eta aldi berean indarrean dagoen kontzeptu horren imajinario sozial eta profesionalak ere oztopatzen dute delitu hauek ezagutzera ematea eta delitu gisa hautematea gizartean (Hall & Varona, 2018).

Aintzat hartzekoa da ere auzitegi eta epaitegietan kaltearen kontzeptua ez dela erabilgarria, izan ere, hauek legezotasun printzipioa errespetatzeko beharra baitute. Horregatik, ingurumen kalteak burutzen dituzten portaerak legearen bitartez debekatuta ez dauden bitartean, kalte hauek burutzen dituzten eragileak beraien ardura saihesten jarraituko dute (Hall & Varona, 2018).

Ohikoa da ere, ingurumen kalteak ezagutzera emateko burutzen diren ekintzen aurka errepresio delituak burutzea. Hau da, estatu edota beste gizabanako boteretsuen interesak



defendatzeko legeak urratu ditzakete ingurumen aktibista edota legea betearazten saiatzen direnak erreprimitzeko eta hauen esku-hartzeak galarazteko (Potter, 2017).

Aldi berean, administrazioaren aldetik interes falta bat ere nabarmentzen da delitu hauen epaiketa edo santzio administratibo hauek aurrera eramateko eta efektibo bihurtzerako orduan, hau da, lege eta erregulazioen aplikazio eta exekuzio negligente bat (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017)

Arabako Diputazioko bi basozainek azaldutako kasuak ondo islatzen ditu, bai errepresio delituak zein administrazioaren interes falta, izan ere, hauek diotenaren arabera batzuetan beraiek jarritako santzioak artxibatuak izan dira, isunak jasotako pertsonak diputazioan ezagunak zituztelako (Armentia, 2021).

2017an hauetako batek, Andoni Diazek, egoera salatzeko lehenengo bere nagusiengana jo zuen eta hauen erantzun ezaren aurrean Fiskaltzara jo zuen, hainbat ehiztariri jarritako santzioak Diputazioak arindu edota artxibatzen zituela behatu zuelako. Diputazioaren arabera kudeaketa arazo bat izango zen eta ez zutela isunik baliogabetzen adierazi zuen. Fiskaltzak ikerketa bat burutu zuen kasuaren inguruan eta prebarikazio baten susmoak igorri zizkion epaitegiari, baina, honek azkenean kasua artxibatu zuen (Armentia, 2021).

Hala ere, Diputazioko Agrikultura sailak argitaratutako ehiza-isun tramitazioei buruzko datuak deigarriak ziren: 2014-2016 urteen bitartean basozainek ezarritako 180 salaketatik 86 artxibatu egin ziren eta 18 salaketetan larritasun maila arindu zuten (Armentia, 2021).

Orain, Arabako Diputazioak diziplinazko espediente bat ireki dio Andoniri. Gainera, aipatzekoa da ere, bere lanean zehar hilketa mehatxuak jaso dituela (Armentia, 2021).

Aitzitik, Rodríguez eta South-en (2017) lanean azaltzen denaren arabera, legeak gobernuak planeatutako proiektu eta ekintzak oztopatzen dituztenean hauek besterik gabe aldatzen dituzte haien onurarako. Beraz, zalantzan jartzen da jatorriz ingurumena babesteko sortzen diren lege eta arauak errealitatean hauek babesteko egiten diren ala gobernuaren interesak bermatzeko baizik.

Horretaz gain, ingurumen delituei aurre egitearen garrantzia oztopatzen du ere honek sortzen dituen efektu polarizatuak, hau da, kalteak sortzen ditu, baina, aldi berean onura sozialak ere (Hall & Varona, 2018).

Delitu mota hauetan, biktima eta delitugilearen papera aldi berean betetzea ere posible da (Hall & Varona, 2018). Adibidez, gizakien jarduerak (gehiegizko arrantza, itsasoko

kutsadura...) kalteak eragiten dizkiete arrainei eta horrenbestez, arrainaren oinarriko naturan ere inpaktu bat sortzen dute, genetika, osasuna eta kopuruan. Baina, honek aldi berean arrainek gizakiei kalteak eraginarazten dizkio, besteak beste, arrain urritasuna, gaixotasunak... eta gizakien inguruari (ohiturak, zerbitzuak, nazioarteko harremanak...) (White, 2013a)

Ingurumen delituek sortzen duten **biktimizazio lausoak**, hau da, biktima zehatza identifikatu ezin daitekeenean, eta **zifra beltzak** ere oztokatzen du delitu hauen ezagutarazpena. Delitu eta kalte hauetarako sortzen den zifra beltza altuaren arazoietariko bat, biktimizazio honek duen dimentsio subjektiboa da. Hau da, batzuetan biktimek ez dakite delitu baten biktimak direla, ez dute bere burua aitortzen biktima gisa edota nahiago dute gertaera publiko ez egitea. Bestalde, paper garrantzitsua ere jokutzen du azken honetan, delitua burutu duen partikularrak edo pertsona juridikoak duen boterea edota testuinguruaren arabera dituen aukerak epaiketa, ikerketa edo kondena bat saihesteko (Hall & Varona, 2018).

Ohikoa da ere diskurtso publikoetan ingurumen kalteak neutralizatzea. Honen adibide da, Poloniako presidentek egindako baieztapena. Poloniako energia produkzioaren %80ak ikatzean du jatorria eta presidente honek dio, ikatza baliatzen jarraituko duela bere herrialdeko hazkunde ekonomikoa mantendu dadin, izan ere, haren ustetan klima aldaketaren aurka borrokatzearekin bateragarria baita (Pajares, 2020).

Bestalde, ingurumen kalteen existentziaren **ukapenak** ingurumen kalteak burutzea ere errazten dute. Izan ere, narratiba honek ingurumena babestu eta planetaren baliabide mugatuak modu arduratsuan ustiatzeko esku-hartze eta neurriak oztokatzen dituzte (Brisman & Wyatt, 2016). Ukapenen artean aipagarria da, Donald Trump-ek kaleetan kokatutako kartelak, non, aldaketa klimatikoa existitzen ez dela baieztatzen zen (Pajares, 2020).

Azkenik, saihestezina da aipatzea **komunikabideek** haien publikoak ingurumen arazoei buruz daukaten arduran eta irudian jokutzen duen paper garrantzitsua, izan ere, hauek helarazten duten informazioa hautatua baita (White, 2013b).

Hainbat faktorek eragiten dute informazioaren iragazkian. Faktore horietako bat komunikabide mota da (telebista, irratia, egunkaria...), izan ere, honek bidalitako mezuaren edukia baldintzatzen baitu. Adibidez, telebistak deigarriak diren irudiak transmititu ohi ditu publikoaren atentzioa lortzeko eta ingurumen arazoak gehienetan ez

dute hori eskaintzen. Are gehiago, irudirik ez badago, segur aski ez da horren berririk emango (White, 2013b).

Beste aipatzeko baldintza bat, zer deritzogun interesgarria edo garrantzitsua dela eta zer ez izango litzateke. Adibidez, hondamendiak edo istripuak deigarriak izan ohi dira beraz informazio hori transmititzea merezi duela erabaki ohi dute. Konplexuagoak diren arazoak, besteak beste, klima aldaketa, zailagoa da modu sinple eta formatu interesgarri batean azaltzea. Bestalde, bale-arrantzale japoniarren aurka bere bizitza arriskatzen duen aktibistaren istorioak komunikabidearen galdakizunak beteko lituzke. Azkenean, komunikabideak ere negozio bat dira, non, audientziak eta irabaziak faktore garrantzitsu bat izango diren (White, 2013b).

Aitzitik, komunikabidearen jabeak ere baldintzatzen du bertan helarazten den informazioa. Zenbait erakunderen interesak edo irudia kaltetu dezaketen informazioa edota interes ekonomikoak ez-zilegi bihur dezaketen berriek probabilitate gutxiago dute argitara ateratzeko. Gainera, politikoki neutralak izaten ere saiatzen dira (White, 2013b).

Horrenbestez, kazetaritzaren neutraltasuna ere kondaira bat dela esan daiteke, izan ere, beste motatako jardueren presioak jasaten baitituzte. Askotan presio politikoa izan ohi dute hainbat pertsona, politika eta printzipio ez gaitzesteko. Hauek ere, nazioaren-interesa bermatu ohi dute, ingurumenaren babesarekin zorrotz jokatzeko iritziak isilarazteko (White, 2013b)

## **5. INGURUMEN DELITUAK ERAGITEN DITUEN KALTEAK (OROKORREAN)**

Hasieran aipatutako kriminologiaren ikuspegiak gogora ekarriz ingurumen kalteak hiru era desberdinetan identifikatu ditzakegu. Lehenengo, ingurumen eskubideak eta ingurumen justiziaren ikuspegitik, ingurumen kaltea gizakiaren inguruan eraikitzen den kontzeptu bat izango da, hau da, gizakiarentzat balioa eta izaera instrumentala duten errekurtsuak aintzat hartuz. Bestalde, herritartasun ekologikoaren eta justizia ekologikoaren ikuspegitik ingurumen kaltea, kalte ekologikoak eta gizakiak teknika suntsigarrien bitartez egiten dituen esku-hartzeekin harremanean definitzen da. Azkenik, animalien eskubide eta espezien justiziaren ikuspegiari jarraituz, ingurumen kaltearen kontzeptua animalienaganako tratu txarrak eta hauen sufrimendua ekiditeko arduran

gauzatzen da, baita animaliek bizi-toki gisa dituzten ekosistemetan sortzen diren kalteen inguruan (White, 2013a).

Honetaz gain, ere aipatzekoa da White-k (2013c) bere lanean, kaltearen dimentsio desberdinak aintzat hartuz egiten dituen sailkapenak.

Lehenengo ingurumen kalteak nor kaltetzen duen arabera, hiru kalte mota egongo dira, gizakiak kaltetzen dituenak, biosfera kaltetzen dituenak eta azkenik gizakiak ez diren espezieak kaltetzen dituenak (White, 2013c).

Teorian edozein egon daiteke arriskuan ingurumen kalte edo delitu bat pairatzeko, denok ura, aire eta elikagaiekiko menpekotasun bat dugulako biziraun ahal izateko. Hala ere, ardura politiko eta ekonomikoen ondorioz, joera bat dago pertsona batzuk, maila sozioekonomiko eta bizi den eremu geografikoaren arabera arrisku hau pairatzeko probabilitate gehiago edukitzeko. Hain zuzen ere, maila sozioekonomiko baxua duten pertsonak jasango dute arrisku handiagoa eta honek injustizia sozialak ere areagotu ditzake, aldi berean (Potter, 2017; Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017)

Hurrengo sailkapenari dagokionez, ezaugarri geografikoak aintzat hartuz ingurumen kaltea lokala, nazionala, erregionala edota internazionala izan daiteke (White, 2013c).

Azkenik, denboraren poderioz kalte hauek dituzten edo izan ditzaketen efektuak aintzat hartuz ere beste hiru kategoria sortzen dira. Ingurumenean dituen efektuei dagokionez epe-motzerako edo epe-luzerako efektuak dituen aintzat hartuko da. Ingurumenean daukan inpaktuari dagokionez behargarria edo beha ezina izan daiteke, hau da, begibistakoa den hala ez, eta azkenik, ingurumen kalteek izan dezaketen inpaktu sozialari helduz, berehalako inpaktua sortzen duen hala efektua iraunkorra izango den hartuko da kontuan (White, 2013c).

Orokorrean ingurumen kalte konkretuei buruz hitzegiterakoan hurrengoak aipatzekoak dira: barnetegi efektuko gasak igorri, aldaketa klimatikoa areagotuz, ingurumenaren narriadura eragin, ekosistemen oreka kaltetu, galtzeko zorian dauden espezieak desagertzea...

Azkenean milaka kalte desberdin aipatu genitzake, esan beharra dago kalte gehienak kate baten moduan elkarreragiten direla eta nahiz eta aipatutako jarduera kaltegarriak burutzerakoan zuzenean kalte konkretu bat burutu, zeharka horren ondorioz beste kalteak sortuko dira. Esaterako, Amazonian burutzen diren basoen ustiapenak, zuzenean basoa

desagerrarazi egiten du, baina, zeharka, bertan bizi diren espezien elikagai iturriak desagerrarazi dituzenez horien biziraupena eta ekosistemak kaltetzen ari dira aldi berean.

Biktimei buruz hitzegiterakoan esan dezakegu ingurumen delituen biktimizazioa lausoa izan ohi dela, hau da, zaila izaten dela orokorrean biktima zehatz bat identifikatzea, bai kaltea burutu duen jardueraren izaeraren ondorioz (adibidez, petrolio isurketak) edota biktimak ez direlako ohartu ingurumen delitu baten biktimak izan direla. Noski, hori gizakiak kaltetuak direnean aintzat hartuz, baina, ez dugu ahaztu behar gizakiak ez diren izaki bizidun eta gainerako espezieak ere kaltetzen dituztela jarduera hauek (Hall & Varona, 2018)

## **6. NOLA AURRE EGIN INGURUMEN DELITU ETA KALTEEI (OROKORREAN)**

Ingurumen delitu eta kalteen ezaugarriak eta norainokoak jakin ondoren, arazo honi aurre egiteko kriminologia berdeak proposatzen dituen irtenbideak aztertzea aproposa da.

### **ZIGOR ZUZENBIDEA**

Kriminologiaren zentzu tradizionalenean pentsatu ezkerro burura datorkigun lehenengotariko tresna legea izango da, hain zuzen ere, zigor zuzenbidea. Jada deskribatutako marko juridiko eta kontrol mekanismoen atalean azaldu dira, gaur egun, bai nazio arteko zein, Europa edo estatu mailan indarrean dauden tresnak, besteak beste, hainbat nazioarteko hitzarmen eta Zigor Kodean ingurumena kaltetzen duten hainbat jarduera barneratu izana. Azken hau, aurrera pausu garrantzitsu bat da, izan ere, gizartean beste delitu tradizionalagoen larritasun berarekin pertzibitua izan dadin, beharrezkoa da hauek ere formalki eta legalki delituen kategorian barneratzea (Rodríguez & South, 2017). Hala ere, esan beharra dago ingurumen delituaren kategoria (zentzu hertsian), azken eta aparteko errekurtsio gisa erabili ohi dela (White, 2013e).

Honi jarraiki, Nazioarteko Gorte Penala existitzen den bezala, Ingurumenaren nazioarteko auzitegia sortzea proposatzen dute autore batzuek, batzuetan, ingurumen delituek daukaten nazioarteko izaera konplexu horri aurre egin ahal izateko. Honek nazioarteko ingurumena babesteko ezarritako hitzarmen eta itunak betearazten direla ziurtatzea izango luke helburu eta auzitegi horretara jotzeko aukera estatuek, bai hiritarrek eta asoziazio ekologistek edukiko lukete (Jordano, 2003).

Ildo berean proposamen interesgarria da de Luis-ek (2018) bere lanean egiten duena, hau da, ingurumenaren aurkako kalte larrienak nazioarteko delitu kontsideratu ahal izatea, modu horretan, munta honetako ingurumen delituak Nazioarteko Gorte Penalaren aztergai izateko aukera zabalduz. Hau justifikatzeko erabiltzen den argumentu nagusia da, ingurumen kalte larriek gizakian eragin dezaketen kalte larrien ondorioz, gizateriaren aurkako delituak izatera iritsi daitezkeela portaera hauek. Beste modu batera esanda, gizakiaren biziraupenak ingurumenarekiko duen menpekotasuna izango zen tipifikazio honen oinarri.

Proposamen hau materializatzeko era, batzuen ustez, Romako Estatutuan “ekoizidio” deritzon delitua barneratzea izango litzateke, baina, doktrinan ez dago adostasunik hau definitzerako orduan, soilik, ingurumenean kalterik larrienak sortzen dituzten portaera edo jarduerak barne-hartu beharko zituela (de Luis, 2018).

Legeetan aurreikusten diren zigorrei dagokionez, espetxe eta isun-zigorren ordeztu, zigor alternatiboak aintzat hartzea ere interesgarria da delitu hauentzako aurrezaintza eraginkorrago bat sor dadin. Zigor hauek delituak sortutako kaltea konpontzera bideratuta egongo dira. Honen adibide dira, proiektu espezifikoak burutzea ingurumena errestauratzeko edota horren egoera hobetzeko, delitua burutu duen entitatearen jarduerari buruzko inpaktu ebaluazio bat egitea egitea burutu duen pertsona berak edota publiko egitea ingurumen kalte horren gertaera. Azken honek aurrezaintzarako eraginkortasun garrantzitsua duela esan daiteke, bai berezia zein orokorra, azkenean presio publikoak eragin handiak sortzen ditu eta askoz ere irakurle gehiago izango ditu aldizkari edo egunkari batek, ingurumen agentzia baten urteroko informeak baino. Bestalde, ingurumenaren kalteak jasaten dituztenak ere ingurumen horiek konpontzerakoan nolabaiteko konpentsazioa jasotzen dute (White, 2013d).

Zigor zuzenbidearen arloari jarraituz Espainiar Konstituzioaren 125. artikuluan eta Prozedura Kriminalaren Legearen 101. artikuluan aitortzen den **herri akziorako eskubidea**. Hau aipatzea ere komenigarria da, ingurumen delituei aurre egiterako orduan. Izan ere, Espainiar estatuan herri akusazioa egikaritzea aukera berezi bat da, ez baita gure inguruko gainerako sistema prozesaletan existitzen posibilitate hau (de Luis, 2018).

Herri akziorako eskubideak, ingurumen delituak jazarri ahal izateko bide aproposa da, izan ere, ingurumen delituak kalte difusoak sortzen ditu eta askotan kaltetua zein den zehaztea zaila izango baita. Horrela, herri akzioa egikaritzeko legitimazioak ez du

galdatzen delituak ofenditua izatea, beraz, edozein herritar espainiarrek egikaritu dezake eta delitu hauen inpunitateari aurre egiteko tresna baliagarria da (de Luis, 2018).

Hau aipatu ondoren, ezinbestekoa da legediak betearazteaz arduratzen den administrazioaren gorputzaz hitz egitea: **Polizia**. Hauek legeek ezarritako ingurumen kaltearen kontzeptua jarraitzen dute ingurumena babesterako orduan, beraz, eremu mugatu baten barne jardungo dute. Erlatiboki poliziarentzat lan eremu berri bat da ingurumen kalteena, ingurumen delituen kudeaketan jarduten duten polizientzako ezezaguna da gaia oraindik, bai kolektiboki zein indibidualki (White, 2013d).

Nazioarteko krimenari dagokionez, prebentzio programak edo sistemak eraginkorrak izan daitezten, argi dago herrialdeen artean etengabeko informazio trukea eta koordinazio eraginkor bat beharrezkoa dela, baita, koordinatutako erantzunak sortu ahal izateko (White, 2013f).

Herrialde batzuetan ingurumenaren babeserako erregulazioak errespetatzen direla bermatzeko agenzia zehatzak sortu dituzte. Ingurumena babesteko agenziak (EPA<sup>2</sup>, ingelesezko akronimoengatik) hain zuzen ere, non, poliziek hauentzako laguntza osagarri bat burutzen duten (Adibidez, AEB eta Erresuma Batua). Bestalde, beste herrialde batzuetan polizia gorputzeko kide batzuk bereziki prestatuak dira ingurumen delituen kasuetan lan egiteko (Adibidez, Israel eta Herbehereak) (White, 2013d).

Ingurumen delituaren izaerak zehaztuko du gorpu polizialaren izaera eta zein entitatekin kooperazio eta koordinazioak burutuko diren. Beraz, aurretik aipatutako arazo eta ezaugarriengatik poliziaren eta monitorizazio agentzien arteko kooperazioa ezinbestekoa izango da (White, 2013d)

Poliziaren barne bi faktorek jokatuko dute paper nagusi bat ingurumen delituetan esfortzuak jartzeko erabakiak hartzerako orduan. Alde batetik gobernuak poliziaren barne lehentasunak ezartzerako orduan bere papera jokatuko du zein ingurumen delituen ikerketa egitea merezi duen eta zeintzuk ez iritiz, gobernuaren interesen arabera noski. Bestalde, poliziaren barne arduradunak direnak ere giza errekurtsioak nola sakabanatu eta antolatu erabaki beharko dute. Horretan, iritzi publikoak, komunikabideek, politikak eta poliziaren barneko dinamikak baldintzatuko dute. Azkenean, ingurumen delituen pertzepzioaren araberako izango da lehentasunen antolaketa (White, 2013d).

---

<sup>2</sup> Environmental Protection Authority.

Nazioarteko ingurumen delituetan INTERPOLeke ere badu bere tokia. Hauen lehentasunak hurrengoak dira: herrialdeen arteko mugetan garraiatzen diren hondakinak eta gertatzen diren isurketak, substantzia nuklear edo erradioaktiboen trafiko ilegala eta basa animali eta landareen trafiko ilegala (White, 2013d). Egun, lau lan-talde garrantzitsu ditu aktiboki ikerketa lanetan: baso eremuan, arrantzan, kutsaduraren eremuan eta beste bat basa-bizitzarentzat (INTERPOL, n.d.).

Lehen aipatu bezala, hainbat jurisdikzioetan ingurumen delituak kontrolatzeko ingurumena babesteko agentziak sortu dituzte. Orokorrean agentzia hauen eginkizunak hurrengoak dira (White, 2013d):

- Ingurumen delitugintza erregulatzea ingurumena babesteko legedien bitartez.
- Komunitateari ingurumenari buruzko hezkuntza eskaintzea.
- Ingurumenaren kalitatearen jarraipena eta ebaluazioak egitea.
- Ingurumena babesteko eta arazo hauei aurre egiteko entitate edo organo desberdinak koordinatzea, maila lokal, nazional eta nazioarteko mailan.

EBren barne horretarako Ingurumenaren Europar **Agentzia** (EEA<sup>3</sup>) daukagu, 1990ean sortu zen eta gaur egun 32 estatu-kidek osatzen dute. Agentzia honek ingurumenari buruzko informazio egonkor eta independentea eskaintzen du, europar hiritarrei zein gai honetan interesa daukan edozein organismori, baita ingurumena babesteko ezartzen diren neurrien aplikazioa ere ebaluatzen du. Bildutako informazioak Europan egiten diren ingurumen politikak gidatzeko helburua du (MITECO, N.d. d)

Argi dago, zigor zuzenbidea eta delituen jazarpenak ezin direla izan tresna bakarri ingurumen kalteen arazolari aurre egiteko, hau da, ez du zertan ez lehenengo ezta azken tresna izan behar baizik eta egoeraren ezaugarriak kontuan izanik tresna egokia dela irizterakoan soilik erabili beharko litzateke (White, 2013d).

Horregatik, autore batzuek **zuzenbide administratibo** edota **zibilaren** erabilera proposatzen dute ingurumen kalteei aurre egiteko eta ingurumena babesteko ezarritako legeak betearazteko, kriminalizazioa ordezkatuz. Esaterako, santzio mota desberdinak ezarriz (Hall, 2014) (White, 2013d).

---

<sup>3</sup> European Environment Agency



Erregulazioen arteko konbinazio hau, praktikan neurriak materializatzerakoan, piramide hierarkia moduko bat jarraitu ohi dute, “enforced self-regulation” moduko bat gauzatuz. Oinarrian persuasioa eragiten duten neurriak egongo lirateke eta puntan ondorio gogorrenak dituzten zigorrak. (White, 2013e).

Auto-erregulazio modura ezartzen diren neurriak hauek izan daitezke: antolatutako lankideen taldeak beste lankideen jarduera kontrolatzea, jarduera burutzeko arau eta estandarrak ezartzea... (White, 2013e).

Bestalde, Kontrola eta erregulazioa ezartzen duten neurrien adibideak hurrengoak dira: jarduerak burutzeko lizentzia eta baimenak behar izatea, ura eta lurraren erabileraren kontrola ezartzea, ingurumenean sortutako inpaktuaren ebaluazioak egitea... (White, 2013e).

### **BESTE ERREGULAZIO MOTAK**

International Monetary Fund (IMF), hainbat kolektibo ekologistek eta ekonomian adituek egiten duten proposamena ere interesgarria da: **zerga ekologikoen** erabilera, hau da, kutsadura sortzen duenak, horren erantzule gisa prezio bat ordaintzeko ardura izango du (Iberdrola, S.A., 2021). Horretarako, ingurumen administrazio baten beharra sortzen da, zerga hauek kobratu, baldintzak arautu, arau-haustea zigortu eta bildutako diru hori ingurumenean inbertituko duena (Jordano, 2003). Hain zuzen ere, IMF-k 2030erako negutegi efektuko gas gehien igortzen dituzten herrialdeek CO<sub>2</sub>-aren gaineko zerga bat ordaintzea proposatu du (Iberdrola, S.A., 2021).

Zerga hau baliagarria izango da, garapen iraunkor bat sustatzeko. Teorikoki energia berriztagarrien erabilpena sustatu, ingurumen kalteak burutzen dituzten jardueren motibazioak murriztu, enpresak haien iraunkortasuna egonkortzeko berrikuntzak bilatzea sustatu dezake eta azkenean, ingurumena babesteko dute zerga hauek. Gainera, jasotako dirua ingurumena babesteko proiektu berriak sortzeko erabil daiteke edota beste zerga batzuk murrizteko (Iberdrola, S.A., 2021) , horrela desberdintasun sozialak murrizten lagundu dezake.

Zerga honek eragin gehien sortuko du energiaren sektorean. Eurostat-en arabera, 2017an zerga hauetan jatorria duten EBeko diru sarreren %76,9a energiaren sektoretik baitzeterren (Iberdrola, S.A., 2021).

Hala ere, esan beharra dago pertsona juridikoek burututako delituak sozialki kalte gutxiago sortzen dituela sinesteko joera bat dagoela eta askotan hauen izaera juridikoak ere zailtasunak ekar ditzakeela erantzukizuna ezartzerako orduan, ondorioz, kutsadura sortzen duenak kalte horiek ordainduko ditu soilik erruduna dela frogatzea lortzen denean eta erantzule gisa kontsideratu daitekeenean (White, 2013d), jada aipatu dugu erantzukizuna ezartzeko hainbat zailtasun topatu daitezkeela.

Beste hitzetan esanda, erantzukizuna ezartzea posiblea da, baina, ikerketa prozesu egokiak erabiltzeko politikaren interesa eta konpromisoa beharrezkoa da horretarako, eta horrelako prozesuetan adituak diren profesionalak kontratatzea, egitateen katea berreraikitzen gai izan daitezen (White, 2013d).

Horretaz gain, produkzio energetikoaren, eraikuntzen, ibilgailuen, garraio eta nekazaritzaren sektoreak ere erregulatzea beharrezkoa da (Pajares, 2020).

## **BESTE BALIABIDE BATZUK**

Kriminologiaren interdiziplinaritatea kontuan izanik eta zenbat diziplina ezberdinek ekarpenak egin ditzaketen kriminologia berdearen inguruan, argi dago legea, ez dela egoera honi aurre egiteko tresna bakarra (Hall, 2014).

### **Gobernuz Kanpoko Erakundeak**

GKEk ingurumena babesteko burutzen dituzten jarduera eta eragiten duten partaidetza aintzat hartzekoa da. Haien zereginen artean interesgarria da “**lobby**”ari (*eragin politikoa*) buruz hitzegitea, hain zuzen ere, hauek gobernuak hartzen dituen erabakietan eragina izaten saiatzen dira jarduera desberdinak gauzatuz, bai mobilizazioak antolatuz, sinadurak bilduz eta abar. Modu horretan herritarren iritzia ezagutzera ematen saiatzen dira, erabaki politikoetan eragina izateko intentzioarekin.

GKEk antolatu ohi dituzten boluntariotzak ere baliagarriak dira ingurumenari eragindako kalteak ekiditeko, izan ere, honek ingurumena babesteko behar baten kontzientzia publikoa eragin dezake eta aldi berean, ingurumen babesaren komunitatearen arau gisa ezarri ahal izatea, gizabanakoaren jarrera eta jokaera aldatuz (White, 2013e). Horretaz gain, boluntariotza hauen bitartez edota GKEk bere kontura ingurumena kaltetzen duten jarduera ilegalak kontrolatzen ere paper garrantzitsua ere jokatzen dute, zonalde estrategikoen monitorizazioaren bitartez (White, 2013g).

Aurretik jada aipatu dugu herri akziorako eskubidea eta honetan ere GKEk, ekologistek batez ere, jokatzen duten papera ere garrantzitsua da, izan ere, hau da euren bidea ingurumen delituengatik zigor prozesuetan parte hartzeko, hain zuzen ere, pertsona fisiko zein juridikoei aitortzen baitzaie eskubide hau egikaritzeko legitimazioa eta ez da beharrezkoa izango delituak zuzenean kaltetuak izatea herri akzioa egikaritzeko (de Luis, 2018)

“**Environmental risk assessments**”, hau da, ingurumen kalteak sortzeko dagoen arriskua neurtzen duten ebaluazioa erabiltzea ere baliagarri izan daiteke aurrezaintza modura. Adibidez, Herbeheretan hau erabili izan dute ingurumen politikak diseinatzeko oinarri gisa 1990etik, AEBtan eta Erresuma Batuan ebaluazio mota hauek ere erabili ohi dira (Hall, 2014).

AEBtan ebaluazio hauek, ingurumenean dauden hainbat elementu kutsakorrek gizakiengan eta gizakiak ez diren izakiengan eragin ditzaketan osasun arriskuak ezaugarritzeko erabiltzen dira. Ondoren, arrisku hauek kudeatzeaz ardura daukatenean horren baitan erabakiak hartuko dituztelarik ingurumena eta gizakiak babesteko. Gaur egun ebaluazio hauek mekanismo modura erabiltzea ohikoa da (Hall, 2014).

### **Neurri Ekonomikoak**

Aurretik, kriminologia berdearen aurrekariak azaltzerakoan Rodríguez-ek (1981) adierazten zuen ekonomia eta ekologiaren arteko tentsioak ingurumen narriaduraren eragile nagusia dela. Izan ere, 40 urtetan zehar neoliberalismoan murgilduta egon gara eta honek korporazio multinazional handien nagusitasuna baimendu du, aldi berean, ekonomia eta politikaren arteko finantzak hazi dira, gobernuek ekonomia kontrolatzeko neurriak murriztu dituzte eta baliabide gehienak eremu pribatura eraman dira. Horrenbestez, **sistema-ekonomikoa** ez bada sakonki aldatzen, oso zaila izango da korporazio handiek duten boterea murriztea eta kudeaketa publikoa sustatzea, interes publikoak gailenduz.

Izan ere, gaur egun herrialde askok ingurumenaren babesa **garapen iraunkor** baten bitartez gauzaten saiatzen dira, hasieran ikusi dugun bezala, NBEak bere garapen iraunkorreko helburuak ezartzen ditu eta beste hainbat neurri ere garapen iraunkor bat lortzera bideratzen dute haien helburua. Baina, garapen iraunkorraren kontzeptuak sinesten du jarduera ekonomikoa ingurumenarekiko modu iraunkorrean garatu daitekeela eta ekonomia da garrantzitsuena kontzeptu honen barne. Baina, guztiz desberdina izango

litzateke, **iraunkortasun ekologikoari** jarraituz, ingurumena babesten saiatuko bagina, honek, produkzio, kontsumoa eta baliabideen trukea oso modu desberdinean gauzatzea ekarriko bailuke (White, 2013d)

Interesgarria da ingurumen arazoak kudeatzeko tresna berriak sortzerako garaian YOST-en metodologiari aipamen bat egitea. Izan ere honek, kudeatu beharreko arazoak zehazki identifikatzen saiatzen da, horretarako, 14 galderaz osatutako galdetegi bat eginez. Galderen artean hurrengo aurkitu ditzakegu: martxan jarritako ekintza aurrezaintzara bideratuta dago edo konpontzailea da? Kutsaduraren kontrolak dituen kostuak murrizten ditu? Beste gune batetara bidaltzen du kutsadura, kutsadura hori kontrolatu ordez? (Jordano, 2003).

Egia da, ez direla ohikoak ingurumen delituen inguruan prebentzio eta epaiketen inguruko ikerketa egitea (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017). Hala ere, azkenik, esku-hartze garrantzitsuena **aurrezaintza** eraginkor bat sortzea izango litzatekeela deritzot kalteak zuzenean saihesteko.

### **Aurrezaintza**

Aurretik aipatutako hainbat tresna ingurumen kalteak burutzeko prebentzioa egikaritzeko funtzioa daukatela esan daiteke, esate, baterako, zigorrak ezartzen dituzten neurriek, zerga ekonomikoek, eremu geografikoen monitorizazioak...

Baina, aipatu beharra dago ere, prebentzioa zuzenean egikaritzera bideratuta dauden neurriak. Esate baterako, galtzeko zorian dauden animalia eta landareen espezieak babesteko, eremu babestuak ezartzea izan daiteke neurri bat (White, 2013f), hau da, bertan burutuko diren jarduerak erregulatuz eta mugatuz.

Neurri hau eraginkorrago izan dadin, babestutako eremu horietan sortzen diren aldaketak, hobekuntzak, edo egoeraren okertzeak kontrolatu ahal izateko, hau da, ura, airea, lurra eta bertako espezien propietate desberdinak maiztasunez neurtzea zentzuduna izango litzateke ere (White, 2013f).

Bestalde, komunitateak ingurumen delituen aurrezaintzan jokatu dezakeen papera ere garrantzitsua izan daiteke, izan ere, gizabanakoen portaerak eta jarduerak prebentzio estrategietan barneratzea beharrezkoa da, hauen eraginkortasuna areagotu ahal izateko. Hau da, herritarrek gainerakoek portaerak kontrolatzea, ikuskatzea eta salatzea. Adibidez, autoritateari jakinaraztea ingurumenean aldaketak gertatu direla behatzean edota

arrantzale edo ehiztari furtiboak ikusterakoan. Noski, autoritateek komunitateko talde hauekiko sortzen duten harremana erabakigarria izan daiteke honen arrakastarako (White, 2013f).

Enpresa eta industrien jardueri dagokionez, hainbat tresna jada garatu dira, hauen jarduerak ingurumenean sor ditzaketen kalteak murriztu eta kontrolpean eduki ahal izateko, esate baterako, ingurumenean duten inpaktuaren ebaluazioak (EIA<sup>4</sup>), ingurumenaren kudeaketarako sistemak (EMS<sup>5</sup>) (White, 2013e), azken bi hauek azkeneko atalean gehiago garatuko dira.

Argi dago, garatu nahi den prebentzio sistema eraginkorra izateko, lehenengo saihestu nahi den kalte hori identifikatua izan behar dela, eta ondoren, kalte horiek sortzen dituen jardueraren alderdi desberdinak aztertu behar direla. Azterketa horrek kalte zehatza saihestera bideratuta dagoen esku-hartzea diseinatzea ahalbidetuko du horren eraginkortasuna handiagotuz (White, 2013f). Beste modu batetara esanda, prebentzio sistema edo neurri bat garatu nahi denean, prebenitu nahi den kalteari egokitu beharko da neurria, “one size fits all” ikuspegia baztertuz, izan ere, jarduera eta kalte bakoitzak erantzun desberdin bat behar izango baitu.

## **Hezkuntza**

Hezkuntza gizartearen sensibilizaziorako tresna gisa oso baliagarria izan daiteke. Azkenean, indibidualki eta kolektiboki burutzen ditugun jarduerak dituzten ondorio kaltegarriak ulertu ezker, jarduera horiek berriro burutzea eragotzi daiteke. Sensibilizazio eta kontzientziazio honek edozein eragileren jarrera aldatzeko baliagarria izan daiteke (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2018).

Zehatzagoa izanez, eskoletako ziklo desberdinetan tailerrak egitea sensibilizazio hau gaztetxoengan garatzeko eta horrela “ingurumen hezkuntza” bat sortu daiteke, (Jordano, 2003); belaunaldi batean, arazoaren garrantziaz ohartzea lortu ezker hurrengoek oinordetzan jasotzeko aukerak altuagoak dira eta aldaketa eraginkorrago izatea ere baliteke.

Hezkuntza aipatzerakoan ez dugu lehen eta bigarren hezkuntzako eskolak aintzat izan behar soilik, baizik eta, poliziek, enpresek, eta bestelako eragileek ingurumenaren

---

<sup>4</sup> Environmental Impact Assessment

<sup>5</sup> Environmental Management Systems

kudeaketarekin zerikusia izan dezakeen edozein ogibidetan “ingurumen hezkuntza” bat sustatzea ere posible da, hauek jasotzen duten formazioan ingurumenaren babesari eta kalteek eragiten dituzten arazoei buruz informazioa helaraziz.

Azkenik, ingurumen bitartekaritzaren erabilpena ere aipatzekoa da, hau, printzipio erreparatzailean edo konpontzailean oinarritzen da. Ebidentziek bitartekaritza mekanismoek ingurumen biktimentzat onura handiak ekar ditzakeela deritzo (Hall, 2014).

Justizia errestitutiboaren sentsibilizazio tresna gisa erabiltzea ere aberasgarria izan daiteke zenbait delituetarako. Horrelako topaketek, non biktimek eta eragileek elkarrizketa bat izan dezaketen eta bere antzeko egoeran topatzen diren eta beste aktoreekin bere esperientziak konpartitu ditzaketen, sentsibilizazioa bat ere eragin dezakete. Horrelako topaketek gainera etorkizunari begira aurrezaintza efektu indartsua izan dezake (Hall & Varona, 2018)

Ezin da atal hau amaitu aipatu gabe, neurri hauek guztiak erabilgarriak eta eraginkorrak izango direla batera indarrean jartzen direnean, elkar osagarriak baitira. Horrenbestez, indibidualki izan dezaketen inpaktua askoz ere txikiagoa izango delakoan, garrantzitsua da azpimarratzea hainbat neurri konbinatu ezkeren arazoari aurre egiteko eraginkorragoak izango direla.

Aldi berean, atal honetan zehar ikusi dugunez, era desberdinetako neurriek parte hartuko dute ingurumen kalteei aurre egiteko estrategietan bai eta honen aurrezaintzan, horregatik, zuzurra da ondorioztatzea, interdiziplinarioa (ingurumen zientzia, zein giza zientziak) den ikuspegi bat beharrezkoa dela arazo honi aurre egiteko, adituen arteko kolaborazio batean materializatuz. Diziplina batzuk aipatzearen, zuzenbidea, zoologia, filosofia, soziologia eta kimikaren arteko uztartze bat (White, 2013f).

## **7. INDUSTRIA eta ENPRESEN JARDUERAK SORTZEN DITUEN KALTEAK**

Azkeneko atal hau industriak eta enpresek burutzen dituzten ingurumen kalte eta delituak ezagutzera eta ulertzera bideratu nahi dut. Izan ere, atal orokorrean aipatu dugun bezala sektore honetako enpresa handienek duten botere ekonomikoa, batik bat, oztopo handi

bat delako ingurumen delituei aurre egiterako orduan bai eta kontuan izanik, sektore hau kutsadura gehien sortzen dituztenen artean aurkitzen dela (EEA, 2020a; Pajares, 2020).

Enpresa eta industriek sortzen duten kutsaduraren barne, hain zuzen, negutegiko efektuko gasen igorpena, isurketak, produktoreek erabiltzen dituzten gehiegizko ontzi eta plastikozko bilgarrien ondorioz sortzen diren gehiegizko hondakinak eta hauek kudeatzeko sistema desegoki batengatik sortzen diren ondorioei buruz ere hitzegingo da.

Hasieran aipatu dugunez, Rodriguez-en (1981) ideari ere jarraituz, ekonomia eta ekologiaren arteko tentsioa da ingurumen narriaduraren eragile nagusia, horrenbestez, industria eta enpresen jardueran fokua jartzea garrantzitsua irizten dut.

Gainera, frogatuta dago gizakiek igorritako negutegi efektuko gasak direla beroketa globalaren eta aldaketa klimatikoaren kausa bakarra (Pajares, 2020).


Arrazoi hauengatik, eta kontuan izanik kutsadura murrizteko aukera eta baliabide gehienak dituztenak sektore honetan aurkitzen direla (White, 2013d), garrantzitsua iruditzen zait fokua hauen jardueraren azterketan jartzea .

## **A. EZAUGARRIAK ANALITIKOKI**

Industria edota enpresen jarduerak ekonomikoki etekina ateratzearekin hertsiki lotuta daude eta jarduera hauek jarduera motaren arabera kalte desberdinak sortzen dituzte: negutegi efektuko gasen igorpena, produktu kimiko edo bestelako propietate kaltegarrien isurketak ur, itsaso, zein airean, material gordinen ustiapena, produktuak produzitzerakoan eratutako plastikoa eta honen kudeaketa arazoetatik eratortzen diren ondorioak.

Esan bezala, frogatuta dago, aldaketa klimatikoaren kausa bakarra gizakiak igorritako negutegiko efektuko gasak direla (Pajares, 2020). Ildo berean, EEAk 2020an egindako informean adierazten denaren aburuz, industria igorritako negutegiko efektuko gasen eta kutsagarri atmosferikoen erdiaren arduraduna da, bai eta ur zein lurtean elementu kutsakorrak isurtzearen, hondakinak sortzearen eta energia kontsumoarena ere (EEA, 2020a).

Hurrengo irudian ikusi dezakegun bezala, European (EU 27 + Erresuma Batua), 2018 urtean negutegi efektuko gasen igorle nagusien artean, energia hornitzaileak, garrario pribatua eta hirugarren postuan industria egongo litzateke. Hala ere, industria 2008 urtera arte 2. postuan zegoela ere nabarmentzekoa da (EEA, 2020b).

**Sektoreen araberako negutegi efektuko gasen igorpena EB-27 + Erresuma Batuan**

Iturria: EEA, 2020b.

Ildo berean, munduko 25 bat konpainia pribatu soilik (haien artean, Shell, ExxonMobil, BP, Chevron...) munduko negutegi efektuko gasen igorpenaren %50aren arduradunak dira (Pajares, 2020).

Horregatik, datu hauen jakinean egonda iruditzen zait garrantzitsua dela jarduera hauek eragiten dituzten ingurumen kalteak ekiditen esfortzuak jartzea, gainera, kontuan izanik aldaketa hau burutzeko botere gehien daukatenak gobernuek eta multinazionalak dauzkatala, bai ekonomikoki zein legeak aldatzerako orduan (White, 2013d). Horrela, botere hori interes publikoak eta ingurumena babesteko erabili ezker aldaketa handiak lortzea posible izango litzateke eta horregatik, hauen jarrera eta jarduerak aldatzeko aukeren inguruan egingo ditu gogoetak lan honen analisiak.

Esan beharra dago, nahiz eta enpresa eta industriak ingurumena kaltetzen duten eragile nagusiak izan, beste antolakunde batzuek, talde kriminalak edota gobernuko agentziak, nahiz gizabanakoak ere ingurumen delitu edo kalteak burutu ditzakegula (White, 2013d). Aurretik esan bezala, entitate hauen jarduera etekin ekonomikoarekin lotuta dago eta produkzioaren hedapena lortzeko helburuak “ecological disorganization” (*desantolaketa ekologikoa*) eragin dezake. Egoera hau ematen da, gizakiak energia modu antolatu batean



lortzeko aukera duenean, baina, ekosistema eta biosferen iraunkortasuna oztopatzen duenean (Long, Lynch, & Stretesky, 2020)

Nahiz eta haien arduraren jakinean egon, publikoak aipatutako kutsadurari buruzko ardurak adierazten dutenean, entitateen erantzunak edo erreakzioak hurrengoak izan ohi dira haien jardura nolabait justifikatzeko edota neurri eta ohitura berriak gauzatzea saihesteko: 1) Ondorioak ukatu, adibidez, klima aldaketaren existentzia ezeztatuz. 2) Kutsaduraren eta kalteen inguruan nahikorik ez dakigula aldarrikatuz, aldaketak atzeratu, hedapen eta garapenerako interesak gailenduz. 3) Lanpostuak sortzearen eta ingurumena kaltetzearen artean lehentasunak dudatan jarri. 4) Haien eragin kaltegarriengatik debekatutako produktuak, oraindik debekatuta ez dauden herrialdeetara esportatzea eta azkenik 5) Greenwashing-a (ondoren garatuko den kontzeptua da) hau da, ingurumenarekiko errespetagarria den jardura burutzen dutela helaraztea (White, 2013g).

## **B. MARKO JURIDIKO-NORMATIBOA ETA KONTROL MEKANISMOAK**

Industrien eta enpresen marko juridiko normatiboa azaldu baino lehenago, beharrezkoa da gogoraraztea atal orokorrean ingurumen zuzenbide eta erregulazioen inguruan aipatutakoa. Hain zuzen ere, garapen bidean dagoen zuzenbide bat dela kontuan hartu behar da, eta horrenbestez honen eremua zehazki definitzea zaila dela. Horregatik, maila geografiko desberdinetako (lokal, probintzia, autonomia, estatal eta maila erregional edo mundu maila) erregulazio guztiak aipatzea eta aintzat hartzea zaila da. Beraz atal honetan ere aipatutakoak ez dute marko osoa adierazteko helburua, baizik eta gaia garatzeko beharrezkoak direnen ideia transmititzea.

### **Europa**

Europa mailan, aipagarria da, Europear Komisioak sortutako “Eco-Management and Audit Scheme” (EMAS) ekimena. Antolakunde eta konpainiek beraien jarduerak ingurumenarekiko duen inpaktua ebaluatu, informatu eta errendimendua hobea izaten laguntzeko tresna da. Honetaz gain, erakundeen ingurumen inpaktua ezagutzera emateko tresna da, informazio publikoaren gardentasuna bermatzeko helburuarekin. Programan parte hartzen duten enpresek boluntarioki burutzen dituzte ebaluazioak bai eta inpaktua murrizteko proposatutako aldaketak (Comisión Europea, n.d. a). Beraz izaera boluntarioa dauka ekimen honek eta ezin da espero enpresa eta industria guztiek parte hartzea, ezta parte hartzen dutenek proposatutako aldaketa guztiak burutzea.

Azkenik, beste tresna bat **Ecolabel** ekimena izango litzateke enpresek eta konpainiek euren ingurumen inpaktua murriztea sustatzeko helburua duena. Etiketatzeko honen bitartez produktuen eta zerbitzuek ingurumenean duten inpaktua jakiteko aukera ematen du. Etiketa hau ingurumenarekin errespetagarriak diren produktu eta zerbitzuei ematen zaie, hau erabakitzeko, material gordinak lortu, produkzioa, garraioa eta hondakinen suntsiketa burutzeko era kontuan hartzen da. Etiketatzeko honekin, hondakin gutxiago sortzea eta produktuen manufakturaioan CO<sub>2</sub> gutxiago igortzea sustatu nahi da. Hirugarrengok burutzen dute parte hartzaileen kontrola (Comisión Europea, n.d. b)

## Espainia

Espainia mailan aipatzekoak dira:

- Marco Legislativo de la Prevención y el Control Integrado de la Contaminación (IPPC), 16/2002 legea.

Industrietara zuzenduta dago legea eta honen helburua, kutsadura saihestea eta hau posiblea ez denean, kutsadura murriztea eta kontrolpean edukitzea. Horretarako hainbat aurrezaintza eta kontrol mekanismo ezartzea aurreikusten du, kutsadura eremu batetik bestera transmititzea ekiditeko (MITECO, n.d. e).

Legedi honek “Autorización Ambiental Integrada” (*euskeraz, Ingurumen Baimen Integratua*) ezartzen du, ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak aurrera eramateko dauden baimen eta prozedura guztiak koordinatzea du helburu (MITECO, n.d. e).

Industriei hurrengo betebeharrak ezartzen dizkie: haien jarduera aurrera eramateko eskuragai dauden teknika hoberenak (MTD<sup>6</sup>) ezagutzea, horrela, ahalik eta igorpen txikien burutu dezaten; izapide administratiboak sinplifikatzea eta haien jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna bermatzea (MITECO, n.d. e).

- Ley de Residuos y Suelos Contaminados

Momentuz aurreproiektu bat da soilik, hala ere, onarpena 2021eko uztaileko aurreikusita dago. Lege honek aurreko 22/2011 legea ordezkatzeko du. Honen helburu nagusia, hondakinen kudeaketa egoki bat gauzatzea eta birziklapen maila altuagoak lortzea da (Cerrillo, 2021; MITECO, n.d. f).

---

<sup>6</sup> Mejor Tecnología Disponible

Lege honek Europarekiko konpromiso batzuk jasotzen ditu hondakinen birziklapen eta berrerabilpenerako hain zuzen. Gainera, betebeharrak ezarriko dizkio plastiko, ontzi eta gainerako hondakinen fabrikatzaileei, hondakin hauen kudeaketa-sistemari dagokionez ere ardura handiagoa ezarri. Are gehiago, kaleen garbiketaren kostuak ere ordaindu beharko dituzte, fabrikatutako produktuetatik eratorrita kalean agertzen diren hondakinak direla eta. Hala ere, ardura eta betebeharrak horien inguruan ez daude xedapen gehiegi (Cerrillo, 2021).

- Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legea

Baita, esanguratsua da aipatzea 21/2013 Legea Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa. Legearen helburuak ingurumenaren babes maximoa eskaintzea, prozedura administratiboak sinplifikatzea eta araudia homogeneizatzea dira. Plan, programa eta proiektuen ingurumen ebaluazioa, ingurumenaren babesarekin zerikusia izan dezaketen alderdi guztiak kontuan hartzean datza, proiektu horiek aurrera ateratzeko erabaki-prozeduretan aintzat har ditzaten. Prozedura hau baliagarria da administrazio afektatua eta interesdun publikoaren parte-hartzea bermatzeko, haien ingurumenari buruzko kezka eta ardurak ere aintzat har daitezkeen (MITECO, n.d. c).

Aurretik atal orokorrean aipatu ditugu ingurumena kaltetzen dituzten zein portaera mota dauden aurreikusita ZKan, baina, aipatzekoa da pertsona juridikoentzako zigorrak ere aurreikusten direla, izan ere, 328. artikuluan tipifikatuta dauden jarduerak burutzerakoan isun zigorrak eta kalte ekonomiko edo materialak edo etekinak jarduera kaltegarritik eratorterakoan horrekiko isun proportzionalak ere ezartzen dira (LO 10/1995).

Gainera, funtzionario edo autoritate publikoentzat ere artikulua bereziak bereizten dira (LO 10/1995). 329. artikuluan “**ingurumen prebarikazioa**” zigortzen da, hau da, autoritate edo funtzionario publikoek, lizentzia ez-zilegiak onartzen dituztenean, ZK aipatutako portaerak burutzen dituztenei, araudien urrapenak salatzen ez dituztenean edota derrigorrezko ikuskapenak saihestean (de Luis, 2018).

Gainera aipatzekoa da, Espainian hainbat sententziek kutsatzen duen entitatearen erantzukizun zibila baieztatu dutela, nahiz eta honek indarrean dauden arauak betetzen dituen eta baimen administratiboak izan (Jordano, 2003).

- Corporate compliance

*Corporate Compliance-en* derrigorrezkotasuna ezarri zen ZKan 2010. urtean egin zen erreformarekin batera. Sistema honek erakundeek topatu ditzaketen arrisku operatibo edota legalak identifikatzeko eta klasifikatzeko prozedura eta praktika onen multzo bat da. Horrela prebentzio, kontrol, kudeaketa eta erreakzio barne mekanismoak sortzen dituzte hauei aurre egin ahal izateko (World Compliance Association, n.d. ).

Prebenitu nahi diren arriskuak hurrengoak izan daitezke: erreputazio kalteak, isun eta santzioak, diru-laguntzak galtzea, besteak beste (World Compliance Association, n.d. ). Noski, entitatearen zuzendari edo goi-karguak zein langileek ingurumen delitu bat burutzea ere arrisku hauen barne egon daiteke (Górriz, 2019) eta horregatik garrantzitsua deritzot lan honen garapenerako *Corporate Compliance* honen deskribapena eta funtzionamendua azaltzea. Izan ere, horrelako programa bat erakunde batean martxan egoteak aringarri edota salbuesle gisa joka dezake delitu bat burutu ezker, eta hau ere eraginkorra izango da ingurumen delituak burutzen diren kasuetarako (Górriz, 2019).

Beraz, entitate batek bere jardueretan sor ditzakeen arriskuak identifikatu ahal izateko tresna nagusiak, arrisku mapa bat sortzea izango da, eta honen analisi eta ebaluazio bat egitea, “risk assesment” deiturikoa. Arriskuen analisi eta ebaluazio hau eraginkorra izan dadin modu periodiko batean egin beharko da, abian dagoen prebentzio programa etengabe eguneratu ahal izateko (Górriz, 2019).

Analisian konkretuki entitatearen zein ekintzek ingurumen delituak eragiteko arriskua sortzen duten identifikatu beharko da eta zeintzuk dira enpresak jarraitu beharreko betebeharrak ingurumenari dagokionez. Horrenbestez, ingurumen “criminal compliance” batek enpresaren jarduerak ingurumenean zein inpaktu duen zehaztu beharko du eta zeintzuk ZKko delitu bat egikaritu dezaketen (Górriz, 2019).

Arriskuen ebaluazioa burutzeko prozedurak hurrengoak izango ditu kontuan (Górriz, 2019):

- Enpresak zein sektoreren parte den zehaztu, ingurumenarentzako zein arrisku iturri kudeatzen dituen, jarduerak ingurumenean edota errekurtso naturaletan duten inpaktua.
- Ondoren, zein urrapen administratibo edo penal burutu daitezkeen jarduera hauetatik eratorrita
- Enpresak nola kontrola ditzakeen arrisku iturri bakoitza.

Hauek identifikatu ondoren, “risk mapping” (*arriskuen mapa*) bat osatu daiteke, non, jarduera bakoitzaren ondorioz sor daitekeen ZKaren urrapena irudikatzen den, horrela, arrisku guztiekin “ranking” bat osatuz. Hau garrantzitsua da, arrisku baxua duten kalteengatik ezin zaielako erantzule egin enpresei. Ondorioz, “Criminal Compliance” bat osatzeko ez da beharrezkoa ingurumena kaltetu dezakeen edozein arrisku identifikatzea, baizik eta soilik urrapen penal bat sortu dezaketenak, hau da, enpresaren kontrolpean egon beharko luketenak, horrela enpresaren jarduera zilegia izan dadin (Górriz, 2019).

Arriskuaren ebaluazioak gerora, arriskuak murrizteko estrategia bat gauzatzea baimenduko du (Górriz, 2019).

Górriz (2019) bere lanean azaltzen duen bezala, Espainiako ZKarentzat programa hauek “programas eficaces de prevención, en medio ambiente, a efectos de limitar la responsabilidad penal de aquellos entes, derivada del art. 328 CP” dira. Beraz, ZKak berak aurreikusten du aurrezaintzara bideratuta daudela, baina,aldi berean entitate hauen erantzukizun penala murriztera ere.

Azkenik, *Compliance* sistema honek Espainian duen funtzionamendua ulertzeko, pertsona juridikoen erantzukizun penala nolakoa den argitzea beharrezkoa da. Espainiako ordenamendu juridikoan, hain zuzen, ZKko 31 bis art.an ezartzen da pertsona juridikoen erantzukizuna penala.

Entitate hauen erantzukizuna, erantzukizun penalaren transferentzian oinarritzen da. Entitatea ordezkatzeko boterea duten pertsona fisikoek delitu bat burutzen dutenean, transferentzia hau gauzatzen da, erantzukizun penala pertsona juridikoari igorritz. Transferentzia hau ere gauzatzen da delitua burutu duen pertsona fisikoa langile bat denean, baina goi-kargua duten pertsonak beraien kontrol edo gainbegiratze eginkizunak bete ez dituztelako burutu denean delitua (Górriz, 2019).

Aipatutako kasuetan entitatea erantzule izan dadin pertsona fisikoak burututako ekintzaren eta entitatearen arteko lotura frogatu beharko da, hau da, ekintza entitatearen onurarako burutu dela frogatuz (Górriz, 2019).

*Corporate Compliance* bat martxan edukitzeak, entitatearentzat salbuesle edo aringarri gisa balio dezan, honen bitartez hartutako neurriak proportzionalak, egokiak eta nahikoak izan beharko dira delitua prebenitu ahal izateko edota delitua burutzeko arrisku maila asko murriztu beharko du (Górriz, 2019).

Beraz, horrelako programa bat edukitze hutsak ez du zuzenean ZK 31 bis 2 edo 4 art. (salbuesleak) aplikagarri egiten. Baizik eta baloratu egin beharko da ea enpresak ezarritako *compliance* programa eraginkorra den eta delitua burutu baino lehenago martxan zegoen edo ez. Eraginkorra baldin bada eta delitua burutu zen unean martxan baldin bazegoen orduan artikulua aplikagarri izango da (Górriz, 2019).

Espainian indarrean dauden marko juridiko eta kontrol mekanismoak azaldu ondoren, eta hurrengo atalarekin jarraitu baino lehenago, **Espainiaren ingurumen arloko egoera juridikoa** azaltzea ere emankorra iruditzen zait.

2020ean Espainia EBko ingurumen arau-hauste gehien zituen bigarren estatua zen (24 kasu irekirekin), Greziaren atzetik eta esan beharra dago bigarren postura jeitsi baino lehenago, hiru urtetan zehar lehenengo postuan egon dela (Bayón, 2020).

2002. urtean hasi ziren lehenengo aldiz honelako datuak biltzen eta geroztik Espainiak 1.329 arau-hauste metatu ditu, EBko herrialde batek izandako arau-hauste kopuru handiena izanik. Arau-hauste berrienak atmosferaren kutsadura mailarekin, zabortege ilegal eta habitat-en babesarekin zerikusia daukate (Bayón, 2020).

Susana Borràs, ingurumen zuzenbideko irakasle eta ikertzaileak dio:

*“Tenemos una tradición de incumplimientos bastante importante, pero no se puede atribuir a un único factor. En algunas ocasiones, se ha debido a la voluntad política o social, ya que en muchas ocasiones no se veía el medio ambiente como una prioridad, y en otras a la propia capacidad económica de las regiones para hacer frente a los retos ambientales”* (Bayón, 2020)

Espainiaren egoera eta ohitura hau aintzat hartzekoa da ingurumen delituei nola aurre egin aztertu nahi izan ezker.

### **C. KALTE HAUEI AURRE EGITEKO BALDINTZAK eta ZAILTASUNAK**

Hasteko, hasieran aipatu bezala, enpresa edota industriek duten **botere ekonomikoak** ingurumen delitu eta kalteetan jokatzen duten papera aintzat hartzekoa da. Hauek daukaten boterea haien interesak bermatzeko baliatu eta ingurumenaren babesa bermatzea aldi berean oztopatu egin ohi baitute, legeak euren interesetara moldatuaraziz (Hall & Varona, 2018).

Entitate hauek duten botereari jarraiki, **komunikabideen** gain ezartzen duten kontrola ere aipatzekoa da. Izan ere, komunikabideek paper garrantzitsua jokatzen dute entitate hauen mezuak helarazten dituztenean, honek burututako jarduerak gizartean zilegi gisa

irudikatzea eragin dezake, aintzat hartu gabe errealitatean jarduera hauek dituzten efektuak, bai eta erregulazioetan estatuak eta instituzio pribatuak jokatzen duten papera kontuan ez hartzea ere (White, 2013d).

Aurreko ideiarekin hertsiki lotuta dago, enpresek burutzen duten trikimailua: “*greenwashing*”-a. Enpresek sortzen duten kutsadura eta gaizki burutzen dituzten praktikak argitara irteten direnean, nolabaiteko marketina egiten dute haien irudia garbitu nahian, marketin horren edukian haien jarduera “ekologikoa” edo ingurumenaren babesa laguntzeko ahaleginak azaltzen dituzte, baina, errealitatean ingurumena kaltetzen duten jarduera estaltzeko estrategia besterik ez da. Beste modu batera esanda, arazoaren jatorriari amaiera jarri ordez (esaterako, plastikoaren produkzioa murriztea), azaleko konponbideak eskaintzen dituzte (adibidez, hondartzan garbiketak antolatzea) (Changing Markets Foundation, 2021).

Hauek *greenwashing*-a burutzeko erabiltzen dituzten teknikak hurrengoak izan daitezke: urtean zehar birziklatutako paperaren kantitatea adierazten duten informeak online argitaratzea, ingurumen institutu edo ingurumen sariak sortu edo hauetan parte hartu edo Munduko Ingurumenaren Eguna patrozinatu, baita haien iraunkortasuna neurtzeko balio duten estatistiken manipulazioa eman daiteke (White, 2013g).

Azaldutakoaren adibide esanguratsua da Changing Markets Fundazioak (2021) egindako txostena. Bertan, azaltzen da nola erakunde boteretsuek hondakinen kudeaketa-sistema aldatzeko edozein saiakera saihestu duten hainbat urtetan zehar, besteak beste, Ecoembes.

Entitate hau ontzien kudeaketa egokiaz arduratzen da eta plastikozko ontzien bilketaren monopolioa dauka Espainian. Enpresa honen negozio-sistema produktoreek bere ontzien pisuarengatik ordaintzen duten tasek baldintzatzen dute, hau da, zenbat eta ontzi gehiago merkatuan egon orduan eta irabazi gehiago izango ditu. Horrenbestez, birziklapena edo berrerabilpena areagotzea edota hondakinak murriztea bere diru-irabaziaz murriztuko lituzke. Gainera, Ecoembes-en erabakiak hartzeko goi-karguetan supermerkatu edota enpresa garrantzitsuak aurkitzen dira, haien artean, Coca-Cola, Alcampo... hauek aldi berean mundu mailako plastiko-kutsaduraren eragile nagusiak izanik. Are gehiago, enpresa hauek Ecoembes-ek kudeatu beharreko ontziak produzitzen dituzten bitartean, botere esanguratsua daukate erakundearen barne (Changing Markets Foundation, 2021).

Azpimarratzekoa da Ecoembes-ek rol bikoitz bat jokatzen duela, alde batetik, ingurumenaren defentsaren ikur gisa eta bestetik, lobby garrantzitsua burutzen duela bere

industriarentzat onuragarriak ez diren politiken aurka, adibidez, SDDR-a (Sistema de Depósito, Devolución y Retorno) ezartzearen aurka. Izan ere, sistema honek berrerabilpena sustatzen du, sortu beharreko ontzien kopurua ikaragarri murriztuz eta ondorioz Ecoembes-en irabaziak ere (Changing Markets Foundation, 2021):.

Besteak beste, hauek dira Ecoembes-ek burutzen dituen estrategiak legediak atzeratzeko (Changing Markets Foundation, 2021):

- Plastikobirziklapenaren inguruan datuak manipulatu. Adibidez: Kontratatuak dituen birziklapen enpresa batzuek hondakinak metatu, lurperatu eta modu irregularrean esportatzen ari dira Malaysia, Ghana eta Indonesiara, hala ere, hondakin hauek birziklatu gisa kontatzen ditu.
- Komunikabideetako datuak manipulatu.
- Kontsumitzaileak errudun bihurtu birziklapena modu egokian egiten ez jakiteagatik eta horrela birziklapen sistema aldatzeko beharra estaliz. Hau da, aurretik aipatu bezala ardura edo errua beste norbaiti igortzen diote.
- Ikerketa zientifikoengan eragin edota hauek zuzenean finantzatu beraiantzat kaltegarriak diren konponbideak deuseztatzeke.

Gainera batzuetan gobernuak jarduera ekonomikoekin elkarlotuta egoten dira (esaterako, onura ekonomikoak jasotzen dituztenean), eta horrek erregulazio garden eta egonkorrago garatzea oztokatzen du. Honen adibide da Tasmanian baso erauzketekin gertatutakoa. Estatuak interes ekonomiko bat zuen, izan ere “Forestry Tasmania” konpainiak estatuko basoetan burutzen ziren erauzketetatik eratortzen ziren irabazien zati bat jasotzen zuelako. Biek antzeko interes bat zeukatela ondorioztatu daiteke, hau da, basoetan burutzen diren erauzketak ahalbidetzea hauek mugatu ordez. Erregulazioan parte hartzen zuten kideen artean, bere lana modu egokian burutzen saiatzen ziren lankideak, hau da, arauak betearaziz, bere lanpostuetatik bota zituzten eta goi-mailako politikariek publikoki iraindu zituzten basoen erregulazioari buruzko foru publikoetan (White, 2013e). Horrenbestez, antzeko egoerek **administrazioaren aldetik interes falta** bat egotea eragin dezakete eta horrek oztokatu dezake delitu hauei aurre egin ahal izatea eta aldi berean erraztu ingurumen kalteak burutu ahal izatea (Brisman, Rodríguez, Mol, & South, 2017).



Erakunde hauek ingurumen delitu edo kalteak burutzen dituztenean, beste hainbat gertakarik ere, erregulazioak betearazteko eta jazartzeko Estatuaren gaitasun eta borondatean eragiten dute. Honen adibide dira, konpainiek estatua demandatzeko meatusak burutzea, edo hirugarrenen estatua “ospe komertziala” kritikatzeko; aditu independenteen kopuru eskasa, hau da, konpainiek batzuetan adituak erosi ohi dituzte haien onurarako ondorioak adieraz ditzaten (White, 2013d).

Beraz, argi ikus daiteke etekin ekonomikoak lehentasuna dutela kasu honetan ingurumenaren babesa bermatzearekin konparatuz, gainera, industrietan dinamika hau ohikoa da (Brisman & Wyatt, 2016).

Bestalde, aipatu beharra dago ere, egon badaudela ingurumenaren iraunkortasunarekin konpromisoa duten enpresa eta industriak, baina hainbatetan, ingurumen erregulazioa betetzeko zailtasunak izan ohi dituztela. Europako enpresetako 3.500 abokatuei egindako inkesta baten arabera, %50ak datorren urteetan erregulazioak betetzeko arazoak izango dituela aurreikusi dezake eta soilik %15ak baieztatu dezake ondo prestatuta dagoela ingurumen betekizunak betetzeko. Honi jarraiki aintzat hartzekoa da hurrengo datua, Grantham Ikerketa Institutuaren arabera, 90. Hamarkadaren amaieran ingurumenari buruzko 72 testu soilik zeuden mundu osoan, gaur egun (2019. urtean), 1.500 inguru dira. Horretaz gain, lanean zehar aipatu bezala, nazioarteko arauak, arau komunitarioak eta estatalak existitzen dira, gainera, denen jatorria ez da berdina, batzuk gobernuak, beste batzuk, organismo autonomikoek edo lokalek igortzen dituzte. Arau hauen sakabanaketaren ondorioz, indarrean dauden eta aplikagarri diren arauen gainean eguneratuta egotea erronka gogorra bihurtzen da (Cortés, 2019).

Beraz, herrialde edo eremu geografiko desberdinetan lan egiten duen enpresak jarduera berdina burutzeko arau desberdinetara moldatu beharko du. Ostera, legedi batzuetara moldatzeak produzitzeko modua guztiz aldatzea ekarri dezake edota jarduera batzuek bertan behera utzi behar izatea. Honek, enpresentzat kostu garrantzitsuak izan ditzake eta bere eginbeharrak betetzeko motibazioa ahuldu dezake (Cortés, 2019).

Horrenbestez, esan daiteke legeak eta arauak beharrezkoak direla erakundeek euren jarduerak burutzerakoan modu egokian egin ditzaten eta ingurumenaren babesa bermatu dezaten. Baina, aldi berean garrantzitsua ere izango da enpresek euren betebeharrak burutu ahal izateko, beharrezkoa izan ezker horretarako laguntza eskaintzea, horrela arauak betetzeko berme egonkorragoak egongo baitira.

Bestalde, zenbaitetan enpresek euren jarduerak mugen artean burutzen dituzte, eta honek aukera zabaltzen du ingurumen kalte edo delituak burutzeko inolako arau edo legerik urratu gabe. Hau da, herrialdeen arteko definizio legalen eta polizia gorputzen arteko desberdintasunek, enpresek beraien jatorriko herrialdean ez-zilegia dena, beste jurisdikzio batzuetan inolako arau edo legerik urratu gabe burutzea ahalbidetzen dute. Horrelako egoerak globalizazio prozesuek erraztu egiten dute (Hall, 2014).

Bestalde, delitu hauen **kriminalizazioari** helduz, ikerketa legal batek frogatu du ingurumen delituengatiko jazarpenei dagokionez, negozio edo enpresa txikiak direla estatuaren esku-hartzeak jasaten dituztenak. AEBtan, doloa errazagoa da frogatzea enpresa txiki edo “itxi” batean. Kontuan izanik ingurumena kontrolatzeko polizia agentziek baliabide urriak izan ditzaketela, zentzuduna da haien eskura dituzten errekurtsioak errazagoak diren eta kostu gutxien izango dituzten kasuetan kontzentratzea. Ordea, ingurumen arau-hauste kopuru handien arduradunak, batik bat, korporazio handiak, jazariak izateko probabilitate gutxien dituztenak dira, salbu aparteko kasuetan (White, 2013d).

Honen harira, delituak jazartzeko zailtasun teknikoek (adibidez, frogen onarpenerako arauak, delitugile bat baino gehiago egotea eta abar) eta giza-baliabide zein errekurtsio finantzieroez estatuaren tresna legalak mugatu egiten ditu (esaterako, polizia, Ingurumenaren Babeserako Agentziak eta Korporazioen bigilantzia sistemak). Honen ondorioz, delituen jazarpenera aparteko neurri bat izan ohi da, muturreko kasuetarako edota “garaipena” lortzeko aukera handiak dauden kasuetarako erreserbatzen dena. Gainera, korporazioek baliabide ekonomiko eta legal esanguratsuak dituzte, hauen aurkako delituen jazarpenera aurrera eramatea garestituz (White, 2013d)

Gainera, justizia-sistemak errazki gizabanako edo ingurumen talde bat baliabide ekonomikorik gabe utzi dezake prozesuarekin jarraitzea zailduz, baina, konpainia eta multinazionalentzat horrelako prozesuak euren garapenera duen kostuaren parte da. Beraz, esan daiteke, sistema legalak hauen mesedetan jokatzeko duela (White, 2013g).

Indarrean dauden erregulazio eta legeen **betearazpenaren** kalitatea betearazpenaren une desberdinetan topatu daitezkeen hainbat faktorek baldintzatuko dute (White, 2013d).

- Ingurumen kalteak detektatzeko probabilitateak, basozain eta itsasoa zaintzeko ardura dutenei emandako motibazioa, soldatak esaterako, edo berariaz dutena, eskura dituzten baliabide eta tresnak, ingurumen kalteak kontrolatzeko ardura

ezarri zaien langile kopurua eta lankideen ezagutza eta gaitasun teknikoaren araberakoak izango dira.

- Behin delitu edo kaltea detektatuta atxiloketak burutzeko probabilitateak, polizien soldata eta postuz igotzeko sarien estruktura, eskura dituzten baliabide, frogen kalitate eta gizarteak duen delituaren pertzepzioarekin korrelazioa izango du.
- Ondoren, delitua jazartzeko probabilitateak, fiskalen soldatak, justizia sistemaren eta bertako lankideen gaitasuna ingurumen delituak jazartzeko, burututako ekintza ez zilegia arau hauste penala edo zibila den, eta burutako delituarekiko gizartearen jarrera eta frogen kalitatearen araberakoa izango dira.
- Azkenik, kondenatzeko probabilitateak epaile eta magistratuek jasotako (ordain)sari, justizia-sistemaren gaitasun, delituaren izaera, gizarteak delituarekiko duen jarrera eta ebidentziaren kalitatearekin korrelazioa izango du.

Esan beharra dago, **estatuak** jarduerak erregulatzerako orduan rol formal eta betebeharrak duela herritarrekiko, hauek ingurumenaren aurkako kalte eta gehiegikeri larrienen aurka babesteko. Horrenbestez, estatuak legislazio zabal bat eta erregulazio prozedurak ezartzen ditu, estatuaren aldetik esku-hartze aktibo bat dagoela eta kalteak saihesten dituen legediaren existentzia adierazteko (White, 2013e).

Hala ere, nahiz eta ingurumen kalteen erregulazioak, arriskuen ebaluazio, gertakari konkretuen kudeaketa, zein kontsumo-jarduerarekin zerikusi izan, ezinbestean harremana izango dute kapitalismoaren handinahikeriarekin ere (White, 2013e).

Ingurumen delituak ekiditeko beste oztopo bat da, egungo sistemaren erreforma egiteko modua, lehentasuna ematen baitzaio inplizituki zein esplizituki, ingurumen kalteen murrizketari, arriskuen kudeaketaren bitartez eta ez ingurumen kalteak errotik ekiditeko ekimenei (White, 2013e).

Azkenik beste paradoxa bat azaltzea ere interesgarria izango da. Hain zuzen ere, zerbitzu konpainia batzuen artean kontraesanak gauzatzen dira, hauen jarduera modu egokiago batean burutzera behartzea zailtzen duenak. Honen adibide dira, munduko ur-enpresa handienak. Hauek hondakin gehien sortzen dituzten enpresen artean daude. Horrenbestez, ur garbia hornitzeko konpromisoa daukaten enpresek, aldi berean, ura kontaminatzeko probabilitate gehien duten konpainiak dira (White, 2013a). Horrela, gorpil moduko kate

bat sortzen da, eurek ura kontaminatzen duten enpresak izanik, baina aldi berean, ura garbitzeko ardua izanik, etengabe etekinak edukitzea ziurtatzen baitute.

#### **D. KALTEAK**

Kalteen deskribapena egiterako garaian industriak eta enpresek atmosferara igortzen dituzten negutegi efektuko gasak, ur eta lurrean burutzen dituzten isurketak eta sortzen diren gehiegizko ontzi eta hondakinak izango dira ardatza.

**Negutegi efektuko gasen igorpenari** dagokionez, ondorio esanguratsuenetarikoa aldaketa klimatikoa dela esan daiteke.

Atal orokorrean aipatutako sailkapenei erreferentzia eginez aldaketa klimatikoa epe luzerako efektuak izango dituen kaltea izango da, giza begiarentzat beha-ezina izan da urtetan zehar, baina, egun behagarria dela esan daiteke eta izango duen inpaktu soziala iraunkorra izango dela ere esan daiteke, orain azalduko diren ondorioengatik.

Aldaketa klimatikoak hurrengo efektu orokorrak izango ditu (Pajares, 2020):

- Uztak galtzea
- Antartiko eta Groenlandiaren urtzea. Honen ondorioz, itsasoaren maila igo egingo da eta horrek munduko 1.000.000 pertsona afektatuko lituzke, kostaldeetako biztanleen askoren migrazioa eraginez.
- Bero-olatuaren maiztasuna areagotzea
- Eremu geografikoaren arabera, muturreko euriteak eta jarduera ziklonikoa areagotzea edo lehorte eta basamortutzeak eragingo ditu
- Ekosistemetan espezie batzuen desagertzea
- Uharrien zurritze orokorra

Ikuspegi antropogenikotik, efektu horiek guztiek gizakiari horrela eragingo diote: energiaren erabilpena mugatu, giza osasunari eragin, goseteak eta ur geza murriztea (Pajares, 2020).

Gainera, NBen Ingurumenaren programak hurrengo adierazi zuen:

*“las consecuencias del cambio climático, en cuanto a disponibilidad del agua, seguridad alimentaria, prevalencia de enfermedades, límites costeros y redistribución de la población, agravará las tensiones*

*existentes, podrán generar nuevos conflictos y podrán ser una amenaza para la seguridad internacional” (Pajares, 2020).*

Aldaketa klimatikoarekin batera errefuxiatuekiko kontzeptu berri bat sortzen da, Pajares-ek (2020) bere lanean adierazten duen gisan: “**errefuxiatu klimatikoa**”. Kontzeptu honekin adierazi nahi da, badaudela pertsonak (partzialki bada ere), ingurumen narriaduraren ondorioz bere burua lekualdatzera behartuta ikusten dutenak. Esan beharra dago, pertsona hauek bere lekualdatzearen arrazoiak adierazterakoan ohikoa dela ingurumen narriadurari erreferentzia egin ordez, faktore sozioekonomikoei buruz hitzegitea eta horrenbestez, zaila izatea errefuxiatu klimatikoak identifikatzea. Baina kontuan hartu behar da ere, pobrezia eta langabezia neurri batean ingurumen narriaduraren ondorio direla (Bayón, 2020; White R., 2013f).

Negutegi efektuko gasen beste ondorio bat airearen kalitate txarra da. EEaren arabera Espainian 9.000 eta 10.000 heriotza goiztiar NO<sub>2</sub>-aren presentziari dagozkio (Bayón, 2020).

Konpainiek sortzen dituzten **gehiegizko ontzi eta hondakinei** dagokionez, EEA-ren arabera plastikoaren bizi-zikloaren une desberdinetan (erauzketa, produkzioa, erabilpena eta erabili ondoren) arabera kalte desberdinak topatu ditzakegu. Hauek dira eragiten diren kalteak une bakoitzaren arabera (EEA, 2021):

1. **Erauzketan:** negutegi efektuko gasak eta airea kutsatzen duten substantziak igorri eta petrolioaren erabilpenaren ondorioz, petrolio isurketak.
2. **Produkzioan:** negutegi efektuko gasak eta airea kutsatzen duten substantziak igorri.
3. **Erabilpenean:** substantzia toxikoenganako gizakiaren esposizioa.
4. **Erabili ondoren:** hondakinak ur-geza, lur eta itsasoetara isuri eta negutegi efektuko gasen igorpena hondakinen errausketa eta zabortegeien ondorioz.

Espainia, Europa mailan plastiko kontsumitzaileen artean laugarren postuan dago, izan ere, espainiar bakoitzak plastikozko 100 kg hondakin sortzen ditu. Gainera, itsas Mediterraneoko kutsaduraren 2. eragilerik handiena da (Changing Markets Foundation, 2021).

Azkenik, **isurketei** dagokionez, hauek sortzen dituzten kalteak identifikatzeko lehenengo isurketen jatorria eta hauen helmuga aintzat hartu beharko dira.

Isurketak industrian, nekazaritzan edota hiriguneetan (“ur beltzak”) izan dezakete jatorria, ondorioz, jarduera horietan erabiltzen diren substantzien edo askatzen diren hondakinen arabera kalteak desberdinak izango dira. Baita, hauek non askatzen diren kontuan izan behar da, itsasoa, lurra edo ur-gezetan (Hispagua, 2006).

Azkenean ur hauek ongi tratatuak ez izan ezkerro gaixotasunak eragin ditzakete ur hauek erabiltzen dituztenengan, bai gizakian zein beste edozein espezieetan, landare zein animaliangan (Hispagua, 2006).

Ikuspegi sozial batetik, industria edo enpresek burutzen dituzten ingurumen delituek, kalte ekonomikoak sortzen dituzte herrialde baten orden sozio-ekonomikoan eragiten dutenak. Baita, kalte ez-materialak ere. Hall eta Varona-k (2018) resaka edo espiral efektua deritzote fenomeno honi, hau da: domino efektu bat non kalteak jasaten dituztenak langile eta hiritarrak diren; ustelkeriaren boterea aregotu egiten duena, funtzionario publiko eta politikoak tartean daudenean; eta justiziaren zilegitasuna ahultzen duena, hiritarrei delitugile hauek ukiezinak direla pentsarazten dietelarik (Hall & Varona, 2018).

### **E. NOLA AURRE EGIN KALTE HAUEI**

Ingurumen kalteei aurre egitea esan nahi du, kutsadura, ingurumenaren narriadura, suntsiketa eta espezien galeran gehien eragiten duten entitate eta instituzioei aurre egitea (White, 2013g), batik bat, atal honen ardatz diren enpresa eta industriei.

Horrenbestez, atal orokorrean aipatu ditugun tresnez gain, enpresa eta industrien jarduerak ingurumenean duten inpaktua murriztu eta kontrolatzera konkretuki bideratuta dauden tresnak ere aipatu beharra dago.

#### **Zigor Zuzenbidea**

Jada esan dugunez, ZKan pertsona juridikoek ere ingurumen delituak burutzea aurreikusten da eta hauentzako bertan ezartzen diren zigorrak hurrengoak dira (ZK 328. art.) (LO 10/1995):

- a) 1-3 urte bitarteko isun zigorra edo sortutako kaltearen araberako isun proportzionala (bikoitza edo lauhoitza), burututako delituak 2 urte baino gehiagoko espetxe zigorra aurreikusita duenean.
- b) 6 hilabete - 2 urte bitarteko isun zigorra, edota sortutako kaltearekiko isun proportzionala (bikoitza edo hirukoitza), gainerako kasuetarako.

Zigor horietaz gain ZK 33. art.aren 7. atalean aurreikusten diren neurrien artean hurrengoak ere ezarri daitezke (LO 10/1995):

- b) Pertsona juridikoaren desegitea.
- c) Pertsona juridikoaren jarduera etetea, gehienez 5 urtez.
- d) Pertsona Juridikoaren lokal eta eraikinen itxiera, gehienez ere 5 urtez.
- e) Etorkizunean delitua burutu, erraztu edo estali duen jarduera burutzea debekatzea. Debeku hau behin-behinekoa edo behin-betikoa izan daiteke, behin-behinekoa izanez gero 15 urte baino gehiago ezingo du iraun.
- f) Diru-laguntza edo onura publikoak jasotzeko desgaikuntza, 15 urteko epea ezarri daiteke gehienez jota.
- g) Langileen eskubideak babesteko esku-hartze judiziala ere egikaritu daiteke, baina esku hartze horrek ezingo du 5 urte baino gehiago iraun.

Hori bai, neurri hauek ezartzeko ZK 66 bis artikuluan ezartzen diren galdakizunak hartu beharko dira kontuan (LO 10/1995):

- Delitu jardueraren edo horren efektuen jarraitasuna ekiditeko beharrezkoa izatea.
- Neurrien ondorio ekonomiko eta sozialak, bereziki langileengan izan ditzakeen ondorioak.
- Jarduera kontrolatzeko betebeharra zuen pertsona fisikoak, pertsona juridikoaren egituraren barne zein postu betetzen zuen.

Ikusi dezakegunez ZKan ezarritako zigorren arabera pertsona juridikoek delitu hauek burutzean delitu, ez hain larri gisa hartuko dira eta honek, delitu hauen jazarpenean ere oztopoak ezarri ditzake, geroago ikusiko dugun bezala.

Hala ere, Long, Lynch eta Stretesky-ren (2020) arabera, industria eta enpresei dagokionez hainbat ingurumen delitu ZKan barneratzeak ez du hauen produkzio joerak murriztu edo mugatuko, eta hauek eragin ditzaketen ingurumen kalteei dagokionez ere gutxi murriztuko ditu. Hain zuzen ere, ebidentzia enpirikoak legedi honen aplikazioak entitate hauen kutsadura murriztean eragin gutxi duela iradokitzen du.

Dena dela, onartu beharra dago ere gertatutako ingurumen hondamendia ezaguna egiten bada eta publikoak honen inguruko ardura sakona adierazi ezkerro, zigor zuzenbideak paper garrantzitsuagoa jokatu dezakeela. Izan ere, gizarteak hondamendia eragin duten arduradunei zuzenbide hau aplikagarri izateko presioa sortzea posible izango (Long, Lynch, & Streestky, 2020).

Kontuan hartzekoa da ere enpresak eta industriek burutzen dituzten ingurumen kalte eta delituak jazartzeko eta kontrolatzeko zailtasunak egon ohi direla, ingurumen delituak dituen ezaugarri propioengatik, hau da, askotan giza-begiarekin behagarriak ez diren ondorioak dituzten kasuetarako, esate baterako, lur, ur eta airearen kutsadura.

Honi aurre egiteko aproposa izan daiteke, ingurumen forentseen lana. Kutsadura hau saihestua izan daiteke, eremu, ibilbide eta korrante zehatzetan, maiztasunez datuak neurtu eta jasoz. Hau egiteko beharrezko izango da metodologia konkretuak erabiltzea, adibidez, analisi kimikoak, aurretiazko informeak aztertzea, airetik hartutako argazkiak... Horrela espazio eta denbora tarte konkretuetan substantzia kimikoen kontzentratzeko joera neurtu daiteke (White, 2013f). Azkenik, datu guztiak uztartuz eta konparatuz kaltearen jatorria aurkitzea posible izango litzateke edota kontrol hori egikaritzen delaren jakinean egonik, ingurumena kutsatzen duten portaerak ekidin daitezke.

### **Gobernuz Kanpoko Erakundeak**

**GKE**n jarduerari helduz, hauek ere aukerak sortu ditzakete enpresa eta industria konpainiekin lankidetzaz burutzeko, esaterako, haiek burutzen dituzten jardueren iraunkortasun hobetzeko. Adibidez, GKEk ikerketa eta kontserbazio lanetarako oinarria eskaini diezaiekete enpresei eta alderantziz, GKEk enpresek dituzten ezagutza eta gaitasunak negozioen sektorean ezagutu ditzakete GKEaren kudeaketa hobetzeko (White, 2013g), horrela elkartruke bat sortzen da, erakargarriagoa izan daitekeena.

Beste adibide interesgarria, izan daiteke proiektuak elkarrekin eratzea, prozesuaren bitartez konpainien sentsibilizazioa landu eta konpainien baloreetan aldaketak lortzeko aukera sortuz. Hala ere, mota honetako lankidetzaz aurrera eraman ahal izateko konfrontazio-harremanak ez edukitzea, hau da, elkarren aurkako oso ideia nabariak ez edukitzea, beharrezkoa da. Baita aintzat hartu beharko dute GKEk harreman hauek garatzerakoan onurak jaso eta aldi berean lankidetzaz burutzen duten konpainiekin nola kritikoak izan (White, 2013g). Izan ere, zuhurtzia handiz burutzeko betebeharra izan



beharko lukete, harreman horren helburu nagusia, ingurumen kalteak ekiditea, ez dadin usteldu.

### **Ekonomikoki**

Industria eta enpresen jarduera modu iraunkorrago batean garatu ahal izateko, batez ere, enpresa txikiei dagokionez, baliabide ekonomiko gutxiago izango dituztelakoan, finantziario tresnak eskaintzea eraginkorra izan daiteke, adibidez, gobernuak enpresen haien jarduera iraunkorrago bihurtzeko diru-laguntza “berdeak” ematea, bankuek diru-mailegu malguagoak ezartzea, interesak murriztuz... Hau lagungarria izan daiteke, adibidez, hondakin urak garbitzeko sistemak, sortutako kutsadura kontrolatzeko tresnak eta abar erosteko (White, 2013e).

Honetaz gain, gobernuak industrien eta enpresen ingurumen kalteak saihesteko zehazki egin ditzakeen ekintzak hurrengoak dira (Pajares, 2020): funtsezkoak diren sektoreak publiko bihurtzea, adibidez, sektore energetikoa, erregai fosilei diru-laguntzak emateari uztea eta sektore horretan inbertsioak egiteari utzi, karbonoari zerga progresibo bat ezarri eta gertuko kontsumo-produkzioa nabarmenki sustatu. Hori bai, ingurumen kalteak murrizteko konpromisoa maila geografiko guztietan beharrezkoa da, bai, lokal, estatal eta nazioarteko mailan.

Ingurumenarentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak burutu behar dituzten enpresei ekonomikoki ardura lotura bat ezartzea ere eraginkorra izan daiteke, hau da, fidantza moduko bat ordaindu behar izatea jarduera burutzeko baimena lortu ondoren, horrela, jarduera modu arduratsuago batean burutzeko ardura hartzeko probabilitate handiagoak egongo dira eta ondorioak kaltegarriak ez izateaz ziurtatuko direla aurreikusi daiteke. Izan ere, jarduerak ingurumenean kalteren bat sortu ezker, fidantza ez itzultzea izango litzateke ondorioa (White, 2013e). Ondoren, nire aburuz zilegiena diru hori jarduerak kaltetutakoa berreskuratu edo birgaitzeko erabiltzea izango litzateke, kaltearentzako konponbide bat bermatuz. Hala ere, esan beharra dago, kalte motaren arabera materialki konpontzerik posible ez izatea gerta daitekeela eta bermea ez dela osoa izango.

### **Aurrezaintza**

Hasieran aipatu dugun **Corporate Compliance**-n sistema kalte hauei aurre egiteko tresna egoki bat izan daiteke. Izan ere, sistema honek jarduerak modu egokian burutzen dituzten hala ez kontrolatzeko eraginkorra izan daiteke eta ZKan debekatuta dauden portaera eta jarduerak burutzea saihesten lagundu dezake. Alde batetik, sistemak aurrezaintzaren

funtzioa egikaritzen du, arriskuak detektatu eta hauek saihesteko mekanismoak identifikatuz eta bestalde, ez-zilegia den portaera bat burutu ezker erantzukizuna ezartzea ere erraztu dezake, kaltearen jatorria identifikatzea erraztu dezakeelako. Horrela, etorkizuneko kalteak ere modu eraginkorrago batean saihestu ahal izango dira.

Hasieran, aipatu dugunez programa hau martxan edukitzea egungo legediaren arabera derrigorrezkoa da (World Compliance Association, n.d.). Hala ere, programa hau martxan edukitzeak onurak ere ekartzen dizkiotenez entitate hauei, esate baterako, salbuesle edo aringarriak aplikagarri izatea prozesu penaletan (Górriz, 2019), hauek modu eraginkor batean burutzeko motibazio bat izan daiteke eta programa hauen eraginkortasuna areagotzean positiboki eragin dezake.

Enpresek auto-erregulazio modura burutu ditzaketan aurrezaintza neurriak edo ingurumena babesteko ekimenak hurrengoak dira: Ingurumenean eragindako Inpaktuaren Ebaluazioak (EIA<sup>7</sup>), Ingurumenaren Kudeaketarako Sistemak (EMS<sup>8</sup>) ezartzea (White, 2013e).

Hasteko ingurumen inpaktuko ebaluazioak 21/2013 Legearen arabera araututa daude Espainian, oinarrian EBko 2011/92/EU Direktiba izanik (Comisión Europea, n.d c).

EIAk ebaluazio prozedura bat ezartzen du ingurumenean efektu esanguratsu eta nabarmenak izango dituzten proiektu eta programa publiko zein pribatuentzako. Beraz, prozedura honek proiektuak aurrera eramateko baimena eman baino lehenago, ingurumenean eragingo diren ondorioak aintzat hartzea du helburu (Comisión Europea, n.d c). Azken helburua, proiektuek ingurumenean duten inpaktua murriztea, iraunkorragoak izatea eta garapen iraunkorra erraztea da (Comisión Europea, 2021).

Proiektu hauek ingurumenean efektu nabarmenak izango dituzten identifikatzeko, jardueraren izaera, tamaina eta kokalekua hartzen dira kontuan. Izaera honetako proiektuen adibideak hurrengoak izan daitezke: presak, errepideak, fabrikak, aireportuak, energia nuklearreko zentralak, trenbideak, materia arriskutsuak metatzeko zabortegeak... (Comisión Europea, 2021)

---

<sup>7</sup> Environmental Impact Assessment

<sup>8</sup> Environmental Management System

Laburki deskribatuz, honela burutuko litzateke ingurune inpaktuko ebaluazio bat (Comisión Europea, 2021):

1. Aurretiko egoera definitu: ingurumen inbentario bat gauzatu, flora, fauna eta dibertsitatearen ezaugarriak jasotzen dituen, eta zein jarduera mota egiten zen aurretik.
2. Ondoren, hori konparatu egiten da egungo egoerarekin
3. Identifikatu behar dira zein ingurumen inpaktu sortuko dituen jarduera berriak eta zein ezusteko gerta daitezkeen, arriskuak.
4. Gero inpaktu horien intentsitatea ebaluatu behar da: onargarriak diren hala ez.
5. Horren arabera inpaktu larri bat egon ezker, kalte horri aurre egiteko neurriekin zerrenda bat egikaritzen da, non, neurri prebentibo, zuzengarri eta konpentsatzaileak jasotzen diren
6. Sortutako inpaktua hain larria ez izan ezker, etorkizuneko inpaktu larriak saihesteko neurriak identifikatu beharko dira.

Prozedura honen beste helburu garrantzitsu bat, publikoarekin kontsultatzea da. Beraz, ebaluazioan jasotako informazio guztia eskuragarri izan beharko dute interesdun guztiek, denbora-tarte zentzudun batean, erabakia hartu baino lehen. Interesdunen artean hurrengoak topatu daitezke (Comisión Europea, 2021):

- Eskumendun ingurumen agintari eta autoritateak.
- Publikoa, hauei informazio modu egoki eta ulergarrian helarazi behar zaie, komunikabide elektronikoak barne hartuz.
- Proiektuak herrialde mugakideengan efektuak izateko probabilitateak izan ezker, beste herrialde-kideei ere helarazi beharko zaie informazioa.

Prozeduraren amaieran, kontsulta publikoaren emaitzak aztertu eta eskumendun agintariek erabaki bat hartuko dute prozeduran jasotako informazio guztian oinarrituta, horren ondorioz, proiektua aurrera eramatea baimendu, aldaketak egitea iradoki edo proiektua errefusatuko du (Comisión Europea , n.d c).

Ikusi daiteke legedi hau azkenean ingurumen inpaktua murriztera bideratuta dagoela, baina, ez guztiz ekiditera, gainera, hemen islatzen da, aurretik garatutako ideia, garapen

iraunkorrera bideratuta baitago, hau da, ekonomiaren hazkundera, eta ez iraunkortasun ekologikora.

Horretaz gain, kontuan izanik duela 35 urte jarri zela martxan legedi eta prozedura hau, zer gertatzen da data hori baino lehenago burututako proiektuekin? Horien ebaluazio ez da burutuko? Bertan ezarritako estandarrak betetzen ez badira, jarduera etetea edo tokiaren itxiera eskatu daiteke?

EMSei dagokionez, hauek ere ingurumenean eragindako inpaktua murriztera bideratuta egongo dira, baina, industria eta enpresak propio, sustatutako ekimenak izango dira. Ekimen hauek ingurumen ebaluazioak eta arrisku analisiak ere burutuko dituzte, euren jardueraren aktibitate nagusietan. Garrantzia eman ohi diote, lankideen arteko ingurumen kontzientziazioa sustatzeari, teknologia garbiak erabiltzeari eta birziklapen eta hondakin kateari (White, 2013e).

Horrelako kudeaketa sistema bat indarrean jartzea korporazioen zuzendariak ingurumen arazo eta kalteak modu egokiago batean kudeatzeko asmoa daukatela adieraz dezake. Gainera aintzat hartzen badugu konpainiek baliabide tekniko, finantziario eta antolaketa baliabide onenak eskuratzeko aukera gehien dutenak direla, komunitate edota gobernuekin alderatuz, neurri eraginkorra izan daitekeela ondorioztatu daiteke (White, 2013g).

Hala ere, hainbat oztopo topatu dira (White, 2013e):

- Sentsibilizazioa: hauek beharrezkoa ez izatearen ustea eta konponbide berriak barneratzeko borondaterik ez izatea.
- Kostuen pertzepzio okerra: hondakinak murriztearen onurak, irudi publikoaren hobekuntza eta isunak saihestea gutxietsi ohi da.
- EMS aurrera eramaterakoan ere hurrengo oztopoak topatzen dira: konplexutasunei uko egitea, baliabideekiko ardura, dirua, denbora, gaitasunak eta ezagutza murrizak, aplikazio desegokia edota mugatua.
- Lankideei dagokionez: gaitasun eta ezagutza faltak, kanpoko asistentzia jasotzea ukatzea eta ardurak eskuordetzeko asmorik ez izatea, kontrol zehatzago bat egikaritu ahal izateko.

## 8. GIPUZKOAKO EGUNGO EGOERAREN ANALISIA

### METODOLOGIA eta MUGAK

Gipuzkoan gaur egun ingurumen kalte eta delituen inguruan dagoen egoera ezagutzeko ikerketa honetan erabilitako metodologia kualitatiboa izan da, hala ere, informean oinarritutako datu kuantitatiboak ere aintzat hartu dira. Bi datu mota hauek uztartuz analisi zuhurrago bat egiteko aukera zabaltzen baita.

Lehendabizi, oinarri teorikoa osatu ahal izateko, literatura zientifikoaren berrikuspen bat egin da, kriminologia berdearen nondik norakoak ezagutu ahal izateko. Aldi berean, marko juridiko normatiboa zehaztea ere beharrezkoa izanik, ingurumenaren kudeaketa bai eta ingurumen delituen (zentzu hertsian) erregulazioa ere aztertu da, jorratutako gai konketuaren inguruan garrantzitsuenak direnak deskribatuz.

Azkenik, oinarri orokorra zehaztu ondoren, Gipuzkoako egoera ezagutzeko, hau da, zein eta zenbat ingurumen kalte edo delitu identifikatzen diren eremu geografiko horretan, zein baliabide ditugun egoera honi aurre egiteko, baita zein zailtasunei aurre egin behar zaion identifikatzen saiatzeko hainbat elkarrizketa burutu dira (begiratu Taula 1).

Taula 1

*Laginaren Ezaugarriak*

<b>Subjektuak</b>	<b>Lanpostua</b>
H1	Eguzki, talde ekologista: abokatua
H2	Surfrider: lobby, prentsako komunikazio eta enpresekiko harremanen arduraduna
H3	Surfrider: sare sozialetako komunikazio, boluntariorza, hezkuntza eta monitorizazioaren arduraduna
H4	X Udaletxeko Ingurumen Zinegotzia
H5	Guardia Zibila: Itsas Zerbitzuko Sarjentu Patroia, zerbitzuko nagusiaren funtzioak betetzen
H6	Guardia Zibila: Itsas Zerbitzuko ofizinarako langilea

---

**H7****Ertzaina: Ingurumen delituen sekzioko agentea**

---

Elkarrizketa gehienak bakarka egindako sakoneko elkarrizketak izan dira, baina, bi kasutan, Guardia Zibilaren Itsas Zerbitzuan eta Surfrider-ekin burututako elkarrizketetan talde fokalaren modalitatean burutu dira, bi elkarrizketatu batera izanik. Esan beharra dago, Eguzki kolektiboko kideekin burututako elkarrizketak ingurumen kalteen gaira hurbilpen gisa baliatu dela gehienbat, elkarrizketa egituratua ez baitzegoen eta une horretan ikerketaren norabidea definitu gabe zegoen ere. Gainera, Ertzainarekin burututako elkarrizketaren kasuan, elkarrizketaz gain, haien erantzunak ere idatziz jaso dira haiek burututako txosten batean.

Elkarrizketak burutzeko gidoi bat izan da oinarri, hainbat dimentsio aintzat hartu dituen: 1) Eragile bakoitzaren deskribapena, 2) Identifikatutako ingurumen arazo nagusienak 3) Arazoei aurre egiteko baliabideak eta zailtasunak eta 4) Konponbide posibleak. Hala ere, eragile bakoitza elkarrizketatzerako orduan, galdera batzuk egokitu behar izan dira (begiratu Eranskina 1).

Behin elkarrizketak burututa hauen edukia aztertu eta eragile bakoitzak identifikatutako ingurumen kalteak zerrendatu eta bakoitzak burutzen dituen eginkizunak bildu ditut. Ondoren, elkarrizketen analisirako oinarritzat teoriarik landutako baldintzak eta zailtasunak erabili dira.

### **Lan Planaren Kronograma**

1. Urtarrila-Maiatza bitarte: berrikuspen bibliografikoa, oinarri teorikoa eta ingurumen kalteei buruzko datu kuantitatiboak eskaini zitzaketen informeen bilaketa eta azterketa.
2. Urtarrila: elkarrizketak burutzeko eragile interesgarriak identifikatu eta lehenengo kontaktuak burutu.
  - Elkarrizketa Eguzki talde ekologistako zenbait kiderekin:
    - Urtarrilak 20 – X aktibista
    - Urtarrilak 28 – Abokatua
    - Urtarrilak 29 – Itsasoaren babeserako proiektu baten partaidea

- Urtarrilak 28 – Haritzalde Kolektibo ekologistako aktibistarekin kontaktatzen saiatu, erantzunik ez.
- Urtarrilak 28 – Irungo udaletxeko urbanismo eta ingurumeneko departamentuarekin kontaktatzen saiatu, erantzun barik.

3. Elkarrizketak burutu (otsaila-maiatza):

- Otsailak 23 – Surfrider-eko kideekin elkarrizketa
- Martxoak 5 – Ingurumen Zinegotziarekin elkarrizketa
- Maiatzak 6 – Guardia Zibilaren itsas-zerbitzuarekin elkarrizketa
- Maiatzak 13 – Ertzainaren ingurumen delituen sailarekin elkarrizketa

4. Bildutako informazio guztia uztartu, aztertu eta ondorioak atera.

Burututako ikerketak izan dituen mugei dagokionez, hasteko, aipatzekoa da ikasle gisa ikerketa bat burutzerako baliabide urriagoak izan ditudala eskura, hau da, erabilitako lagina esanguratsuagoa izateko baliabide nahikoak ez baintuen.

Esan beharra dago ere, ingurumen arazoak identifikatzerako orduan, batez ere kuantitatiboki kopuru fidagarri bat zehaztea zaila dela, honen inguruko erregulazio ugariarengatik eta honen kudeaketan parte hartzen duten eragile eta entitate ugariengatik. Baita ere, ingurumen arazoei aurre egiteko baliabideak deskribatzerako orduan, bereziki, GKEn, udaletxe eta gorputz polizialen zereginetan murgiltzen dela deskribapena, baina, administrazioaren, zein entitate pribatu edota gizabanakoek indibidualki ere, bere papera jokatu dezaketela ingurumen kalteen arazoari aurre egiterako orduan.

Gainera, hainbat entitaterekin kontaktatzen saiatu naiz, baina, erantzuna ez da beti positiboa izan edota besteetan, erantzun barik geratu naiz. Adibidez, URA, Aclima, IHOBerekin. Batez ere, industria eta enpresen jarduera sakonki aztertzea zaila izan da, horregatik lanaren helburu nagusietako bat burutu ezin izatea, posible da, enpresa eta industrien egoera osotasunean ezin baita islatu elkarrizketatutako eragileen baitan. Argi dago, honetarako arrazoi nagusietariko bat gai delikatuen inguruan, erakundeen irudi publikoa kaltetu dezakeen informazioa lortzea oso zaila dela.

Azkenean, kontuan hartzekoa da informazio iturriek eskainitako informazioarengatik baldintzatuak egongo direla ikerketa honen emaitzak.

**IKERKETAREN EMAITZAK****Ingurumen Arazoak**

Hasteko, hainbat txostenetatik jasotako datu kuantitatiboak eta elkarrizketetan oinarrituz Gipuzkoan ohikoak diren ingurumen kalteak eta horiek eragiten dituzten eragileak identifikatuko dira. Izan ere, hurrengo atalen garapenerako garrantzitsua baita jakitea zein ingurumen kalteri buruz konkretuki hitzegiten ari garen, ondoren, kalte hauei konkretuki aurre egiteko ditugun baliabideak eta aldi berean, topatu ditzakegun zailtasunak hobeto identifikatu eta erlazionatu ahal izateko.

Hasteko, datu kuantitatibo zehatzak kontuan hartzea garrantzizkoa dela iruditzen zait, horrenbestez, hurrengo taula aztertuko dugu, non 2011-2020 urteen bitarte Ertzainaren ingurumen sailak, ingurumen delituen inguruan burututako atestatuak azaltzen diren, ingurumen alorraren arabera sailkatuta:

Taula 2

*Ertzainak ezagututako ingurumen arau-hausteak Gipuzkoan*

INFRACCIONES PENALES MEDIOAMBIENTALES CONOCIDAS POR LA ERTZAINZA EN EL TERRITORIO DE GIPUZKOA										
AÑOS 2011 - 2020										
TIPO DE INFRACCIÓN	AÑO									
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
SOBRE LA ORDENACION DEL TERRITORIO Y EL URBANISMO	2	-	1	-	1	1	1	-	-	1
SOBRE EL PATRIMONIO HISTORICO	1	3	2	5	2	1	-	2	1	-
CONTRA LOS RECURSOS NATURALES Y EL MEDIO AMBIENTE	4	5	12	14	11	7	9	10	68	21
SOBRE LA PROTECCION DE LA FLORA Y FAUNA Y ANIMALES DOMÉSTICOS	14	17	9	27	18	23	22	14	20	18
INCENDIOS FORESTALES	1	1	1	1	3	6	1	-	11	3
<b>TOTAL</b>	<b>22</b>	<b>26</b>	<b>25</b>	<b>47</b>	<b>35</b>	<b>38</b>	<b>33</b>	<b>26</b>	<b>100</b>	<b>43</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzako segurtasun departamentuko estatistika saila

Beraz, bertako datuak interpretatzen saiatzeko, lehenengo kontuan izan behar da, atestatuak direla soilik, hau da, guztiak ez dira kondena batetara iritsi.

Hobeto esanda, taula honek ez du adierazten guztira zenbat ingurumen delitu burutu diren Gipuzkoan, baizik eta zenbat atestatu burutu dituen ertzainak. Izan ere, epaileak agindu baitezake beste polizia batek aurrera eramatea ikerketa, adibidez, Guardia Zibilaren SEPRONA, besteak beste. Hala ere, kontuan izanik printzipioz kasu penalarako eskumena Ertzainak duela gertatzen diren ingurumen kalteen gutxi gorabeherako errepresentazio gisa hartu daiteke, aipatutako xehetasunak kontuan hartuz.



Baita kontuan hartu behar da, ertzainaren ingurumen saila 2010. urtean sortu zela eta lehenengo urteetan ikerketarako baliabideak eta esperientzia are urriagoak zirela, horrenbestez, zentzua dauka ikertutako delituen kopurua areagotze progresibo bat jasan izana. Beraz, ingurumen delituak urtetik urtera areagotzearen interpretazio bat egiten saiatuz, baliteke atestatu gehiago burutu izana, baliabide gehiago daudelako bai eta geroz eta sentsibilizazio handiagoa dagoelako gizartean gaiaren inguruan, orduan, lehen ohiko gauza gisa pertzibitzen zen jarduera orain oker gisa pertzibitzea baliteke eta ingurumen kalteen salaketak aldi berean areagotu izana.

Euskal Herri mailan jarduera industrial garrantzitsuen ondorioz, aintzat hartzekoa da ere, airera igortzen den kutsadura:

### 2019ko sektoreen arabera negutegi efektuko gasen igorpena



Iturria: Ihobe & Eusko Jaurlaritzako garapen ekonomiko, iraunkortasun eta ingurumen departamentua, 2021

Ihobe eta Eusko Jaurlaritzak batera, EAEko ingurumenaren egoera ezagutzeko burututako informarean arabera, goiko irudian azaltzen den bezala, negutegi efektuko gasen igorpenaren lehen arduraduna garraioa izango litzateke eta bigarrena industria. Horrenbestez, aintzat hartzeko sektore bat dela ere azpimarratu daiteke informe honek jasotako datuak aintzat hartuz.

*“Otros problemas que pueden ser importantes dentro de la CAPV son los relacionados con las emisiones contaminantes a la atmósfera (debido a nuestro importante tejido industrial) y en menor medida los incendios forestales”. (H7)*

Datu hauek aztertu ondoren, elkarriketatik ondorioztatu daiteke, hurrengoak direla nagusiki Gipuzkoako eremu geografikoan burutzen diren ingurumen kalte edo delitu esanguratsuenak:

Guardia Zibilaren itsas zerbitzuak identifikatzen dituen ingurumen kalte nagusia **arrantza ilegala** da, hegaluzearen arrantza batez ere, isurketei dagokionez, oso gutxi egon ohi direla adierazi zuten:

*“Más lo que, pesca ilegal. Tuvimos un caso característico el año pasado con atún rojo en Hondarribia Vertidos como tales se producen muy pocos, y ninguno que llegue a delito. (...) Pero realmente lo más importante es la pesca ilegal, de bonito, o por encima del cupo que tienen permitido, se hacen campañas con el tema de la angula, cuando es la época, en alguna ocasión hemos cogido también gente cogiendo percebes mucho más de lo permitido. Más que nada la pesca.” (H5)*

Ertzainaren Ingurumen delituen sailan gehien nabarmentzen diren ingurumen delituak **isurketak** eta basoetako suteak, bai eta errekurtsio naturalen aurkako delituak izango lirateke:

*“... dos de las grandes tipologías existentes, a nivel de delito verde, los vertidos a ríos y los incendios forestales, son dos de los grandes delitos que ocurren tanto cuantitativamente y cualitativamente” (H7).*

*“Recursos naturales, esto es lo más habitual. Vertidos a tierra, agua marina, agua fluvial, aire, o sea... la contaminación atmosférica, super difícil de investigar” (H7).*

Nekazaritzatik sortzen diren gorotz kantitateak eta horien isurketa ez-zilegiak eta modu desegokian burututakoak, lurraren amonio maila igotzea eta paisaiaren narriadura larria eragiten du, izan ere, hondakin arriskutsua kontsideratzen da. Hondakin hauek isurtzeko bolumen eta eremu konkretuak ezarrita daude. Hondakin hauen arazoa larria da Gipuzkoa mailan:

*“Los purines es un problema en Gipuzkoa terrible. Pero terrible. Una pasada, por el alto contenido de amonio que tienen. Es una... Los purines lo que hacen es machacar el paisaje lo deja como un espacio... (...) Bueno para empezar, el purín, se puede utilizar como abono, es una mejor tecnología disponible, una MTD. Es decir, tú con permiso de diputación foral de Gipuzkoa, que es quien te concede ese permiso, puedes abonar un terreno con purín. Es un residuo peligroso, pero lo puedes hacer. Para eso tienes unos volúmenes y una superficie en la que lo puedes utilizar. Si lo que quieres hacer es desprenderte de miles de litros de purín, porque es un problemón, y lo lanzas donde quieras, lo que puedes ocasionar es un riesgo grave, resultado de que machacas toda la vegetación. (...) Pero machacas los hábitats. La vegetación, la flora, la fauna asociada, a esa vegetación y de los acuíferos, no nos olvidemos de lo que no se ve. El 96% del agua que tenemos está debajo del suelo, el 4% la vemos entonces, todo lo que cae y percola, todo lo que cae sobre la superficie y termina en la tierra se arrastra en los grandes océanos que tenemos de agua subterránea. Y eso es una contaminación de aguas clara.*

*Entonces, el problema de purines, las heces y la orina del ganado, que la gente se deshace de ello de una manera ilegal, es un grave problema en Gipuzkoa.” (H7)*

Hainbat adibide konkretu aipatzearen hurrengo kasu interesgarriak dira hurrengoak:

- Hondarribian, aisialdiko arrantzale batek, arraina zatikatua ekartzea lehorrera. Guztira 200 kg.
- Deban, Praileaitz kobazuloa, babestutako eremu natural bat da. Honen ondoan, harrobi bat eraiki zuten eta pixkanaka honen ingurunea estaltzen joan zen. Kasu honetan, ikerketa topografiko bat burutu zen eta bere lan eremua zeharkatu ez zuela ondorioztatu zen, beraz kasua artxibatu zen. Hala ere, kontuan izanik kobazuloa babestutako eremua zela eta harrobia honetatik 5 metrotako distantziara zegoela, ¿non dago eremuaren benetako babes? Paperean soilik?
- Asteasun nekazaritzan jatorria zuen “purín”-en isurketa.
- Babestutako hegaztien ehiza, Gipuzkoan orokorrean
- Jaizkibelgo parke naturalean zuhurtziagabekeria larriagatik sutea.

Zonalde geografiko bat aintzat hartzearen, Jaizkibel eta Bidasoaldeko ingurumenak dituen ezaugarri eta dimentsio ugariengatik, hau da, itsasoa, erreka, mendia, bai eta hainbat ingurumen eremu babestuta egoteak, bertan aztertutako eta ezagututako kasuak aipatzea interesgarria dela iruditzen zait:

Tabla 3

*Jaizkibel eta Bidasoaldeko ingurunean topatutako ingurumen arau-hausteak*

Año	Asunto
2010	EXTRACCIÓN DE AGUA DE ACUIFEROS TXINGUDI
2013	EXTRACCIÓN DE AGUA DEL ACUIFEROS DE JAIZKIBEL
2013	AFECCIÓN AL MEDIO AMBIENTE DE TUBERIAS DE AMIANTO EN IRÚN
2014	OPERATIVO POR TRÁFICO DE RAES EN GIPUZKOA
2014	VERTEDERO ZALDUNBORDA (HONDARRIBIA)
2015	VERTIDO DE ESCOMBROS EN UN PARCELA EN IRÚN
2015	VERTIDO CONTAMINANTE EN UN PABELLÓN DE IRÚN
2015	MALTRATO ANIMAL EN EL CIRCO ITALIANO EN HONDARRIBIA

2015	DAÑOS POR DESBROCE EN JAIZKIBEL
2017	TENENCIA ILEGAL/MALTRATO ANIMAL DE AVES RAPACES EN MERCADO MEDIEVAL DE IRÚN
2018	DAÑOS EN EL PALACIO DE URDANIBIA DE IRÚN
2018	PESCA FURTIVA DE MARISCO EN HONDARRIBIA
2019	CONTAMINACIÓN ACÚSTICA Y ATMOSFÉRICA EN LEZO
2020	CAPTACIÓN DE AGUAS ILEGAL EN URBANIZACIÓN EN HONDARRIBIA

Iturria: Eusko Jaurlaritzako segurtasun departamentuko estatistika saila (2021)

Beraz, Gipuzkoako ingurumen arazo eta kalteak orokorrean ezaugarritu ondoren, ondorioztatu liteke kalterik esanguratsuen burutzen dituzten eragileak jarduera industrialak eta nekazaritza industrialeko enpresak burutzen dituztela, hain zuzen ere, Gipuzkoako industrializazio maila aintza hartzeko baita:

*“...en la mayoría de las ocasiones los daños se producen a consecuencia de imprudencias de carácter grave. Por ello, en Euskadi un elevado volumen de delitos ambientales están íntimamente asociados a las industrias más contaminantes (papeleras, refinerías, fundiciones, conserveras...) y a los sectores ganadero y agrícola, que son susceptibles de generar problemas ambientales por uso de fitosanitarios, gestión de purines, uso ilegal del fuego, etc.” (H7)*

## **ARAZO HONI AURRE EGITEKO AZTERTUTAKO BALIABIDEAK**

Ingurumen kalteen arazoari aurre egiterako orduan ditugun baliabide desberdinen artean, Gipuzkoan GKEk, Udaletxeek eta gorputz polizialek, konkretuki Ertzaina eta Guardia Zibilaren itsas zerbitzuak jokutzen duten papera aztertuko da atal honetan.

### **GKE: Eguzki**

Eguzki antolakunde ekologista bat da, Euskadi mailan lan egiten duena, boluntarioz osatua dago bere osotasunean. Ingurumenaren gaien profesional edo aditua izatea ez da beharrezkoa kolektiboaren partaide izateko, baizik eta bakoitzak bere ezagutza eta gaitasunekin egin ditzakeen ekarpenetara irekita dago (Eguzki Talde Ekologista, n.d.).

Orokorrean, ingurumenaren babesaren alde burutzen dituzten ekimenak hurrengoak dira:

- Ingurumen kalte edo delitu baten berri izaterakoan edo hori ezagutzerakoan salatu, mediatikoki zein legalki.

- Ingurumen kalteen arazoan inguruan garrantzitsuak izan daitezkeen beste entitate batzuekin bildu haien aldarrikapenak adierazteko.

*“hace aproximadamente un mes nosotros tuvimos una reunión con el Fiscal X, para decirle que a ver si ponen de una vez un o una fiscal de medio ambiente que solo se dedique a medio ambiente y no también a violencia de género o se dedique a otro tipo de cosas, que sea proactiva, es decir, que realmente tenga un interés por su trabajo y que en un principio sea accesible” (H1)*

- Proposamenak egin Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Diputazioari... ingurumen naturalen babesa modu eraginkorragoan burutua izan dadin, eremu babestu berriak proposatu, erregulazioetan aldaketak barneratu edo erregulazio berriak ere. Adibidez, 2000 natura sarearen bitartez, Ulia-Jaizkibel bitarteko eremuaren babesa itsasora ere igarotzeko proposamena egin zuten.
- Mobilizazioak antolatu, ingurumen arazoak ikustarazteko eta politikoki hartutako erabakiekin desadostasuna adierazteko

### **GKE: Surfrider**

GKE honetan batez ere, lantzen dituzten gaiak hurrengoak dira: itsasoko hondakinak eta horren ondorioz hondakinen kudeaketa egokia bultzatzea, aldaketa klimatikoa, kostaldeko higadura eta garapena eta uraren kalitatea. Baina Gipuzkoan bereziki, hezkuntza eta monitorizazio alorrean jarduten da.

Ingurumen delitu eta kalteen aurrezaintza gisa eta ingurumena babesteko burutzen dituzten eginkizunak:

- Lobby:
  - o Hondakinei buruzko legedia eraginkorragoa izan dadin.
  - o Indarrean sartzean dagoen aldaketa klimatikoaren legeak Espainian petrolio estazio berriak eraikitze baimenak ematea ekiditea.

- Ingurumen kalteak salatu. Adibidez:

*“Eso es un trabajo que se hace, de hecho, hace poco salimos mucho en prensa porque denunciemos al gobierno español frente a la Comisión Europea por no cumplir los objetivos de reciclaje.” (H2)*

- Beste GKE eta talde ekologistekin aliantzak sortu: Greenpeace, Amigos de la tierra, Ecologistas en Acción, Retorna y Recero.

- Coastal Defenders: *“Entonces hay gente que denuncia alguna irregularidad, algún problema ambiental, y eso después se vota a nivel de Surfrider y si se aprueba, pues se utilizan medios para ir, digamos a apoyar esa denuncia. Que no tiene por qué ser una denuncia legal, puede ser mediática que haga que el proyecto se pare”* (H2)
- Enpresekin harremanak garatu: sentsibilizazioa burutu eta enpresaren iraunkortasuna hobetze aldera aholkuak eman.
- Boluntariotza taldeak: ingurumen kalteen ikuskaritza, hondartza, itsaso eta erreketan hondakinen bilketak antolatu eta hondakin horien monitorizazioa gauzatu, hau da, hauek ezaugarritu egiten dituzte eta gai konkretuen inguruko formazioak eskaintzen dizkiete.

*“Entonces, ahí ya nos une otra vez todo, porque el voluntariado, con la monitorización de lo que está pasando en el terreno, para poder incidir en la administración. Gracias a eso aquí en Gipuzkoa tenemos desde el 2016, tenemos un convenio con la Diputación de Gipuzkoa en la que trabajamos con colegios y en diferentes áreas. Bueno ahora mismo tenemos sumario en Mutriku y Donosti y vamos a extenderlo a un par de playas más, para hacer una monitorización.*

(...)

*Y luego compartimos los datos con la Diputación de Gipuzkoa, con MITECO y con la Agencia Europea de Medio Ambiente. Y entonces sabemos lo que está pasando, y gracias a eso, por ejemplo, este año sabemos que en Gipuzkoa dos de las playas que estamos haciendo con los colegios, las van a limpiar durante todo el año. Van a hacer limpieza a esas playas durante todo el año que antes las hacían solo en verano. Una de ellas la limpiaban en verano porque, es más, la de Mutriku, la gente iba allí diariamente, es decir había más uso”.* (H3)

- Ingurumen hezkuntza bai eskoletan, zein maila publikoan, hau da, publikoari orokorrean sare sozialen bitartez eta abar.

## **Udaletxeko Ingurumen Saila**

Elkarrizketatuarekin egindako elkarrizketaren ondorioz udaletxe batek ingurumenaren babesean jokatzeko duen papera eta horretarako dituen baliabideak ezagutu ahal izan nituen.

Ingurumen sailak orokorrean lantzen dituen alorrak, ingurumenaren babesa eta hobekuntza, kutsadura eta hiri barneko mugikortasuna dira:

*“Nik uste dut hori direla aurrekontuko funtzioak, arlo desberdinetakoak. Igual esango dizut, ingurumenaren babesa eta hobekuntza, beste bat da inguruetako zarata, argi eta atmosferako kutsadura, merkatuak, hornidura eta lonjak, beste bat da programak, beste arlo bat hiri*

*mugikortasuna eta ingurumenaren administrazio orokorra, hor daude soldatak etab. Hori beste arlo bat da. Hori da pixka bat, orokorrean dagona” (H4)*

Udaletxeak konkretuki burutzen dituen ekintza eta ekimenei dagokionez, aipatzekoa da, orain arte, 21 agendako ekintza plana burutu dela, bai helduekin zein eskoletan ere, hori izan da burututako lehen ekintza plana, alor honi dagokionez eta orain, 2. ekintza plana dago martxan: Agenda 20-30. Honen barne konkretuki burututako ekintzak hauek dira:

- PAES (Plan Activo de Energías Sostenibles - Energia Iraunkorreko Ekintza Plana)
- Aldaketa klimatikoaren aurkako plana egiteko aurrekontua onartu da, baina oraindik ez dago martxan. Enpresa bati enkargatuko diote planaren diseinua.
- Red Natura 2000 sarean barneratzea udalerriko hainbat eremu.
- PMUS-a (Plan Movilidad Urbana Sostenible) – GEA 21 enpresak burutua

**Sentsibilizazio kanpainei** dagokionez:

*“Sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu: azokaren inguruan, km0, bertako produktua, kalitatezko produktua, ekoizle eta udalaren arteko harreman horretan, ba bezeroei produktu on bat eskaintzeko eta jendea konturatzeko ze onurak ditun bertako azokan erosteak, gastatzea etab.” (H4)*

Horretaz gain, mugi zaitez kanpaina, auto pribatuak erabili ordez, oinez mugitzea eta garraio publikoaren erabilpena sustatzera bideratuta dagoena. Horrela, negutegi efektuko gasen igorpena murrizten laguntzen baita.

Aipatzekoa da ere beste erakunde batzuekin burutzen duten elkarkidetzak ingurumenaren alorrean:

- Aranzadirekin elkarlanean, landare inbaditzaileak kudeatzeko lankidetzak mendian.
- Ehiza elkarte bateko tiro zelaia dela eta, beruna mailaren kontrola egin erreketan Eusko Jaurlaritzarekin batera.
- Elkarte batekin lankidetzan katuen biztanleria kontrolatzeko.

- Litoral programa lanbiderekin batera, eskuz garbitzeko erreka, mendia... urtean behin edo bi urtetan behin.

Ingurumen kalte baten berri izandakoan eskuduna den agintaritzarekin harremanetan jartzen dira, ondoren autorea identifikatzen eta eragindako kalteak ikertzen saiatzeko:

*“Hori kontaktuan jartzen gera segituan udaltzaingoekin, URArekin... Azkenean, erreka eta kostasen eskumena beraiek dute. Hemen ditugu puertos, kostas, AENA, URA... Orduan isurketak daudenean URAn, beraiekin harremanetan jartzen gera, basozainekin, diputaziokoak, eta hor saiatzen gara bilatzen zer eragina egon den, zeinek izango dun ardura... Zorionez ez dago asko, baina gertatzen direnean saiatzen gara betetzen. Hor ere sentsibilizazio kanpainak egin beharko genituzke horretarako.” (H4)*

Beraz ikus daiteke, kontsumo arduratsu eta iraunkorra eta garapen iraunkorra sustatzera bideratuta dauden hainbat ekimen burutzen dituztela. Horretaz gain, elkarkidetza bat dago hainbat entitateekin ingurumenaren babesa bermatze aldera eta ingurumen infrakzioen batekin topatu ezker, burututako kaltearen arabera dagokion entitatearekin kontaktuan jartzen direla.

Aipatu beharra dago, udalerrri hau bai, itsaso, mendi, zein ibai eremu naturalez inguratua dagoela eta noski, udalerrriaren kokaleku geografikoaren arabera erabiliko diren eta eskura edukiko diren baliabideak aipatutakoengatik desberdinak izan daitezkeela.

### **Guardia Zibilaren Gipuzkoako Itsas Zerbitzua**

Zerbitzu hau martxan jarri zen 2017ko irailean, beraz, 4 urte daramate lanean eta horrenbestez, Gipuzkoako zerbitzua nahiko berria dela esan daiteke, izan ere, estatuan abian jarri den azken itsas zerbitzua da, aurretik Bilboko itsas zerbitzuak estaltzen baitzuen Gipuzkoako kostaldea.

Zerbitzu hau abian jartzeko interes nagusia, Frantziako poliziarekin koordinazioa eta elkarkidetza hobetzea izan zen:

*“... es muy importante porque además de estar cerca de la frontera, también coordinamos servicios con la gendarmería francesa, se hacen embarques conjuntos, embarques mixtos, para hacer inspecciones en las dos aguas, en las aguas transfronterizas. Entonces, a nivel nacional era muy importante tener aquí una unidad que pudiese coordinar y tener una buena relación con la policía francesa del mar.” (H6)*

Zerbitzu honen barne-egiturari dagokionez, nagusi 1, 6 patroiz, 17 mekaniko-marinel, lurreko mekaniko bat, (elkarrizketa burutzerako orduan postu hori hutsik zegoen) eta



beste 2 pertsona lan administratibo-burokratikoak bulegoan burutzeko. Beraz, guztira 27 pertsonak osatzen dute unitatea, hala ere, aipatu bezala, elkarrizketa burutzerako uanean ez zegoen guztiz osaturik.

Orokorrean itsasoko ingurumena babesteari dagokionez jorratzen dituzten gaiak isurketak, arrantza profesionala eta aisialdiko arrantza dira. Batez ere, funtzio prebentiboa burutzen dute arlo honetan:

*“Si al final nuestra labor es básicamente **preventiva**, a través de las inspecciones y de todo lo que hacemos y de la presencia en el mar es preventiva. Investigar delitos, delitos no investigamos, son los de SEPRONA, otras unidades las que se dedican a investigarlo. Lo nuestro es intentar, atajar el problema antes de que se produzca.” (H5)*

Errekurtso materialei dagokionez, 3 itsasontzi eta ontzi malguago bat daukate.

Zerbitzuaren barne, itsasoan burutzen diren jarduerak modu egokian eta ezarritako erregulazioak errespetatzen direla bermatzeko hurrengo ekintzak burutzen dituzte:

- Kostaldean patruilatu eta ikuskapenak burutu.
- Gorputzaren barne beste unitateekin eta administrazioko hainbat entitaterekin koordinatu eta kolaboratu.

*“Y luego también de lo más importante quizás es coordinarnos con otras administraciones para determinados servicios e incluso con otras unidades propias del cuerpo. (...)”*

*Si, con la **agencia del agua vasca** hemos tenido más de un contacto. También por el tema de los vertidos. Y si cuando hace poco les solicitamos que nos diesen todos los puntos de vertido autorizados que están en la costa de Gipuzkoa por el tema de la operación de 30 días en el mar). De vez en cuando se hacen campañas específicas de un determinado tema en este caso en los vertidos, y como ellos tienen toda la información... Nosotros ya teníamos toda la información porque lo hemos conseguido con el tiempo, puntos de vertido y tal, pero queríamos conseguirlo todo y actualizado perfectamente. Entonces, contactamos con ellos y ellos nos remitieron todos los que tenían para poder hacer un seguimiento mejor de esos puntos. Y luego, por ejemplo, también con los de **inspección de pesca**. Los inspectores de pesca del estado, pues periódicamente embarcan con nosotros. Como ellos no tienen embarcaciones, pues cuando quiere hacer inspecciones en el mar, tienen que... Hay un acuerdo con la Guardia Civil con Servicio marítimo a nivel estatal y coordinamos unos servicios para que embarquen con nosotros” (H5)*

Gainera, Mater, Pasaiako Itsasontzi museoarekin, sentsibilizazioaren inguruan elkarkidetza bat ere egon da. Elkarkidetza hau oso garrantzitsua iruditzen zait, izan ere, askotan GKEn lana administrazioaren aurka bideratuta dagoela islatzen dela dirudi, baina, hemen adibide argi bat daukagu hori ezeztatzen duena:

Administrazioaren aldetik, erregulazioa eta legediak aurrera ateratzean asmo handiagoak eta esfortzu handiagoak jar ditzaketela ere esan daiteke. Izan ere, legediak Aurrera ateratzeko moduak, legediaren ezaugarriak eta aintzat hartzen diren portaera desberdinak eragingo du ingurumen kalteei aurre egiterako orduan edukiko diren baliabideetan.

*“El estado no tiene capacidad para seguir todas las cosas ambientales, inspecciones... O sea, no tiene capacidad para seguir las y ver que estén bien. Entonces, ahí estamos muchas ONGs que dicen: aiba! Estoy mirando esto, y no veo por ningún lado un informe ambiental”. (H3)*

*“Yo diría poca ambición de la administración en general. No de ninguna en concreto, pero sí que es verdad, por ejemplo, cuando se transpone la ley, puedes acogerte a lo mínimo que te marca la Directiva*

*Europea. Y muchas veces es así al menos aquí en España. Entonces, en vez de proponer cosas que vayan un poquito más allá, si transpones en lo mínimo que pasa que siempre llegamos con mucho retraso.” (H2)*

Surfrider-en lantzen diren ingurumen kalteei dagokionez, arduradun nagusitzat jotzen dituzte industriak, hauek beraien jarduerak burutzerakoan modu egokian ez burutzeagatik, bai eta administrazioa lege eta erregulazioak garatzeari dagokionez :

*“Nosotros como enfoque general tenemos como enemigo a la industria porque... O sea, aquí está la administración que es la que tiene que regular que se puede hacer y que no, y penalizar si algo se está haciendo mal. La ciudadanía que en algunos casos tiene parte de la culpa porque no entiende que hay una problemática, pero que no es la única culpable. La industria que es la que muchas veces puede actuar bien o eludir los medios para que se actúe mal, es decir, producción de productos que no son reciclables.*

*(...) Entonces, muchas veces cuando hay una problemática así el eje es la mala praxis de la industria y la corresponsabilidad de la administración.” (H2)*

## **9. ONDORIOAK, PROPOSAMENAK ETA ETORKIZUNERAKO IKERKETA BIDEAK**

Kriminologiaren diziplinaren interesa ingurumen delitu eta kalteekiko nahiko berria da eta oraindik ez da diziplina honen eremua guztiz zehaztu, ezta, ingurumen delitu edo kalte kontzeptuak definitzerako orduan adostasun orokorrik lortu. Lan honetan kontzeptu honi dagokionez, delituaren kontzeptu legala bai eta legalki aurreikusita ez dauden ingurumen kalteak aintzat hartzen dira, ingurumenarentzat kaltegarriak diren portaerak ere aipatu ahal izateko nahiz eta kriminalizatuta ez egon.

Ingurumena, ekosistemak, espezien kontserbazioa babesteko, gizakiaren eta hauek kaltetu ditzaketen jardueren aktibitatea kontrolatzeko, zenbaitetan gizakiaren osasunean ere eragin dezaketenean, hainbat legedi, araudi, neurri eta ekimen burutu direla esan daiteke, maila geografiko desberdinetan hain zuzen. Hala ere, neurri eta legedi hauen multzoa ingurumenaren babesean eta ingurumen kalte eta delituak ekiditen eta saihesten guztiz eraginkorra izateko oraindik bide luzea geratzen da. Bestalde, aipatzekoa da ere lanean zehar aipatutako legedia eta araudien multzoak ez direla gaur egun indarrean dauden erregulazio guztiak, hau da, eremu hau are zabalagoa dela. Beraz, aipatutako araudi eta erregulazioak gaia garatzeko garrantzizkoak direnak hautatu dira.

Bestalde, ingurumen delituei aurre egitea zailtzen duten hainbat faktore daudela aipatu behar da: faktore ekonomiko, sozial, politiko, legal eta geografikoak, hain zuzen ere. Faktore hauek delitu hauen inguruan sortzen den zifra beltzaren jatorria dira eta biktimizazio lausoa eragiten dute. Faktore hauek aldi berean, ingurumenaren aurkako delituak eta kalteak burutzea erraztu egiten dute, autorea topatzeko eta ardura ezartzeko zailtasunek, besteak beste. Gainera azken honek ere delitua burutzeko motibazioa areagotu dezake.

Ikusi dugun bezala, ingurumen delitu eta kalteen arazoari aurre egiterako orduan mota ezberdinetako neurri eta ekimenek parte hartuko dute honen kudeaketan eta aurrezaintzan. Beraz, logikoa da ondorioztatzea ingurumen kalteen arazoari aurre egiteko ezinbestekoa dela talde interdiziplinarretan lan egitea.

Azkenean, industria eta enpresen jarduerak zentzu zabal batean, ingurumenean kalte gehien sortzen dituzten eragileen artean kokatu daitezke. Hori aintzat hartuta eta Gipuzkoaren industrializazio maila ere aintzat harturik, arlo horretan esfortzuak zentratzea garrantzizkoa izan da, hauek eragin ditzaketan kalte larriak ekidin eta murrizte aldera.

Alde batetik, Gipuzkoan identifikatutako ingurumen arazo nagusiak arrantza eta ehiza ilegala dira, hau da babestutako animaliei eragiten dietena, honen eragileak batez ere pertsona indibidualak izanik. Bestalde, isurketak dira ingurumen arazo esanguratsuak, bai ur, lur, itsaso zein airean eragile nagusia industria izanik (itsas-industria, nekazaritza edo bestelako industriak), kontuan hartzekoa da Gipuzkoa nahiko industrializatutako eremu bat dela eta azkenik suteak ere aipatzekoak dira. Esan beharra dago, Gipuzkoan ematen diren delitu eta kalteen datu kuantitatibo zehatz bat lortzea ez dela posible izan, ingurumenaren kudeaketan parte hartzen duten aktore ugariengatik, batez ere.

Ingurumen delituentzako ZKan aurreikusten diren zigorrak arinak oztopo bat dira delitua jazartzeko eta ikertzerako orduan, gainera ingurumen kalteak gutxiesten eragiten du. Oztopo honi aurre egiteko egokia izango litzateke, zigorrak astunagoak izatea aurrezaintza funtzioari dagokionez eraginkorragoak izan daitezen eta ingurumenarentzat kaltegarriak diren jarduerak burutzerakoan zigortua izateko “beldurra” handiagoa izan dadin. Gainera, zigorrak larriagoa ezartzeak ere, delitu hauek ikertzerako orduan, legalki baliabide gehiago eskuragarri izatea ahalbidetuko luke, Ertzainaren lanari dagokionez. Zigorren luzera edo izaera aldatu ordez, beste, konponbide bat ere izan daiteke,

ingurumen delituak baloratzerako orduan zigorraren larritasuna soilik ez hartzea kontuan, baizik eta ingurumenari eragindako kalteen larritasuna ere aintzat hartzea, horretarako eskala bat sortuz.

Horretaz gain, delituak jazartzerako orduan, hainbat zailtasun tekniko ere topatzen dira, autoreak identifikatzea, delitua ingurune natural batean burutu izanak eta horrek, delituaren eszenatokian eragin ditzakeen aldaketak, bai eta delituaren larritasunaren balorazioa.

Ingurumenaren kudeaketan, ingurumen delitu eta kalteen aurrezaintzan eta ikerketan rolen bat burutzen duten eragileen arteko lankidetzari dagokionez, Guardia Zibilaren Itsas Zerbitzuak gainerako administrazioentzako entitate eta eragileekin lankidetzak eta kooperazio on bat duela esan daiteke, bai eta giza zein baliabide-material egokiak dituztela. Hala ere, ezagutza eta gaitasun teknikoak hobetzea baliteke, nahiz eta onartu behar den beraien eginkizuna ikuskaritzatik haratago ez doala.

Ertzaintzaren gorputzari dagokionez, ingurumen delituen inguruan, entitate oso ugariekin lankidetzak burutzen dutela esan daiteke, beraz lankidetzak altu bat dagoela ere ondorioztatu daiteke. Urritasun teknikoak eta ezagutza faltak aurre egiteko baliabideak dituztela esan daiteke, adituei informeak egiteko eska diezaioketelako. Hala ere, plantilan agente gehiago egotea komenigarria izan daiteke, interdisciplinaritate handiagoa izateko eta ikerketak burutzeko giza-baliabide gehiago izateko. Azkenik, ingurumen delituen kontrola egikaritzeko gaitasun eta kudeaketa sistema moldagarri egoki bat dutela esan daiteke, gorputzaren barne lankidetzak bat burutzen delako, bai eta prebentzio modura ingurumen kalteak edo delituak ikuskatzeaz arduratzen diren patruilak dituztelako, nahiz eta ingurumen delituak ez izan daukaten ardura bakarra.

Beraz, Gipuzkoa mailan, elkarte eta entitate desberdinen arteko lankidetzak esanguratsua dela ondorioztatu daiteke. Lankidetzak horren eraginkortasuna baloratzea beste alor bat izango litzateke, etorkizunean ikertzeko interesgarria izan daitekeena.

Gainera, Gobernuaren funtzio legegileari dagokionez, ingurumen kalteen inguruan legedi eta erregulazio zehurrago eta eraginkorra bat lortzeko, legea osatzerako prozesuan gaian adituak direnen parte hartzea beharrezkoa izango da, honen eraginkortasun bermatu ahal izateko.

Ilido berean, ingurumena babesteko legedi eta erregulazio ugari daude, eta erregulazio honen fragmentazioak, legediaren ezagutza osotasunean bereganatzea asko zailtzen du

eta honek aldi berean, erregulazio hauen betearazpen egokia ere oztopatu dezake. Baina, aitortu beharra dago erregulazio honen harmonizazio batek ere, ingurumenaren babes erreal eta efektiboa oztopatzea ere balitekeela, izan ere, ingurumeneko eremu bakoitzak ezaugarri desberdinak ditu eta zentzu horretan ingurumena babesteko behar desberdinak izango ditu ere, horregatik, eremu bakoitzerako ñabardurak behar izatea zentzuduna da.

Enpresa eta industrien jarduerak ingurumenean sortzen dituzten kalteei dagokionez, haiek ingurumen inpaktuko ebaluazioak burutzeko eskatzen dutenean, ebaluazio horiek sesgatuta egon daitezke euren jardueraren mesedetan, haiek ordaintzen dutelako ebaluazioaren egikaritzea, gainera, euren botere ekonomikoa baliatzea ere baliteke erregulazioak euren mesedetan jokatu dezaten, hau batez ere, enpresa handien kasuan aintzat hartzekoa da.

Enpresek burutzen dituzten ingurumen kalteen jatorria identifikatu nahian, bi arrazoi nagusi topatu ditzakegu etekin ekonomikoak lortzea eta kasu erresidualagoetan sentsibilizazio falta bat egotea.

Beraz, industria eta enpresek merkatuan jartzen dituzten produktuen eta eskaintzen dituzten zerbitzuen jardueretan, ingurumenean kalteak ez eragiteko ardura bere gain hartu beharko lukete. Aldi berean administrazioak ere bere ardurak kontuan hartu behar ditu erregulazio eta legediak garatzerakoan hauen eraginkortasuna bermatze aldera gogoeta sakonagoak eginez.

Lan hau gidatu duten hipotesien erantzunari dagokionez, azpimarratu behar da, lortutako erantzuna zehatzagoa izateko, ikerketa sakonago bat egitea beharrezkoa dela eta lan honetan emandako erantzuna azalekoa izatea baliteke. Baina, lehenengo hipotesiari dagokionez, hau da, administrazioa ingurumen delituen inguruan duen interesari dagokionez, interes hau areagotzea beharrezkoa izan daiteke Gipuzkoan. Zehatzagoak izateko justizia administrazioaren aldetik, argi dago, ingurumen kalteen kontrola eta ikerketa eraginkorragoa izango zela ingurumen delituen inguruan soilik lan egiten duen fiskaltza bat egongo balitz, eta ez beste delitu mota batzuk ere aintzat hartu behar dituen. Bertatik ondorioztatu daiteke, administrazioaren interesa ahula dela, fiskal gehiago jartzeak gastu handiago eragingo duelako eta esfortzu horiek beste alor batetara bideratuta daudela esan. Aldi berean administrazio polizialaren barne, giza-baliabideen falta azpimarratzekoa da bai eta material gehiago izatea ere egokia izango zela. Botere legegileari dagokionez, gehiegi esaterik ez dago, soilik erregulazioen egoerak islatzen

duena, eta argi dago erregulazio egokiagoen beharra dagoela ingurumen kalteei aurre egiteko.

Bigarren hipotesiari dagokionez, hau da, enpresa eta industriek ingurumen kalteen inguruan duten ardura esanguratsuari dagokionez oso laburki erantzun daiteke ezin izan baita honekin harreman estua duten eragileekin elkarriketarik burutu, hala ere, aipatu behar da GKEn ardura batez ere industria eta enpresen jardueretara bideratuta dagoela. Hainbat txostenetako datu kuantitatiboetan ikusi dugunez, batez ere, negutegi efektuko gasen igorpenari dagokionez, honen eragile nagusienetarikoak direla ondorioztatu daiteke. Kontuan izanik gas hauek klima aldaketaren eragile nagusiak direla, beraz, ingurumen kalteak murrizterako orduan rol garrantzitsu bat betetzen dutela ondorioztatu daiteke.

Etorkizunerako proposamenak egite aldera garrantzitsua iruditzen zait elkarriketatutakoertzainaren ingurumen saileko agenteak burutzen duen gogoetari erreferentzia egitea:

*“En cuanto a las necesidades, son comunes al resto de las “Policías Verdes” y básicamente consistiría en que todas las instituciones implicadas (operadores jurídicos, responsables políticos, etc.) pusieran en verdadero valor la protección del medio ambiente, de la biodiversidad, etc., y que lo trataran como un objetivo prioritario en sus planes y programas. Y, en consecuencia, sería imprescindible dotar a las administraciones competentes y a la policía de todos los recursos humanos y materiales necesarios, para la prevención y represión de las conductas ilícitas. Además, este aspecto debería conjugarse con una legislación más comprensible (el marco normativo medioambiental es inabarcable) que permita una mejor tipificación delictiva y que llevase aparejado un importante incremento en las penas y multas, llevando a la práctica la máxima de que “quien contamina, paga”” (H7)*

Azpimarratu daiteke, hainbat ekimen burutu behar direla oraindik ingurumen kalteei modu eraginkorren aurre egin ahal izateko. Esaterako hurrengo proposamenak egitea interesgarria iruditzen zait.

Hasteko, ingurumen delituez arduratzeko eginkizuna daukan fiskala ingurumen delituez soilik arduratzea, izan ere, ingurumen delituen kontzeptuak jada oso eremu zabala barnehartzen du eta horretaz modu egokiago batean jardun ahal izateko beharrezkoak diren ezagutza guztiekin edo gehiagorekin jardutea ahalbidetuko luke horrek. Horretaz gain, fiskal horrek ingurumen delituen inguran formazio espezializatu bat jasotzea ere komenigarria izango litzateke.

Ildo berean, ZKan ingurumen delituen barne egindako sailkapenari dagokionez, ondare kulturalaren aurkako delituak beste kategoria baten barne egon beharko zirela edota

kategoria independente bat osatu beharko zutela iruditzen zait. Izan ere, ingurumen delituekin ez ditu ezaugarri gehiegirik partekatzen eta polizien, zein epaitegien lan egiteko eremua zabaldu egiten du, beharrezkoak diren ezagutzak eta baliabide teknikoak berreskuratzea oraindik zailagoa bihurtuz.

Beste alternatiba interesgarri bat ere iruditzen zait, Euskadi mailan Ingurumen Agentzia bat sortzea, ingurumenaren arau hauste penal, zein administratiboei buruz arduratuko dena, eta hauen kontrola egikaritzeaz ere. Hau da, ingurumen kalte, delitu eta arau-haustean espezializatua egongo den entitate bat sortzea, administrazioaren gainerako eragileek dituzten hutsuneak gainditzeko asmoz. Horretarako, ikerketa sakonagoa bat beharko litzateke hutsune horiek zeintzuk diren identifikatzeko eta agentzia funtzionamendua eraginkorra izan dadin, honen diseinua burutzeko beste ikerketa bat ere burutzea beharrezkoa izango litzateke. Honen ondorioz, ertzainaren ingurumen sailaren funtzioetako bat entitate hau laguntzea izango litzateke, eta bi hauen arteko lankidetzaren oso garrantzitsua izango litzateke.

Ingurumen delitu eta arau-hausteen autoreak identifikatzeko arazoari dagokionez, zailtasun hori gainditzera bideratuta dagoen ikerketa bat burutzea interesgarria izango litzateke, tresna edo baliabide sistematiko bat sortu zailtasun hau topatzen den kasuetarako, hau da, kasu bakoitzaren ezaugarri konkretuak aintzat hartuz eta ekintza katea berreraikitze metodo eraginkor bat sortzea ahalbidetzea.

Legegileak ingurumenari buruzko legeak burutzerakoan, ingurumenari buruzko gai konkretuan adituak direnak, hau da, negutegi efektuko gasen igorpenari buruzkoa baldin bada erregulazio, horri buruzko adituek parte hartzea. Beraien ezagutza juristen ezagutzarekin uztartuz legedi zehurrago eta eraginkorragoak sortzeko aukera handiagoa izango da.

Azkenik, aipatu dugunez ingurumen erregulazioaren sakabanaketak zailtasunak eragiten ditu, bai hauek betearazteko unean zein hauek bete behar dituztenentzat ere, eguneratuta egotea oso zaila delako. Ildo horretan, enpresak eta industriek euren jardura era jasangarriagoan burutu dezaten hauek legedi eta erregulazioekin eguneratuta egoteko eta hauek betetzeko orduan dituzten zailtasunak aztertzea interesgarria iruditzen zait. Ondoren, zailtasun hauei nola aurre egin ikertzeko. Hau garrantzitsua iruditzen zait, lan osoan zehar aipatu dugunez ingurumen kalteen eragile nagusienetarikoa baitira enpresa



eta industriak eta bertan aldaketak eragitea oso eraginkorra izan daiteke ingurumen kaltea murrizteko helburua betetzeko.

## 10. Bibliografía

- Armentia, I. (16 de 2 de 2021). La diputación abre un expediente al guarda que denunció irregularidades en las saciones de caza. *SER*.
- Bayón, P. (29 de 02 de 2020). *RTVE*. Obtenido de España, segundo país con más infracciones ambientales abiertas de la Unión Europea: <https://www.rtve.es/noticias/20200229/espana-segundo-pais-mas-infracciones-ambientales-abiertas-union-europea/2003298.shtml>
- Brisman, A., & Wyatt, T. (2016). The role of Denial in the 'Theft of nature': Comparing Biopiracy and Climate Change. *Critical Criminology*, 325-341.  
doi:10.1007/s10612-016-9344-5
- Brisman, A., Rodríguez, D., Mol, H., & South, N. (2017). Una Introducción a la Criminología Verde: Raíces, Teoría, Métodos y Temas de Estudio. En A. Brisman, D. Rodríguez, H. Mol, & N. South, *Introducción a la Criminología Verde: conceptos para nuevos horizontes y diálogos ambientales*. (págs. 1-28).
- Cerrillo, A. (17 de 03 de 2021). España implantará una tasa de residuos domésticos para cumplir las exigencias europeas. *La Vanguardia*.
- Changing Markets Foundation. (2021). *Más Residuos Más Beneficio: quién sale ganando con la crisis del plástico en España*. Changing Markets Foundation.
- Código Penal [CP]. Ley Orgánica 10/1995. Artículos 325-340. 23 de noviembre de 1995 (España)
- Comisión Europea - Medio Ambiente. (14 de 10 de 2015). *Las zonas protegidas de la UE - Natura 2000*. Obtenido de [https://ec.europa.eu/environment/basics/natural-capital/natura2000/index\\_es.htm](https://ec.europa.eu/environment/basics/natural-capital/natura2000/index_es.htm)
- Comisión Europea. (2020). *Web Oficial de la Unión Europea*. Obtenido de Delitos contra el medio ambiente – mejorar las normas de la UE en materia de protección del medio ambiente a través del Derecho penal: <https://ec.europa.eu/info/law/better-regulation/have-your-say/initiatives/12779->
- Comisión Europea. (n.d. a). *European Commission*. Obtenido de Eco-Management and Audit Scheme: [https://ec.europa.eu/environment/emas/index\\_en.htm](https://ec.europa.eu/environment/emas/index_en.htm)

Comisión Europea. (n.d. b). *European Commission*. Obtenido de Ecolabel:

<https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/>

Comisión Europea . (n.d c). *European Commission* . Obtenido de Environmetal

Assessment: [https://ec.europa.eu/environment/eia/index\\_en.htm](https://ec.europa.eu/environment/eia/index_en.htm)

Comisión Europea. (2021). *35 years of EU Environmental Impact Assessment*.

Cortés, I. (17 de 09 de 2019). Las empresas se desesperan por la dificultad de cumplir todas las leyes medioambientales. *El País*.

de Luis, E. (2018). El Derecho al Medio Ambiente en la Justicia Penal [Tesis Doctoral].  
Universitat de Valencia.

del Val, A. (2009). El problema de los residuos en la sociedad del bienestar. *Boletín CF + S 50. La inercia agota su camino*, 29-38.

Directiva 2008/99/CE del Parlamento Europeo y del Consejo relativa a la protección del medio ambiente mediante el Derecho Penal. Artículo 3. 19 de noviembre de 2008.

EEA. (2020a). *Señales de la AEMA 2020. Hacia una contaminación cero en Europa*.

Obtenido de <https://www.eea.europa.eu/es/publications/senales-de-la-aema-2020>

EEA. (2020b). *Trends and drivers of EU greenhouse gas emissions*. Obtenido de

<https://www.eea.europa.eu/publications/trends-and-drivers-of-eu-ghg>

EEA. (27 de 04 de 2021). *European Environment Agency*. Obtenido de Environmental

Impact: <https://www.eea.europa.eu/media/infographics/environmental-impacts/view>

Eguzki Talde Ekologista. (n.d.). *Eguzki*. Obtenido de ¿Quiénes somos? :

<http://eguzki.org/es/quienes-somos/>

Giménez, T. (2017). *La descosificación de los animales (II)*. Obtenido de

[https://ddd.uab.cat/pub/da/da\\_a2017v8n3/da\\_a2017v8n3a1iSPA.pdf](https://ddd.uab.cat/pub/da/da_a2017v8n3/da_a2017v8n3a1iSPA.pdf)

González-Vaqué, L. (2006). La responsabilidad medio ambiental en la Unión Europea: la Directiva 2004/35/CE. *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, 1-11.

Obtenido de

[https://www.researchgate.net/publication/28106797\\_La\\_responsabilidad\\_medio\\_ambiental\\_en\\_la\\_Union\\_Europea\\_la\\_Directiva\\_200435CE](https://www.researchgate.net/publication/28106797_La_responsabilidad_medio_ambiental_en_la_Union_Europea_la_Directiva_200435CE)

- Górriz, E. (2019). Criminal compliance ambiental y responsabilidad de las personas jurídicas a la luz de la LO 1/2015 de 30 de marzo. *Revista para el análisis del Derecho*, 1-65. Obtenido de <https://indret.com/wp-content/uploads/2019/12/1491vi.pdf>
- Hall, M. (2014). The Roles and Use of Law in Green Criminology. *International Journal for Crime, Justice and Social Democracy*, 3(2), 96-109. Doi: 10.5204/ijcjsd.v3i2.176
- Hall, M., & Varona, G. (2018). La victimología verde como espacio de encuentro para repensar la otredad más allá de la posesión. *Revista de Victimología*, 107-128. doi:10.12827/RVJV.7.04
- Hispagua. (2006). *Hispagua. Sistema Español de Información sobre el Agua*. Obtenido de Vertidos en aguas continentales en España: <https://hispagua.cedex.es/sites/default/files/especiales/vertidos/vertidos.htm#a>
- Iberdrola, S.A. . (2021). *Impuestos Verdes*. Obtenido de Los impuestos ambientales se abren paso para proteger el medio ambiente: <https://www.iberdrola.com/medio-ambiente/impuestos-verdes-o-ambientales>
- Ihobe & Eusko Jaurlaritzako garapen ekonomiko, iraunkortasun eta ingurumen departamentua. (2021). *Medio Ambiente en Euskadi 2020. Estado y perspectivas*.
- INTERPOL. (n.d.). *Interpol.int*. Obtenido de Nuestra respuesta a los delitos contra el medio ambiente: <https://www.interpol.int/es/Delitos/Delitos-contr-el-medio-ambiente/Nuestra-respuesta-a-los-delitos-contr-el-medio-ambiente>
- Jackson, P. (n.d.). *Crónica ONU*. Obtenido de De Estocolmo a Kyoto: Breve historia del cambio climático: <https://www.un.org/es/chronicle/article/de-estocolmo-kyotobreve-historia-del-cambio-climatico>
- Jordano, J. (2003). El Derecho Ambiental del Siglo XXI. *Cultura Verde*, 115-139.
- Long, M. A., Lynch, M. J., & Stretesky, P. B. (2020). The Treadmill of Production and the Treadmill of Law: Propositions for analyzing Law, Ecological Disorganization and Crime. *Capitalism, Nature, Socialism*, 107-122. doi:10.1080/10455752.2018.1545241

- MITECO. (n.d. a). *Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico*.  
Obtenido de Plan Nacional Integrado de Energía y Clima (PNIEC) 2021-2030:  
<https://www.miteco.gob.es/es/prensa/pniec.aspx>
- MITECO. (n.d. b). *Ministerio de Transición Ecológica y el Reto Demográfico*.  
Obtenido de La Red Natura 2000 en España:  
[https://www.miteco.gob.es/es/biodiversidad/temas/espacios-prottegidos/red-natura-2000/rn\\_espana.aspx](https://www.miteco.gob.es/es/biodiversidad/temas/espacios-prottegidos/red-natura-2000/rn_espana.aspx)
- MITECO. (n.d. c). *Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico*.  
Obtenido de Evaluación Ambiental: <https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/evaluacion-ambiental/default.aspx>
- MITECO. (n.d. d). *Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico* .  
Obtenido de AEMA. Agencia Europea de Medio Ambiente:  
<https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/quien-es-quien/aema.aspx>
- MITECO. (n.d. e). *Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico*.  
Obtenido de Marco legislativo de la Prevención y el Control Integrados de la Contaminación, IPPC: <https://www.miteco.gob.es/gl/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/medio-ambiente-industrial/prevencion-y-control-integrados-de-la-contaminacion-ippc/ippc.aspx>
- MITECO. (n.d. f). *Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico*.  
Obtenido de Información Pública del Anteproyecto de Ley de Residuos y Suelos Contaminados: <https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/participacion-publica/Residuos%202020%20anteproyecto%20de%20ley%20de%20residuos%20y%20suelos%20contaminados.aspx>
- NBE. (2015a). *Objetivos de Desarrollo Sostenible*. Obtenido de  
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-development-goals/>
- NBE. (2015b). *El Acuerdo de París*. Obtenido de <https://unfccc.int/es/process-and-meetings/the-paris-agreement/el-acuerdo-de-paris#:~:text=Fue%20adoptado%20por%20196%20Partes,comparaci%C3%B3n%20con%20los%20niveles%20preindustriales>.

- Nuche, P., & Valladares, F. (14 de marzo de 2019). Ecología y Ecologismo... ¿Cuál es cuál? *El Diario*.
- Pajares, M. (2020). *Refugiados Climáticos. Un gran reto del siglo XXI*.
- Pew Research Center. (2019). Climate Change Still Seen as the Top Global Threat, but Cyberattacks a Rising Concern.
- Potter, G. R. (2017). Capítulo 1. Criminología Verde como Ecocriminología: El desarrollo de una ciencia social del crimen ecológicamente informada. En D. Rodríguez, N. South, A. Brisma, & H. Mol, *Introducción a la Criminología Verde: conceptos para nuevos horizontes y diálogos socioambientales* (págs. 31-55).
- Rodríguez, D., & South, N. (2017). Green Criminology before 'Green Criminology': Amnesia and Absences. *Critical Criminology*, 165-181.
- Tratado de Lisboa sobre por el que se modifican el Tratado de la Unión Europea y el Tratado constitutivo de la Comunidad Europea. Artículo 13. Diario Oficial de la Unión Europea, 17 de Diciembre de 2007.
- White, R. (2013a). Chapter 1. Criminology and Environmental Harm. En R. White, *Crimes Against Nature. Environmental Criminology and Ecological Justice* (págs. 1-30).
- White, R. (2013b). Chapter 2. Social Constructions of Environmental Problems. En R. White, *Crimes Against Nature. Environmental Criminology and Ecological Justice* (págs. 32-53).
- White, R. (2013c). Chapter 4. Dimensions of Environmental Crime. En R. White, *Crimes Against Nature. Environmental Criminology and Ecological Justice*. (págs. 87-114).
- White, R. (2013d). Chapter 7. Environmental Law Enforcement. En R. White, *Crimes Against Nature. Environmental Criminology and Ecological Justice* (págs. 181-208).
- White, R. (2013e). Chapter 8. Environmental Regulation. En R. White, *Crimes Against Nature. Environmental Criminology and Ecological Justice* (págs. 209-233).

- White, R. (2013f). Chapter 9. Environmental Crime Prevention. En R. White, *Crimes Against Nature. Environmental Criminology and Ecological Justice* (págs. 234-255).
- White, R. (2013g). Global environmental issues and socio legal intervention. En R. White, *Crimes Against Nature. Environmental Criminology and Ecological Justice* (págs. 256-281).
- World Compliance Association. (n.d. ). *World Compliance Association*. Obtenido de Acerca del Compliance: <http://www.worldcomplianceassociation.com/que-es-compliance.php#:~:text=El%20Corporate%20Compliance%20es%20un,reacti%C3%B3n%20frente%20a%20los%20mismos>
- Yang, T., & Percival, R. V. (2009). The emergence of global environmental law. *Ecology Law Quarterly* (36 (3)), 615-664.

## 11. ERANSKINAK

### ERANSKINA 1

<b>SURFRIDER - GIDOIA</b>
<p><b>ERAGILE/ERAKUNDE BAKOITZAREN DESKRIBAPENA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zein da zuen lanpostua entitatearen barne? Zein funtzio betetzen dituzue?</li> <li>• Zein da orainarte burututako ibilbidea edo ekimenak?</li> <li>• Zeintzuk dira entitatearen funtzioak eta eskumenak?</li> <li>• Helburuak</li> <li>• Asmoa</li> <li>• Etorkizunerako erronkak / beharrak</li> </ul>
<p><b>ERAGILE BAKOITZAK IDENTIFIKATZEN DITUEN INGURUMEN ARAZO NAGUSIENAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalteak sortzen dituzten portaerak eta praktikak</li> <li>• Arazoen jatorria / Kausa</li> <li>• Nortzuk? Non? Zein jarduerari lotuak?</li> <li>• Jarduera ekonomikoak, sozialak,</li> <li>• Itsasoa, ibaia, mendia, hiria.</li> <li>• Nortzuk dira kaltetuak?</li> <li>• Zein arazok du zuentzat lehentasun gehien eta gutxien?</li> <li>• Uste duzue enpresek burutzen dituzten isurketak eta kutsadura, kontzientzia faltarengatik dela edota etekin ekonomikoengatik burutzen dutela?</li> </ul>
<p><b>ARAZO DESBERDINEI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK / TRESNAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxe edo beste instituzioekin lankidetzak eduki ohi duzute?</li> <li>• Nola da haien harrera zuen proposamenak entzutean?</li> <li>• Zein dira gizartearen sentsibilizazio eta kontzientziazioa sustatzeko burutzen dituzuen ekintzak?</li> <li>• Zein ekintza burutzen dituzute eskoletan? Zein da zuen sentsazioa hurrengo belaunaldien jarreraren inguruan?</li> <li>• Zertan datza boluntariora?</li> <li>• Zein paper jokatzeko duzue ingurugiro politikan (lobbying, aholkularitza)?</li> </ul>
<p><b>IRTENBIDE / SOLUZIO POSIBLEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Legedia / Zigorra / Santzioa <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Eraginkorra iruditzen zaizue indarrean dauden neurriak (santzio ekonomikoak, kartzela zigorrak?)</li> </ul> </li> </ul>



- Uste duzue natura burutzen diren jarduerak gehiago araututa egon beharko zirela?
- Badago jardueraren bat ZKan tipifikatuTA ez dagoena eta egon beharko lukeena?
- Zein santzio/zigor mota iruditzen zaizkizue egon beharko zirela?
- Noizbait ezagutzera eman dezute ingurumen kalte kasuren bat eta auzitegira eramatea lortu duzue?
- Prebentzioa
  - Portaera kaltegarri hauek ekiditeko zein prebentzio ekintzak burutzen dituzue? Edo beste berri batzuk bururatzen zaizkizue?
- Zertan jarri behar dira esfortzu gehiago?

### **INGURUMEN ZINEGOTZIA- GIDOIA**

#### **ERAGILE/ERAKUNDE BAKOITZAREN DESKRIBAPENA**

- Zein da zure kargua?
- Zein da udaletxeko departamentu honek dituen funtzioak, eskumenak, helburuak?
- Zeintzuk dira orain arte burututako ekimenak ingurumen arloan?
- Etorkizunari begira zein asmo dituzue?
- Zein erronka edo behar ikusten dituzue etorkizunera begira? Klima aldaketa, garapen iraunkorra, trantsizio energetikoa...

#### **ERAGILE BAKOITZAK IDENTIFIKATZEN DITUEN INGURUMEN ARAZO NAGUSIENAK**

- Gaur egun, zein portaera edo jarduera identifikatzen dituzu ingurumen delitu gisa Hondarribin?
- Nortzuk? Non? Zein jarduerari lotuak?
- Jarduera ekonomikoak, sozialak,
- Itsasoa, ibaia, mendia, hiria.
- Agrikulturan ematen den produktuen ustiapena iraunkorra iruditzen zaizu? Zein bai zen ez?
- Ba al dago Enpresek burutzen dituzten hondakin isurketarik?
- Zure ustez zein izan daiteke arazo hauen jatorria edo kausa?
- Nortzuk uste duzu direla kaltetuak?

- Aipatu dituzun arazoetatik zeini emango zenioke lehentasun gehien edo gutxien?

#### **ARAZO DESBERDINEI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK / TRESNAK**

- Zein dira udaletxe batek dituen baliabideak edota mugak ingurumen kalteei aurre egiteko?
- Zeinengana jo ohi dezute (adituak, ONG edo antzeko organizazioak)?
- Herriko ingurumen arazo bati aurre egiteko kanpo kolektibo baten proposamenak kontuan hartzen dituzue?
- Beste udalerriekin ba al dago lankidetzarik?
- Ba al ditu udaletxeak bere plantillaren barne horretara zuzendutako lanpostuak edo kasuz kasu bilatzen dira baliabideak?

#### **IRTENBIDE / SOLUZIO POSIBLEAK**

- Zein Legedi / Zigor / Santzio daude indarrean honi aurre egiteko?
- Ingurumen delitu hauek prebenitzeko ba al dago martxan ekintzarik? Edota etorkizunerako planen bat?
- Zertan jarri behar da esfortzu gehiago?

### **GUARDIA ZIBILAREN ITSAS ZERBITZUA - GIDOIA**

#### **DESCRIPCIÓN DE LA ENTIDAD/AGENTE SOCIAL**

- ¿Cuál es tu puesto dentro de la Unidad? ¿Qué funciones cumples?
- El recorrido hasta ahora: ¿Cuáles son las tareas que realizáis? ¿Y en concreto en la zona de Bidasoa (Gipuzkoa)?
- ¿Cuáles son vuestras competencias, objetivos?
- ¿Cómo es la estructura de la Unidad? ¿Cuántos agentes sois? ¿Tenéis alguna formación específica?
- De cara al futuro, ¿Qué dificultades o retos identificáis (Cambio climático, pérdida de especies, protección de ciertos espacios...)? ¿Y necesidades?

#### **LOS PRINCIPALES PROBLEMAS MEDIOAMBIENTALES QUE IDENTIFICA CADA ENTIDAD**

- ¿Con qué tipos de delitos o daños medio ambientales os soléis encontrar? ¿Y en concreto en Hondarribia, Jaizkibel, Costa de Gipuzkoa...?

- ¿Cuáles son las actividades o conductas que producen estos daños?
- ¿Quiénes? ¿Dónde? ¿Relacionadas con qué tipo de actividades? Económicas, sociales...
- ¿Cuál es el origen o causa de los daños?
- ¿Quiénes son los afectados?
- ¿En qué tipo de actividades poneis más atención o es vuestra prioridad?
- ¿Creéis que los daños que se producen son a causa de una falta de sensibilización o de algún otro motivo?

#### **RECURSOS PARA HACER FRENTE A ESTOS PROBLEMAS**

- ¿Cómo realizáis el control para que estos daños no se produzcan?
- ¿Qué procedimiento seguís cuando os encontráis con alguna irregularidad?
- ¿Qué legislación es aplicable? ¿Qué tipo de sanciones prevé?
- ¿Realizáis algún tipo de colaboración con la Ertzaina u otras entidades que monitorizan este tipo de irregularidades? Por ejemplo: Ura...
- ¿Creéis que tenéis una falta de recursos? ¿Por qué? ¿Qué necesitaríais?

#### **POSIBLES SOLUCIONES**

- ¿Tenéis algún tipo de función relacionada con la prevención de estas actividades dañinas o irregulares?
- ¿Dónde o en que se deberían de poner más esfuerzos?

### **ERTZAINAREN INGURUMEN DELITUEN SAILA - GIDOIA**

#### **DESCRIPCIÓN DE LA ENTIDAD/AGENTE SOCIAL**

- ¿Cuál es tu puesto dentro de la Unidad? ¿Qué funciones cumples?
- El recorrido hasta ahora: ¿Cuáles son las tareas que realizáis?
  - ¿Cuándo se crea este departamento? ¿Y por qué?
- ¿Cuáles son vuestras competencias, objetivos?
- ¿Cómo es la estructura de la Unidad? ¿Cuántos agentes sois? ¿Tenéis alguna formación específica?
- De cara al futuro, ¿Qué dificultades o retos identificáis (Cambio climático, pérdida de especies, protección de ciertos espacios...)? ¿Y necesidades?

#### **LOS PRINCIPALES PROBLEMAS MEDIOAMBIENTALES QUE IDENTIFICA CADA ENTIDAD**

- ¿Con qué tipos de delitos o daños medio ambientales os soléis encontrar? ¿Y en concreto en la zona de Bidasoa, Txingudi, Jaizkibel...?
- ¿Cuáles son las actividades o conductas que producen estos daños?
- ¿Quiénes? ¿Dónde? ¿Relacionadas con qué tipo de actividades? Económicas, sociales...
- ¿Cuál es el origen o causa de los daños?
- ¿Quiénes son los afectados?
- ¿En qué tipo de actividades poneis más atención o es vuestra prioridad?
- ¿Creéis que los daños que se producen son a causa de una falta de sensibilización o de algún otro motivo?

#### **RECURSOS PARA HACER FRENTE A ESTOS PROBLEMAS**

- ¿Cómo realizáis el control para que estos daños no se produzcan?
- ¿Qué procedimiento seguís cuando os encontráis con alguna irregularidad?
- ¿Qué legislación es aplicable? ¿Qué tipo de sanciones prevé?

#### **POSIBLES SOLUCIONES**

- ¿Tenéis algún tipo de función relacionada con la prevención de estas actividades dañinas o irregulares?
- ¿Dónde o en que se deberían de poner más esfuerzos?

## **12. TXOSTEN EXEKUTIBOA**

### **LABURPENA**

Ikerketa kualitatibo honen helburu nagusia, ingurumen delitu eta kalteei dagokionez, Gipuzkoako egungo egoera konkretu ezagutzea izan da. Horretarako, ikuspegi kriminologiko bat baliatuz, kriminologia berdearen adarrak, gai honekiko teorikoki eskaintzen dituen gogoetak (ikuspegiak, delituen tipologia, erregulazioa...) eta proposamenak haintzat hartu dira. Ondoren, helburu nagusiari helduz, ingurumen kalte nagusiak idenfitikatu dira: arrantza eta ehiza ez-zilegia, isurketak eta suteak. Arazo hauei aurre egiteko ikertutako baliabideak administrazioaren aldetik, Ertzaina, Guardia Zibilaren Itsas Zerbitzua eta Udaletxeak eta bestalde, GKEn rola ere aztertu da zentzu honetan. Azkenik, entitate hauek ingurumen kalteen arazoari aurre egiteko izan ditzazketen zailtasunak aztertu dira hainbat dimentsio haintzat hartuz, horien artean

aurkikuntza esanguratsuenak, hauek izango lirateke: Ertzainaren barne giza baliabide eta baliabide-materialak hobetzeko behar bat dagoela, erregulazioaren eraginkortasuna eskasa dela eta honen bateratasun faltak ere are gehiago zailtzen duela ingurumen eta kalte hauen kudeaketa eta industria eta enpresei dagokionez interes ekonomikoak gidatzen duela hauen jarduera, ondorioz, eragiten dituzten ingurumen kalteen garrantzia gutxietsiz. Ezaugarri positibo bat azpimarratzearen, entitate eta eragile desberdinen arteko lankidetzaren ugaria eta altua dela esan daiteke delitu hauen ikerketari dagokionez.

## **SARRERA**

Gizartean geroz eta garrantzi handiagoa bereganatzen ari den arazo bat da ingurumen kalteena. Izan ere, gizakiaren bizimodua erraztu duten asmakizunek, aldi berean, epe luzera gizakion bizitza kaltetuko dute eta jada hainbat ondorio nabarmenak dira, esaterako, aldaketa klimatikoaren ondorioak. Zentzu horretan, hainbat erregulazio eta kontrol egikaritzen dira, ingurumenean sortzen ditugun inpaktuak murrizteko asmoz, edota larrienak ekiditeko asmoz. Hala ere, egungo egoera kontuan izanik hauen eraginkortasun falta nabarmena dela esan daiteke. Bertan topatzen da ikerketa honen mamia. Ikuspuntu kriminologiko batetik, ingurumen kalteak berariaz sortzen dituen kalteak bai eta kalte sozialak ekiditeko asmoa sortzen da, kalte hauen eragileak, motak eta kalte hauen kudeaketan eragiten duten faktoreak aztertzen saiatuz. Horregatik, gertutasun geografikoa haintzat hartuz, bai eta errekurso natural ugariak zein industrializazio maila altua kontuan izanik, Gipuzkoako egoera alor honetan aztertzea garrantzizkoa suertatzen da. Horrenbestez, konkretuki eremu geografiko honetan topatzen ditugun kalteak identifikatu, kalte hauei aurre egiteko baliabideak aztertu, bai eta ingurumen kalte eta delituak murrizteko edo ekiditeko topatu ditzakegun zailtasunak eta baldintzak aztertzen dira, horrela hobekuntzak eta ikerketa berrietarako proposamenak garatuz.

## **METODOLOGIA**

Ikerketa honen helburuak betetzeko jarraitutako metodologia kualitatiboa izan da, hau da, ingurumenaren kudeaketan edota ingurumenaren babesean paper garrantzitsu bat jokatzeko duten identifikatutako eragileak elkarriketatu dira: Eguzki talde ekologisteko kide bat eta abokatua, Surfrider GKEko bi lankide, Udaletxe batetako ingurumen zinegotzia, Guardia Zibilaren Gipuzkoako itsas zerbitzua eta Ertzaineko ingurumen saileko agente bat. Elkarriketetatik jasotako erantzunak aintzat hartu dira emaitzak eta

Gipuzkoako egoeraren analisia burutzeko. Horretaz gain, Gipuzkoako ingurumenaren egoerari buruzko informea ere aintzat hartu da datu kuantitatiboak lortzeko.

## **EMAITZAK**

Ikerketatik eratorritako emaitzei helduz, hasteko, Gipuzkoan ohiko gisa identifikatutako ingurumen kalteak hurrengoak dira: arrantza eta ehiza ilegala, honen eragileak batez ere pertsona indibidualak izanik; isurketak bai ur, lur, itsaso zein airean eragile nagusia industria izanik, bai eta suteak, honen eragileak pertsona indibidualak izanik.

Honi aurre egiteko Gipuzkoan ditugun baliabideei dagokionez, lau eragile aintzat hartu ditut: GKEak, Udaletxearen ingurumen departamentua, Ertzainaren ingurumen saila eta Guardia Zibilen itsas zerbitzua, hau da, ingurumena kaltetu dezaketen jarduerak kudeatzen, ingurumen delituen ikerketan eta ingurumenaren babesean rolen bat jokatzeko duten eragileak.

GKEk ingurumen kalteen babesean eta aurrezaintzaren inguruan burutzen dituzte funtzioak hurrengoak dira: eragin politikoa sortu erregulazioen aldaketak sustatzeko, bai eta erregulazio berriak aurrera eramateko ingurumenaren babesa eta kudeaketari dagokionez, ingurumen kalteak salatu mediatikoki zein legalki eta sentsibilizazioa sustatu ingurumenaren babesa eta errespetua bultzatzeko.

Udaletxeetako ingurumen departamentuari dagokionez, herriko jarduerak eta bizitza ingurumenarekiko iraunkorrago eta jasangarriagoa izan dadin hainbat plan aurrera eramanez eta sentsibilizazio kanpainak burutzen dituzte.

Guardia Zibilaren itsas zerbitzuari dagokionez batez ere aurrezaintza funtzioa daukate, itsasoko eremuan eta Gipuzkoako kostaldean ikuskaritza funtzioak burutzen dituztelako batez ere. Beraz, itsasoan burutzen diren jarduerak modu egokian eta erregulazioa errespetatuz burutzen direla bermatu, Gipuzkoako kostaldean patruilatu eta gai zehatzetarako kanpainak ere burutzen dituzte.

Ertzainaren ingurumen sailari dagokionez, nagusiki, ingurumen delituen ikerketara bideratuta dago haien ogibidea, konkretuki ZKan barneratuta dauden portaerak ikertzera, honek lotesten baitu beraien jarduerak. Horretaz gain, komisaldegiei ingurumen infrakzioen inguruan aholkularitza eskaini, eta ingurumen delituen eta infrakzioen inguruko formazioa ematen dute Arkauten.

Beraz, eragile hauen jarduera orokorrean aztertuz ondorioztatu daiteke, ingurumenaren zaintzan, kudeaketan eta ingurumen delitu eta kalteen ikerketan eta aurrezaintzan parte hartzen duten eragile desberdinen artean kolaborazio handia dagoela.

Eragile hauek burutzen dituzten funtzioak eta ekimenak, bai eta adierazpenak aztertuz Gipuzkoako ingurumen kalte eta arazoei aurre egiterako orduan topatu ditzazkegun zailtasunei helduz, hainbat faktorek delitua jazartzeko oztopoak eragiten dituzte, esaterako, legalki topatu ditzakegun mugak delituak ikertzerako orduan eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko, ingurumen delituentzako aurreikusita dauden zigor arinen ondorioz; autoreak identifikatzeko topatzen diren zailtasunak, bai eta berariaz, bete beharreko prozedura burokratikoak.

Horretaz gain, gorputz polizialen barne ezagutza eta gaitasun teknikoak hobetu beharreko elementu bat direla aipatu beharra dago, batez ere, Ertzainaren barneko giza baliabideak. Gainera, erregulazioarekin eguneratuta egoteko eta hauek aplikatzeko zailtasunak ere daude, hauen ugaritasuna dela eta, ingurumen kontzeptua bezalaxe. Kontzeptu hau bere osotasunean oso zabala baita.

## **ONDORIOAK**

Gipuzkoan ingurumen arazo nagusiak, ehiza eta arrantza ez zilegiak dira, hau da, animalia babestuen ehiza eta arrantza edo erregulazioa ezarritako mugetatik haratago arrantza edo ehizatzea eta aire, lur, ur edo itsasoan burutzen diren isurketak. Honen ildora, ingurumen kalteak eta delituak saihestu eta murrizte aldera interesgarria izango da ingurumen eta industriengan fokua jartzea, hauek ingurumen kalteak eragiterakoan duten ardura handiagatik bai eta Gipuzkoaren industrializazio mailagatik.

Delituak jazartzerako orduan hainbat oztopo topatu ditzakegu Gipuzkoan. Esanguratsuenak aipatzearen, ingurumen delitu eta kalteen autoreak identifikatzeko zailtasunak eta gorputz polizialen barne eskura dauden gaitasun, ezagutza eta baliabide eskasak, honen jatorrian arrazoi ugari identifikatuz. Arrazoi horien artean, administrazioaren aldetik ingurumen kalteak ekiditeko interesa areagotzeko beharra, legalki ingurumen kalteentzat aurreikusitako zigor arinengatik, honek poliziek ikerketa teknikak baliatzeko mugak ezartzen baititu, hainbat ikerketa teknika erabiltzea ukatuz. Zentzu horretan interesgarri izango litzateke ingurumen delituentzako zigorra areagotzea edota ingurumen delituen larritasuna baloratzeko ingurumenean eragindako larritasunean oinarritzea.

Bestalde, enpresen eta industriek eragindako ingurumen kalteen jatorrian bi arrazoi nagusi identifikatu dira, nagusiki interes ekonomikoak eta era ahulago batean sentsibilizazio falta.

Beraz, ondorio hauetatik ingurumen kalteen kudeaketa eta aurrezaintza hobetzeko hainbat proposamen egin dira, esanguratsuenak aipatzearen, ingurumen kalteen kontrolari eta aurrezaintzari dagokionez administrazioa judiziala eta polizialaren jardura hobetzeko, espezializazio sakonago bat burutzea, hau da, formazio gehiago eskainiz, ezagutzak, teknikak eta baliabideak hobetu ahal izateko; ingurumen delituez arduratzen den fiskala soilik delitu mota horietaz arduratzea; ingurumen delituen autoreak identifikatzeko zailtasunari aurre egiteko gaiaren inguruan ikerketa sakonago bat egitea; Euskadi mailan ingurumen agentzia espezializatu bat sortzearen proposamena eta ingurumenari buruzko legedien proiektuetan gai konkretuari buruzko aditu zientifikoak parte-hartzea.